OSTIRALA, 2023KO URRIAREN 20A • XXI. URTEA • 6.315. ZENBAKIA • BERRIA.EUS

PREZIOA: 1,55 EURO

# berria

GAUR HITZA



«Nire musikak bizitzan eta musikan dudan bizi momentua islatzen du»

**Sara Zozaia** • Musikaria

**KULTURA** • 22

# Udalek agiriak euskara hutsean egitea galarazi du EAEko Auzitegi Nagusiak

*Udal legearen bidez euskara sustatzeko dekretuaren artikuluen aurka jo du berriz ere justiziak, oraingoan PPren helegitea aintzat hartuta • Udalek jardun berari eutsiko diote, epaia irmoa izan ezean*

**EUSKAL HERRIA** • 4-5



## Eskaera EEPri: euskal hiztunen emendatzea azkartzea

*Euskal Konfederazioak nahi du euskaldunak gutienez %30 izatea Iparraldean 2050erako • «Anbiziotsu» izatea galdegin dio Euskararen Erakunde Publikoari*

**HARIAN** • 2-3

**Baiona.** Konfederazioaren agerraldia, atzo. PATXI BELTZAIZ

## Gaza. Laguntzaren zain eraso etengabean

**MUNDUA** • 14



**Hondakinen artean harrapatutako herritarren erreskate bat, atzo, Khan Yunis hirian.** HAITHAM IMAD / EFE

## Sindikatuen arabera, «garai egokia» da arlo publikoan greba egiteko

**EKONOMIA** • 12-13

**KEPA PAZ ALONSO**

BCBL-KO IKERLARIA

«Gutxiago entrenatzen dugu memoria, eta ez dakigu horrek zer ondorio dituen»

**BIZIGIRO** • 30-31

## Eusko Legebiltzarrak atzera bota ditu Hezkuntza Legearen osoko zuzenketak

**EUSKAL HERRIA** • 7

## Euskal Kazetaritza Sariak irabazi dituzte Martxelo Otamendik eta Iñaki Petxarromanek

BERRIAko zuzendari ohiari ibilbide osoaren aitortza egin diote. BERRIAko kazetariak, berriz, ingurumen arloko kazetaritzaren saria lortu du.

**AGENDA** • 28

# EEPri eskatu diote lan egin dezala euskal hiztunak %30 izan daitezen 2050erako

Gaur egungo erritmoan eta oraingo baliabideekin segitzea «euskara hiltzera kondenatzea» litzateke, Euskal Konfederazioaren hitzetan ● Maider Behotegi izanen da EEPko lehendakari berria ● Erran du «anbiziotsu» izan behar dela

**Ekhi Erremundegi Beloki** *Baiona*

Euskal Konfederazioak agerraldia egin du Baionan, EEP Euskararen Erakunde Publikoa osatzen duten lau partaideei eskatzeko proposa dezatela euskararen geroa segurtatuko duen hizkuntza politika bat. «Nola egin 2050ean euskaldunen kopurua %30 izan dadin, euskararen biziraute segurtatzeko?», galdetu dute. «Hori da EEP osatzen duten erakunde publikoek egin behar duten galdera eta atzeman behar dituzten erantzunak». EEPren izaera eztabaidatuko dute hura osatzen duten erakunde publikoek ondoko asteetan, eta etorkizunean zer baliabide izanen dituen erabakiko dute. Euskalgintzaren hitzetan, gaur egungo erritmoan segitzea «euskara hiltzera kondenatzea» litzateke.

2004an sortu zenetik, lau hanka ditu EEPk: Frantziako Estatua –Kultura, Hezkuntza eta Barne ministerioek dute ordezkaritza–, Akitania Berria eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoa. Izaera juridikoz IEP Interes Publikoko Elkargoa da, eta bost urtean behin erabakitzen dute jarraituko duen ala ez, Frantziako Gobernuak egindako ebaluazio baten ondotik. Mahai gainean dagoen aukeretako bat da hemendik aitzina epe mugagabea ematea.

Prozesu horretan, EEPren beharrak zehazteko lan dokumentua aurkeztu zieten hizkuntza eragileei eta Euskal Konfederazioari irailean. Bertan, Ipar Euskal Herriak ondoko urteetan izanen duen bilakaera demografikoa aztertu dute, eta araberan izan lezakeen euskal hiztun kopurua aurreikusi dute. Onenean, gaur egungo euskaldun kopuru bera litzateke, erdal mundu geroz eta handiagoan –EEPren kalkuluen arabera, hamar herritar berritarik zortzi izanen dira frankofonoak, eta bi euskaldunak–. Biztanleriaren emendatzeak azken urteetako joerari segitzen badio, euskaldun kopurua %16tik behera izanen da.

«Datu beldurgarri horien aitzinean, EEPk ez du proposatzen euskararen geroa segurtatuko duen hizkuntza politikarik. Haien proposamen bakarra da orain arte bezala segitzea», deitoratu du Konfederazioak. «Zein dira EEPren helburuak zenbakitan, euskaldun osoak trebatzeari begira? Nola eta zer epetan? Nola berpiztuko du euskararen erabilera?», galdetu dute. Izan ere, xehetasunik eta ebaluazio irizpiderik ez da ageri ondoko urteetarako hizkuntza politika eguneratzea helburu izan beharko lukeen dokumentuan. «Nola bultzatu euskararen biziberritzea holako helbururik ez bada finkatzen?».

### Lehendakari berria

Atzo arratsaldean zuten biltzar nagusia EEPko partaideek, eta lehendakari berria izendatu zuten. Maider Behotegi departamenduko hautetsiak hartuko du Antton Kurutxarriren lekukoa, ondoko hiru urteetarako. Behotegik kargua hartzearekin batera, instituzioen arteko negoziazioa abiatuko da EEPko aurrekontuari zenbateko ekarpena egiten dioten finkatzeko; erakunde bakoitzak laurden bat ematen du estatutuen arabera. «Euskalgintzak hamarkadetan frogatu du ez dagoela ezinbesterik, eta behar diren ahaleginek, ezinbestekoak diren inbertsioek, emaitzak ematen dituztela», adierazi du Konfederazioak.

Hala, Behotegiri mintzatu zitzaizkion goizean egin zuten agerraldian: «Lehendakari berriari eskatu nahi diogu ausarta izan dadin, helburu ausartak finka ditzan, eta araberako baliabideak ezar ditzatela estatuak, eskualdeak, departamenduak eta elkargoak». Joan den otsailean gutun bana igorri zieten instituzioetako lehendakariei, euskalgintzaren prekaritatea salatzeko eta adierazteko baliabide egokirik gabe ezinezkoa dela euskara biziberritzea. «Ez dugu sekula erantzunik izan...», deitoratu dute.

EEPren biltzar nagusia aitzin, prentsaurrekoan zabaldutako testua banatu zieten euskalgintzako kideek erakundeetako ordezkariei. Behotegik ere hartu zuen hitza kazetarien aitzinean:



Euskal Konfederazioko kideak, atzo goizean egin zuten agerraldian.
PATXI BELTZAIZ

**«Zein dira EEPren helburuak zenbakitan, euskaldun osoak trebatzeari begira? Nola eta zer epetan?»**
**Eneko Gorri**
Euskal Konfederazioa

**«Ministerioarteko ikuskatzearen beha gaude; norabide bat emanen digu aurrekontuei begira»**
**Maider Behotegi**
EEPko lehendakaria

**SOSLAIA**



PATXI BELTZAIZ

## Maider Behotegi. EEPko lehendakari berria

**E.E.B**

Maider Behotegi izanen da EEPren lehendakaria ondoko hiru urteetarako. Euskal Hirigune Elkargoaren ondotik, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko kontseiluaren txanda da lehendakaritza hartzeko; horrek ekarri du aldaketa. Antton Kurutxarriren segida hartuko du. Departamenduko kontseiluan, Jean Jacques Lasserren zentro-eskuineko gehiengoaren parte da. Horrez gain, Bardozeko (Lapurdi) auzapeza da 2020ko herriko bozetatik, eta Euskal Hirigune Elkargoan ere parte hartzen du.



«Inkesta soziolinguistikoak oinarriak eta erronkak finkatu ditu. Urte bukaerarako iritsi beharko litzatekeen ministerioarteko ikuskatzearen beha gaude, eta horrek ere norabide bat emanen digu, aurrekontuei begirakoa ere», adierazi zuen. «Beharren orduen artean da, baina uste dut badirela beste aterabide batzuk ere, erakunde bakoitzak dituen eskumenen arabera. Konfiantzaz beteak eta baikor segituko dugu, erronkaz ohartuak baikara».

Behotegik baieztatu zuen badakitela «gaitzeko erronka» dela, eta erran zuen horretan lan eginen dutela. Haatik, 2050erako hiztun kopurua %30era heltzeari buruz ez zuen helburu zenbakiturik eman nahi izan. «Anbiziotsu izan behar da, bai, badakigu lana badugula egiteko, badakigu proportzio hori emendatu behar dela. Ez naiz gai gaur errateko zer maila finkatuko dugun, ez baitakit nola definitua izan den, Unescok ezarritako helburua dela entzuteaz harago».

**Euskaltzaleak, «adi»**

Hemendik aitzina, instituzio arteko negoziazioari hurbiletik erreparatuko dio Euskal Konfederazioak, «ondoko aste eta hilabeteetan euskararen geroa baita jokoan». Ipar Euskal Herriko hautetsiak deitu ditu, bidenabar, «egoeraren neurria har dezaten eta eginahalak egin ditzaten egoera hau errotik aldatzeko hizkuntza politiken obratzeko». Euskaltzaleak ere «adi» egotera deitu ditu.

Azkenik, Konfederazioak bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4ko deitu duen mobilizazioarekin, eta Ipar Euskal Herriko euskaltzale guziak deitu ditu parte hartzera.

**ANALISIA**
Ekhi Erremundegi Beloki



# *Hil ala bizi*

EAEko Hezkuntza Legearen inguruko eztabaidak aukera eman du azken 40 urteetan lurralde horretan garatu den hizkuntza politikaren balorazio bat egiteko. Euskara ofiziala da EAEn; asko hobetu badaiteke ere, paisaia linguistikoan presentzia nabarmena du. Halaber, ikastoletan zein publikoan, murgiltzean ikasteko aukera dago irakaskuntza maila guzietan; gaur egun, ikasleen %70 euskara hutsean ikasteko aukera ematen duen D ereduan daude matrikulatuta. Baina ez da aski: euskaran gutxieneko maila bat erdietsi gabe bukatzen dute ikasketa prozesua ikasle askok. Ikasle guziek B2 maila lortzea helburu hartuta, hezkuntza eredua errotik aldatzea dute (zuten?) helburu lege berriarekin.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, egoera erabat desberdina da. Euskara ez da ofiziala, ez da eskubide gisa onartua, eta hezkuntza publikoan eta pribatu katolikoan ez da murgiltze eredurik –azken urteetan, ama eskolako eta lehen mailetako ikasgela batzuetan klaseak euskara hutsean ematen hasi dira; aurtengo ikasturtean maila horietako ikasleen %4,5 dira aukera hori dutenak–. Ipar Euskal Herriko ikasle guziak hartuta, %8,2 dira ikastoletan murgiltze ereduan direnak. Ikasleen %68k ez dute harremanik euskararekin. VII. Inkesta soziolinguistikoaren arabera, euskal hiztunak %20,1 ziren 2021ean, eta %24,7 ziren hogei urte lehenago. Egoera larria da. Alta, hizkuntza politika bide onetik doala diote batzuek.

2004an sortu zen EEP Euskararen Erakunde Publikoa, eta bi urte berantago onartu zuen bere hizkuntza proiektua. Hogei urtez obratu duten politika publikoa egonik iritsi gara gauden lekura. Erranen dute hemorragia gelditu dutela; ez da gezurra. Erranen dute hezkuntzan euskarak duen presentzia emendatu dela; erlatiboa da. Erranen dute euskara bizi dadin lan ezinbestekoa egiten duten euskalgintzako eragileen eskaerak entzun eta baliabideak eman dituztela; ez da beti hala izan. Haatik, argi da orain artekoa ez dela gai izan Frantziako asimilazio politikek eragindakoa iraultzeko.

Izan dira aitzinamenduak, ezin da ukatu; baina ez dira egoerak eskatzen duenaren heinekoak, inondik ere. Okerrago, egoeraren larritasuna oroitarazi gabe, izan diren aitzinamendu txikien inguruko diskurtso baikorregia zabaltzeak ez du modurik ematen diagnostiko erreal bat egiteko; tentsio apaltze bat, kontzientzia apaltze bat sentitzen da euskal munduan. Askok ez dute sentitzen mobilizatzeko beharrik. Interpretazio gehiago merezi lituzke, baina hori ere bada euskalgintzak udaberriko manifestazioan bildu zuen jende kopurua esplikatzen duten arrazoietako bat.

Egoera horretan iritsi da EEPren estatutuen berritzearen harira, erakundearen beharren deklinabidea zehazteko prestatu duten lan dokumentua. Irail erdian aurkeztu zieten hizkuntz eragileei eta Euskal Konfederazioari. Egiten dituzten aurreikuspenetan, 2050erako hiztun kopuruak orain artekoan segitzea edo %17-16 ingurura apaltzea aurreikusten dute, eta haien proposamen bakarra da orain arte bezala segitzea. Hein horretara iritsita, euskararentzat proposatua dena ez da hizkuntza politika bat: zainketa aringarriak dira; sufrimendu handiegirik gabe, goxo hil dadin.

*2050erako, hiztun kopuruak orain artekoan segitzea edo %17-16 ingurura apaltzea aurreikusten dute. Hein horretara iritsita, euskararentzat proposatua dena ez da hizkuntza politika bat: zainketa aringarriak dira; sufrimendu handiegirik gabe, goxo hil dadin*

Prekaritatea salatu zuten AEKko kideek iazko azaroan; bizirauteko «zango bat moztea» aurreikusten ari da Uda Leku; Frantziako Estatuarekin hitzarmenik lotu gabe segitzen du Seaskak. Eta aipa genezake euskara mailaren apaltzea, aipa genitzake ikus-entzunezkoak, hedabideak... Honela dio EEPk gaur egungo hizkuntza proiektuaren aurkezpenean: «Proiektua, euskalgintzako eragileekin eskuz esku eraman desmartxa baten emaitza dena, euskararen aldeko politika publikoaren erreferentziazko markoa da» Hitzei zentzua emateko tenorea da.

Ildoa markatu du Euskal Konfederazioak: 2050erako euskal hiztunen kopurua gutxienez %30era iristea ahalbidetuko duen hizkuntza proiektu bat behar da. Hori da erakundeei eskatzen zaiena. Orain arte erakutsi duten borondate politikoa kontuan hartuta, ez da erronka makala, baina lor daiteke.

Haatik, ezin da izan euskalgintzaren borroka soilik. Ipar Euskal Herria gobernatzen duten erakundeak mugitu nahi badira, mugimendu euskaltzalea bere osotasunean inplikatu beharko da: eragileak, hautetsiak eta herritarrak. Gogoeta partekatu bat behar da, estrategia bateratu bat, diagnostiko erreal batetik abiatzen dena eta helburuetan handinahia dena. Indar berri bat behar du euskarak, hats berri bat, Ipar Euskal Herriko gizartean merezi duen lekua berreskura dezan. Hil ala bizi, bizitzaren hautua egiteko tenorea da.

# Udalek EAEn euskara sustatzeko araudia berriz kimatu dute

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak beste epai bat eman du PPren eskeak aintzat hartuta, aurrez Voxenekin egin zuen eran • «Simetria» da argudioa




**UEMAko ordezkariak oldarraldiaren aurkako agerraldi batean, uztailean, Usurbilen.** ANDONI CANELLADA / FOKU

**Gurutze Izagirre Intxauspe - Arantxa Iraola**

EAEko Auzitegi Nagusiak beste epai bat eman berri du udal administrazioek beren jardunean euskara lehenestearen kaltetan. PPk jarritako helegite bati erantzun dio, eta EAEko udal legearen bidez euskara sustatzeko dekretuaren zenbait arau baliogabetu ditu. Agiriak euskara hutsean sortzea ahalbidetzen zuten arau horiek, betiere euskaraz ez dakienari gaztelaniara itzulitako dokumentazioa emanez. Epaian azpimarratu dute, ordea, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan bi hizkuntza ofizial daudela, eta biei toki bera eman behar zaiela: «Ezin da egon bat bestearen gainetik. Bi hizkuntzak ofizialki berdinak dira, eta ezin da bietako bat lehenetsi». Gainera, jartzen du Espainiako Konstituzioak ez duela «agintzen» gaztelaniaz gain beste hizkuntza ofizial bat jakitea.

Zehazki, 18.1, 18.2 eta 33. 5 dekretuaren artikuluetan eragiten du epai honek. 18.1 artikuluan jartzen du euskaraz idatzi ahal izango direla udalen deialdi, eguneko gai zerrenda, mozio, boto partikular, akordio proposamen, batzorde informatiboen irizpen, akordio, tokiko organoen akta eta gainerako udal dokumentazioak, udal bakoitzak onartua duen hizkuntza irizpidearen arabera. Artikuluak eransten du ezen, erabiltzen den hizkuntzak udal horretako kideren baten «eskubideari» kalte egiten badio, erabili den hizkuntza ez jakitea alegatu ahal izango duela, eta hizkuntza ofizialera itzuli beharko zaiola orduan dokumentazioa. Sententziak, ordea, arauaren zati hau ezabatu egin du orain: «Erabili den hizkuntza ez jakitea alegatu ahal izango luke».

Horrenbestez, herritarrak ez duenez propio eskatu beharko gaztelaniazko agiririk, dokumentuek elebidunak izan beharko dutela ondorioztatzen da. Udan, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ebazpen bat eman zuen udal legearen kontra. Euskara hutsean jarduteko era eragotzi zuen, irizpide berari segituta.

18.2 artikulua ere baliogabetu egin du EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak. Horra zer den: «Udaleko barne dokumentazioa hizkuntza ofizialetako batean sortuko da, euskaraz edo gaztelaniaz, hargatik eragotzi gabe interesatuentzako komunikazio eta jakinarazpenei dagozkien irizpide linguistikoak aplikatzea». 33.5 artikulua da bertan behera utzi duen hirugarrena. Hauxe: «Komunikazio dibulgatiboetan edo informatiboetan erabiliko den hizkuntza erabakiko da aintzat hartuaz bi hizkuntza ofizialei buruz jasotzaileek duten ezagutza». EAEko Auzitegi Nagusiak uste du komunikazio horiek garrantzia dutela, herriko lan, kirol eta kultura jarduerek eta bestelako interes orokorreko jarduerek eragina dutelako herritarrengan. Horrenbestez, epaiaren mezua hara: «Elebidunak izan behar dute».

Epaiaren arabera, bi hizkuntza ofizial daudenean haien arteko «oreka» ez apurtzea da kontua. «Bat ezin da gailendu bestearen gainetik». Horren gaineko irizpide juridikoak jaso ditu, jurisprudentzia, eta, hori oinarri hartuta, adierazi du ezin dela inoiz egin «hizkuntza bakar bat» hitz egiten dutenak «baztertzera».

### Ez da irmoa

Artikulu gehiago baliogabetzeko eskeak ere eginak zituen PPk, baina horiek ez dira aintzat hartu. Epaia ez da irmoa, eta 30 eguneko epea dago helegitea jartzeko. Euskalgintzak «oldarraldi judizial» deitu duenaren soka luzatu du epaiak. Iragan hilabeteetan ebazpen asko eman dira funtzio publikorako ezarritako hizkuntza eskakizunen eta administrazioan euskara lehenestea ekar dezaketen neurrien kontra. Hori salatzeko, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, manifestazioa izango da azaroaren 4an, Bilbon.

---

Aste honetan zabaldutako epaietako batek mugatu egingo du udaletan euskara erabiltzea. Erabakia irmoa ez den heinean, udalerri euskaldunek orain arte bezala jarraituko dute.

# «Ez dugu ezer aldatuko»

**Isabel Jaurena**

Oraingoz, bere horretan. Euskal Autonomia Erkidegoko udal legeak euskararen alorrean garatzen duen dekretuaren hainbat artikulu bertan behera utzi ditu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak, baina helegitea jartzeko tartea dagoenez, euskara teknikariek orain arte bezala lanean segituko dute, udalen hizkuntza politikak mugatzen dituen epai bat baldin badago ere. Atzoko epaiaren berri izan aurretik hitz egin du BERRIAk bi euskara teknikarirekin, epaiak nola eragin dezakeen jakiteko. Maite Etxaniz Zarauzko Udaleko (Gipuzkoa) euskara teknikariak argi du: «Ez dugu ezer aldatuko». Epaia irmoa ez den heinean, momentuz orain arte bezala funtzionatuko dute: euskaraz.

Zarauzko administrazioan eus-




kara da gehien erabiltzen duten hizkuntza, UEMAko gainerako udalerrietan bezala. Hala ere, beren lan hizkuntza euskara izateak eta euskarari lehentasuna emateak ez du erran nahi gainerako hizkuntzetan mintzo diren herritarren arreta kaskarragoa izanen denik. «Errespetatzen ditugu herritarren hizkuntza eskubideak, eta elebitasuna presente dago gure egunerokoan», azaldu du Etxanizek.

Sententzia irmoa balitz, baina, guztia nahitaez ele bitan egin beharko luketela erran du Etxanizek, eta horrek lana bikoizten diela. «Hori ez da euskara normalizatzeko bide bat, euskarak euskara nagusi den guneak behar baititu, eta toki administrazioa da horietako bat», borobildu du. Egungo egoerara iristeko «lan asko» egin behar izan dute, bai arlo politikoan eta baita administrazioko langileek ere –anitzek euskaraz ikasi behar izan baitute bertan lan egiteko–.

> **«Beldurrez gabiltza pentsatuz egindako lan hori guztia botako digun norbait etorriko dela gainetik»**
> **Jabier Zabaleta**
> Orioko Udaleko euskara teknikaria

> **«Euskararen normalizazioa eta guztien hizkuntza eskubideak bermatzea ez daude kontrajarrita»**
> **Maite Etxaniz**
> Zarauzko Udaleko euskara teknikaria

Ongi daki hori Jabier Zabaleta Orioko Udaleko (Gipuzkoa) euskara teknikariak, epaiak «zailtasun gehigarri bat» ezartzen diela baitio. «Euskararen arloan lanean urteak daramatzagunok euskarari lehentasuna emateko hainbat proposamen egiten ditugu. Baina, bat-batean, euskararen normalizaziorako bidea zein den inporta ez zaion epaile batek hartu ditu erabakiak», gehitu du. Egoera hori izatea zerbait «gaizki dagoen seinale» dela dio.

Epaiak dio udaletan euskara lehenesteak «baztertu» egiten duela gaztelania. Zabaletak ez du ulertzen planteamendu hori: «Epaiaren arabera, ez da baliagarria telefonoko erantzungailu automatiko batek euskaraz hitz egitea lehenengo. Baina nola egin daiteke bestela? Bi aukera soilik daude: euskaraz lehenik edo gaztelaniaz lehenik». Ildo horretatik, «garbi dagoena da gaztelaniak *de facto* lehentasuna duen toki pila bat daudela Euskal Herrian, baina euskara lehentasuna den toki administrazioak gutxi batzuk direla». Hala, euskara nagusi den leku bakan horietan euskarari lehentasuna ezin eman izatea «bidezkoa ez den egoera bat betikotzea» dela adierazi du Zabaletak.

**Istiluaren iturria**

Etxanizek dio UEMAko udalerrietan indarrean dagoen hizkuntza politikak ez duela inolako gatazkarik sortzen herritarren artean: «Euskararen normalizazioa eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea ez daude kontrajarrita». Hala, uste du existitzen ez den istilu bat sortzea dela epaiaren helburua.

Hortaz, albistea «kezkaz» hartu dutela dio, hainbertze urtez egindako lana «hankaz gora» jarri izana «oso larria» delako. «Eztabaida eta lan handi baten ondoren sortu ziren udal legea eta hori garatzen duen dekretua, eta administrazioan lan egiten genuenoi aterpe bat ematen zigun», adierazi du. Euskararen kontrako azkeneko epaiak ikusita, argi du euskararen kontrako «oldarraldi bat» dagoela.

Hizkuntza politika horiek bideratzeko erabiltzen dute udalek euskararen erabilera plana, eta bertan zehazten da administrazioak zer irizpide beteko dituen lau urtez. Zabaletak dio ezen, testuinguruа zein den jakinda, planean formulazioak egiteko «direnak eta ez direnak» egiten ibili beharko dutela orain. «Ezingo dugu egin benetan egin nahi genuen bezala; beldurrez gabiltza pentsatuz hori guztia botako digun norbait etorriko dela gainetik», biribildu du.

Esan du Orioko Udalean «hausnarketa sakona» egin dutela gaiari buruz, eta momentuz behintzat euskara erabiltzen jarraituko dutela. «Orain arteko neurriak aplikatzen jarraituko dugu», erran du.

# Eudelek dio udal legearen epaia «toki autonomiaren aurkakoa» dela

**I. Jaurena**

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak EAEko udal legeari buruz egindako epaiak eman du zer erran. Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak, adibidez, atzo adierazi zuen epaia «toki autonomiaren aurkakoa» dela, eta «hizkuntza arloko udal eskumenen garapen osoa mugatzen» duela.

Elkarteko batzorde eragileak atzo Euskadiko Udalen Elkartearen egoitzan egin zuen lehenbiziko bilkuran onartu zuten adierazpena. Hala, elkartearentzat «larria» da «baliogabetzea euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu eta lan hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikuluak».

Legea «ezinbestekoa» da udal euskaldunek euskararekin duten konpromisoa sustatzeko eta leku horietan euskararen erabilera sustatzeko.

**«Asmo politikoak»**

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo adierazi zuen «asmo politikoak» daudela epaia oinarritu den errekurtsoaren atzean. «Gai politiko bat judizializatu dute, eta hortik dator epai oso larri hau. Esango nuke EAEko Auzitegi Nagusia Espainiako Auzitegi Konstituzionala baino urrutiago joan dela».

Izan ere, Vox alderdi ultraeskuindarrak 2020ko urtarrilean aurkeztutako helegitearen ebazpena da epaia. Gogoratu zuen, gainera, alderdi ultraeskuindarrak ez duela Euskal Herrian soilik esku hartu, Balearretan eta Valentzian ere egoera antzekoa baita.

Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak, berriz, Zupiriak errandakoa baieztatu zuen, eta gogoratu udal legea adostasun zabalarekin onartu zela. «Espainiako Gobernuarekin zeuden adostuta hizkuntzari buruzko artikuluak. Hortaz, zer egin aztertzen ari gara, ikusten dugulako inolako arazorik eman ez duen lege bat dela, eta herri guztietan eta guztion hizkuntza eskubideak errespetatzen dituela», borobildu zuen.



**Kanpainaren aurkezpena.** J. URBE / FOKU

# Eskaintza berezi bat Errigoraren 10. urteurrenerako

**HERNANI • Errigorak bere udazkeneko kanpaina aurkeztu zuen atzo, berezitasun batekin. Elkartearen hamargarren urteurrena denez, aurtengo saski eskaintza desberdina izanen da, «hastapenetakoari keinu» eginen baitio. Hala, 50 euroko saski bakarra osatu dute: «Originala, biribila eta biderkatzailea. Sorrerako saskiaren modukoa, eta aldi berean joera berrikoa». Horrez gain, komunitatearen argazki handi bat ere zabaldu dute.**

**Elkartearen komunitatea osatzen duten hamar lagun bildu ziren kanpainaren aurkezpenean, Hernanin (Gipuzkoa). Zehazki, Ikastolen Elkarteko, AEK-ko, Sortzen-eko eta Agerraldia egitasmoko ordezkari bana, Errigorak egiten dituen kanpainetan parte hartzen duten bi boluntario, bi ekoizle, elkarteko presidentea eta kanpainetako saski eskatzaile bat.**

***10 urte bete-bete*** **lelopean aurkeztu zuten kanpaina. «Garenak, izan garenak eta izan nahi dugun guztiak batu nahi ditugu, hamarkada baten ostean, fase berri bati elkarrekin eta indarberrituta ekiteko. Inoizko beteena izango da», adierazi zuen Natxi Aranburu Errigorako presidenteak. Eskariak azaroaren 9a arte egin daitezke.**

# Puntueusek eskatu du sarean hizkuntza guztiak agertzeko

**ESTRASBURGO •** Googleren bilaketa zerbitzuek euskara gaztelaren mesedetan diskriminatzen dutela azaldu zuen atzo Puntueus fundazioak Estrasburgon. Horrek hizkuntzen normalizazioa oztopatzen duela erran zuen, eta sarean hizkuntza guztien «presentzia bermatzeko» eskatu.

BERRIA
Ostirala, 2023ko urriaren 20a




**Hirugarren Euskaraldiari buruzko ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten atzo, Bilboko Euskalduna Jauregian.** BERRIA

# Euskaraldiko parte hartzaileen bi herenek erabilera areagotu dute

Hirugarren Euskaraldiari buruzko ikerketaren emaitzak aurkeztu dituzte • Aurreko aldiarekin alderatuta, norbanakoen parte hartzea jaitsi egin da; entitateena, berriz, areagotu

**Olatz Silva Rodrigo** *Bilbo*

Euskaraldia eraginkorra dela berretsi dute hirugarren aldiari buruzko ikerketaren emaitzek. Izan ere, parte hartzaileen bi herenek —batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago— hizkuntza ohiturak aldatu dituzte. «Hiru aldietan joera bat errepikatu da: bi aste horietan zehar euskararen erabilerak gora egin du, eta ondoren, behera egin du, baina jaitsiera hori ez da igoeraren parekoa izan; beti geratzen da zerbait», azaldu zuen atzo Unai Oiartzun Siadeco ikerketa elkarteko teknikariak. Siadecok egin du ikerketa, eta atzo aurkeztu zituzten emaitzak, Bilboko Euskalduna jauregian.

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egin zuten azken Euskaraldia. «Ariketa sozial berritzailea da; arnasa luzeko programa», azaldu du Goiatz Urkijo Euskaraldiko koordinatzaileak eta Euskaltzaleen Topaguneko kideak. Horregatik, ikerketa egiteko orduan, kontuan hartu dituzte ariketaren aurretik, bitartean eta ondoren norbanakoen zein entitateen jarrerak. Aurreko aldiarekin alderatuta, parte hartzaileek %11 egin zuten behera azkenekoan; 158.440 lagunek eman zuten izena. *Ahobizi* izan ziren %77,6, eta %22,4 *belarriprest*.

Gazteen izen emateak egin zuen bereziki behera. 16-29 urte bitartekoen artean, %25,5eko jaitsiera izan zen; eta 30-44 urtekoen artean, %15,2koa. Halaber, nabarmentzekoa da gizonen parte hartzea: %15,2 jaitsi zen haien izen ematea. Datu erlatiboetan, emakumeen jaitsiera halako bi da hori; emakumeen parte hartzeak %8,5 egin zuelako behera. «Sexua aintzat hartuta, lehendik zegoen aldea areagotu da», ohartarazi du Oiartzunek. Eta zehaztu du azken aldian parte hartu zutenen %64 emakumeak izan zirela.

Parte hartzaile kopuruak behera egin arren, antolatzaileek ariketaren eraginean jarri dute fokua. «Tresna egokia da euskararen erabilera sustatzeko, hizkuntza ohituretan aldaketak eragiten dituelako; beraz, hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera da etorkizunera begira», nabarmendu du Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak. Eta Javier Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak ere ariketaren eragina izan du hizpide: «Euskararen erabilera handitzeko helburua izan dute aritu direnek, eta datuek erakutsi dute ariketak helburu horretan funtzionatzen duela».

> **Euskaraldiak aldaketa baten beharra duela adierazi dute hainbatek, ez diolako eutsi hasierako indarrari»**
>
> **Goiatz Urkijo**
> Euskaraldiko koordinatzailea

## Errepikatzeko prest

Oiartzunen arabera, norbanakoen hiru laurdenek hurrengo batean parte hartuko lukete, «zalantzarik gabe». Are, entitateen %76,3k iritzi bera dute. Izan ere, azkenekoan, entitate kopuruak %3,5 egin zuen gora: 8.610ek eman zuten izena. Nagusiki merkataritzako edo zerbitzu profesionaletako establezimendu txikiak izan ziren; ariketaren aurretik «nahiko euskaldunak» ziren entitateak: «Langileen %77 gai ziren euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko».

Norbanakoetan bezala, entitateetan joera bera da: «Harreman mota guztietan euskararen erabilerak gora egin du ariketan, eta gero jaitsi egin da, baina ez hainbeste». Hain zuzen, herritarrekiko, bezeroekiko eta bazkideekiko harremanetan mantendu dute aldaketa, baita ariguneetan parte hartu duten kideen arteko harreman informaletan ere. Etorkizunean, hiru entitatetik batek lortutako eragina mantendu nahiko lukete. Horretarako, neurriak hartuko dituzte.

Emaitzak ikusita, Urkijok esan du laugarren aldi bat egongo dela: «Parte hartzaileek ilusioa dute hurrengoetan parte hartzeko. Baina Euskaraldiak aldaketa baten beharra duela adierazi dute hainbatek, ez diolako eutsi hasierako indarrari. Gogoeta prozesu sakon batean murgildu gara, eta azaroaren 4an mintegia egingo dugu Euskalduna jauregian: Euskaraldiaren herri batzordeekin, erakunde publikoekin eta euskalgintzako eragileekin bilduko gara, laugarren aldia elkarrekin irudikatzeko».

## %11

**NORBANAKOEN APALTZEA**

Euskaraldiko parte hartzaileen kopurua %11 jaitsi zen bigarrenetik hirugarrenera. 158.440 lagunek eman zuten izena: *Ahobizi* izan ziren %77,6 eta %22,4 *belarriprest*. Lehenengotik bigarrenera, jaitsiera nabarmenagoa izan zen. Pandemiaren eraginez, izen emateek %20 egin zuten behera.

## %25

**GAZTEEN BEHERAKADA**

Adin tarteei dagokienez, gazteen izen emateak egin du bereziki behera. 16-29 urte bitartekoen artean, %25,2ko jaitsiera izan zen. Era berean, 30-44 urtekoen artean, %15,2 jaitsi zen izen ematea. Izan ere, 2020an baino izen emate handiagoa adin tarte bakarrak izan zuen: 60 urtetik gorakoen taldeak (%4,5).

## 8.610

**ENTITATEEN IZEN EMATEA**

Bigarrenetik hirugarrenera, entitateen parte hartzea %3,5 areagotu zen. Azken aldian 8.610ek eman zuten izena. Nagusiki merkataritzako edo zerbitzu profesionaleko establezimendu txikiak izan ziren, eta «nahiko euskaldunak».

# Prozesuan aurrera, adostasunean atzera

Atzera bota dituzte EAEko Hezkuntza Legearen osoko zuzenketak; hortaz, partzialak eztabaidatzera igaroko dira • PSE-EEk ziurtatu du beren zuzenketak bermatzen duela gazteleraz ikasi ahal izatea



**Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, atzo goizean, Eusko Legebiltzarrean.** ENDIKA PORTILLO / FOKU

**Irati Urdalleta Lete** *Gasteiz*

Espero zena gertatu zen atzoko Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran: gehiengoak ezezkoa eman zien Elkarrekin-Podemos-IUk, PPk, Ciudadanosek eta Voxek Hezkuntza Legeari jarritako osoko zuzenketei. Beraz, lege proiektua ez da berriro Eusko Jaurlaritzara itzuliko, eta zuzenketa partzialak eztabaidatzeari ekingo diote. Alabaina, eztabaidaren tonua igo egin zen, agertu ziren pitzadurak, eta prozesuak aurrera jarraituko badu ere, ikusteko dago zer gertatuko den azkenean, EH Bilduk legearen alde edo kontra bozkatuko ote duen. Ikoitz Arrese legebiltzarkidea irmo mintzatu zen: «Ez dugu babestuko euskal hezkuntzaren erronkei erantzuten ez dien legerik, ezta gobernu koalizioan EAJren PSEren barne oreka alderdikoiei erantzuten dien legerik ere». Orain, zuzenketa partzialak eztabaidatzeko garaia izango da. Hauxe, laburbilduz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta alderdi bakoitzaren jarrera.

### HEZKUNTZA SAILA

Hitza hartzen lehena izan da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratz. Lege proiektua defendatzeko baliatu du saioa. Haren esanetan, testu «sendoa» da, «hezkuntza eta gizarte eragileen ekarpenak biltzen dituena», eta, gainera, iazko apirilean Eusko Legebiltzarreko lau alderdi nagusiek izenpetutako akordioa oinarri duena.

Eduki jakin batzuei heldu die. Hizpide izan du hizkuntzen irakaskuntzaren gaia, zeinak harrabotsa eragin baitu azkenaldian. Aitortu du «eztabaida handia» dagoela, baina «bidetik eta helburuetatik» ez desbideratzea galdegin du. Bide berri bat urratzeko modua eskaintzen duela uste du: «Lege honek oinarri sendoak eskaintzen dizkigu hizkuntzen kudeaketarako eta ezarpenerako marko berri baterako».

Azaldu duenez, ikastetxe bakoitzak diseinatuko du bere bidea, ikasleek ezarritako helburuak bete ditzaten eskolatzea amaitzerako: «Ikastetxeen hizkuntza proiektua erdigunera ekarriz, hezkuntza esparru eleaniztun propioa garatzeko konpromisoa ikastetxeen eskuetan jartzen dugu. Euskara ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialen eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten gainean egituratuko da sistema. Era berean, euskara testuinguru formaletan eta ez-formaletan erabiltzea bultzatuko du». Ereduak ere izan ditu aipagai: «Azken 40 urteetan, gure gizartea asko aldatu da, hezkuntza aldatu egin da, ereduak aldatu egin dira, eta gure eredua errealitate berrira egokitzen jarraitzea dagokigu aurrerantzean ere».

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, nabarmendu du legea onartuta hezkuntza sistema osoa egongo dela araututa lehenengo aldiz, «betiere, eskola publikoaren protagonismoa azpimarratuz». Halaber, azaldu du itunpeko ikastetxeak ere funts publikoz hornituko dituztela, «legeak ezartzen dituen konpromisoak eta betebeharrak betetzen dituzten heinean».

### EAJ

EAJko legebiltzarkide Gorka Alvarezen esanetan, lege proiektuaren lehen helburua da ikasleei «ahalik eta hezkuntza onena» eskaintzea. Eta zer da hori? Alvarezen hitzetan, kalitatezko hezkuntza, integratzailea, aukera berdintasuna eskaintzen duena, euskalduna eta irmoki berrikuntzaren alde egiten duena. Bildarratzek egin bezala, goraipatu egin du hezkuntza sistema osoa arautuko duela. Eta heldu dio hizkuntzen gaiari ere. Esan duenez, lege proiektuan jasota dago euskararen inguruan egituratua dagoela eta sistema eleaniztuna dela, eta bermatzen duela ikasleek euskaraz nahiz gazteleraz «maila egokia» erdiestea. Gainera, aipatu du erremintak eskaintzen dituela horretarako.

### EH BILDU

Oposizioko alderdi nagusiak ere azaldu du bere jarrera. Ezezkoa bozkatu dute, Ikoitz Arreseren esanetan, «lege on bat lortzeko eztabaidari» bide eman nahi diotelako: «EH Bildukook beste aukera bat eman nahi diogu lege on bat izateari eta gure hezkuntza sistemaren eraldaketari». Alabaina, nabarmendu du hori ez dutela «edozein modutan» egingo: «Ez dugu babestuko euskal hezkuntzaren erronkei erantzuten ez dien lege bat, ezta gobernu koalizioan EAJren eta PSEren barne oreka alderdikoiei erantzuten dien lege bat ere». Halaber, beste kezka bat ere helarazi du: «Kezka dugu PSEk EH Bildu legetik kanpo nahi duelako eta EAJ prest dagoelako eskatzen ari zaiona emateko». Gainera, EAJri eta PSE-EEri egotzi die oraindik ez dutela hizkuntza ereduak agertzen diren zuzenketari buruzko azalpen bateraturik eman.

### PSE-EE

PSE-EEko legebiltzarkide Maria Jesus San Jose atera da atrilera. Esan du «oso gustura» daudela EAJrekin egindako negoziazioarekin, «ezinbesteko aldaketak» sartu baitituzte zuzenketetan. Hizkuntzei dagokienez, argi esan du sistema hirueleduna izango dela, eta euskara izango duela ardatz, baina euskara, gaztelera eta ingelesa izango direla irakaskuntzarako hizkuntza, «gizarte kohesioa eta herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izatea bermatzeko». Azkenaldiko eztabaidaren funtsera jota, ziurtatu du zuzenketekin argitu dutela hizkuntza ereduak indarrean daudela, eta, horiek aldatzea erabakiz gero, Gernikako Estatutua eta Euskararen Legea errespetatu beharko direla, eta hor jasota dagoela herritarrek eskubidea dutela hezkuntza edozein mailatan euskaraz nahiz gazteleraz jasotzeko. Eta erantsi du: «Euskal sozialistentzat benetan garrantzitsua da gure ikasleek euskaraz eta gazteleraz ikasi ahal izatea bermatzea, eta hirugarren hizkuntza batean gaitasunak izatea».

### ELKARREKIN PODEMOS-IU

Beren osoko zuzenketa aurkezteko aukera izan du Elkarrekin Podemos-IUko legebiltzarkide Isabel Gonzalezek. Batez ere, sare publikoaren defentsa egin du. Esan duenez, beraientzat hezkuntza publikoa da oinarrizkoa; aldiz, lege proiektuak berdindu egiten ditu eskola publikoa eta itunpekoa.

Osoko zuzenketak aurkeztu dituzten gainerako alderdiei dagokienez, PPk, Ciudadanosek eta Voxek antzeko arrazoiak erabili dituzte beren proposamenak defendatzeko eta lege proiektuari kontra egiteko: euskara inposatuko dutela eta gazteleraz ikasteko aukerarik ez dela egongo, proiektu jakin batzuen mesedetan erabili nahi dutela hezkuntza, itunpeko sarearen aurkakoa dela...

Eta zer gertatuko da gaurtik aurrera? Lantalde bat sortuko dute zuzenketa partzialak eztabaidatzeko. Sailburuaren esanetan, zuzenketak «kontrastatzeko, adosteko eta onartzeko» garaia da, eta legebiltzarkideei dagokie hori. Nabarmendu du «lehenetsi» egin behar dela legea «ahalik eta adostasun zabalenarekin onartzea». Gainera, Bildarratzek hitzaldia baliatu du Eusko Legebiltzarreko «zenbait alderdiri» eskerrak emateko, «azkeneko bi urteetako elkarlanaren alde egin dutelako». Ikusten du «kolaboratzen eta eraikitzen jarraitzeko aukera».



Arabako Erriberabeitia herriko eguzki parkea. ENDIKA PORTILLO/ FOKU

# Lantaronen 35.500 eguzki plaka jartzeari oniritzia eman dio Jaurlaritzak

Lau eguzki parke eraikiko ditu FV Comunion enpresak • Ingurumen txostenaren arabera, proiektuak kalte «txikiak» eraginen ditu

**Edurne Begiristain - Ion Orzaiz**

Siliziozko alfonbra bat, Arabako mendebaldeko landa eremuan. Lantaronen (Araba) eraiki nahi duten eguzki energiako proiektuko parke fotovoltaikoari oniritzia eman zion atzo Eusko Jaurlaritzak. Guztira, 35.500 eguzki plaka edukiko ditu FV Comunion enpresak Komunioi auzoan egin nahi duen proiektuak. Proiektuak lau parke ditu: horietatik txikienak ia 4.400 eguzki plaka edukiko ditu, eta gainerako hirurek, 10.400na panel. Hiru parke handi horietako bakoitzak 4,995 megawatteko potentzia instalatua izango du, eta besteek, 2,1 megawattekoa.

Eusko Jaurlaritzak ekainean eta uztailean eman zituen aldeko txostenak, ingurumen inpaktuaren ingurukoak. Jaurlaritzak igorritako txostenaren arabera, instalazio horrek kalte «txikiak» eragingo ditu ingurumenean. Halere, enpresak zenbait zuzenketa egin behar izan zituen inpaktua apaltzeko.

EAEko aldizkari ofizialean atzo argitaratutakoaren arabera, lau eguzki parke horiek martxan jartzeko epea bi urtekoa izango da. Jaurlaritzak ohartarazi du epe hori igaro eta instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu ez bada iraungitzat joko dela eraikitzeko baimena. Hilabeteko epea dago ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkezteko.

**Panelen «kolonizazioa»**

Eguzki parkeen auziak hautsak harrotu ditu Araban azkenaldian. Hilabete honen hasieran, esate baterako, Arratzua-Ubarrundia udalerriko 1.100 hektareatan bi makrozentral fotovoltaiko ezartzeko planaren aurka azaldu zen UAGA Arabako Nekazarien Elkartea.

Duranan, Zurbaon, Arroiaben, Uribarri Ganboan, Arzubiagan eta Uribarri Arratzuan jarri nahi dituzte eguzki energiarako zentralak. Horregatik, «kolonizazio mehatxua» salatu zuten UAGAko kideek, nekazaritzarako lurrak «okupatu» nahi dituztela argudiatuta.

Nekazariek azaldu zuten erakunde nagusiek herri txikiak «abandonatuta» utzi dituztela zentralak eraiki nahi dituzten enpresen aurrean, konpainia horiek «tresna mugagabeak» dituztelako, eta nahierara erabiltzen dituztelako bere helburua lortzeko. UAGAk iragarri du alegazio teknikoak eginen dizkiola proiektuari.

## EHUk 246 irakasle eta ikertzaile postu eskainiko ditu

**GASTEIZ •** EHUk zehaztu egin du uztailean onartutako lan eskaintza publikoan zer postu eskainiko diren: 34 katedra, irakasle osoen 24 postu eta irakasle titularren eta agregatuen 188 postu. Bestalde, LAB, Steilas, CCOO eta ELA sindikatuek urriaren 11ko grebaren balorazioa egin zuten atzo: «Erabateko arrakasta» izan zela esan zuten, jarduera akademikoa geldiaraztea lortu zutelako. Halaber, iragarri dute EHUko sindikatuek bat eginen dutela urriaren 25eko greba deialdiarekin ere.



Haur eskolen protesta. IÑIGO URIZ / FOKU

## 0-3 zikloko eskolek bilera eskatu diote Hezkuntza Sailari

**IRUÑEA •** Nafarroako 55 haur eskola publikotako zuzendariek agerraldia egin zuten atzo Hezkuntza Departamentuaren aurrean. Bilera eskatu diote gobernuari, uste baitute ez dela betetzen ari 2022an sinatutako hitzarmena, ratioei dagokionez, besteak beste.



# Bizitza ardatz gisa hartuta

Hernani Burujabe proiektua plazaratu dute, tokiko bestelako gobernantza baten eredu gisa

**Xabier Martin** *Hernani*

Herritarrek bizitzan beharrezkoak dituzten arlo nagusietan «burujabetzara» jauzi egitea da Hernaniko Udalak eta herriko gizarte talde eta sektore ekonomiko batzuek bultzatu duten proiektua: Hernani Burujabe. Hernaniko zinegotzi Itsaso Lekuonak plazaratu zuen atzo, Burujabetzak jardunaldien barruan. «Pandemiaren gordinetik» gaur arte egin duen ibilbidea azaldu zuen. Larunbatera bitarte, udalgintzaz, herrigintzaz eta bizitza erdian jarrita eraiki nahi diren gobernantza eredu berriez ariko dira hainbat eragile Hernaniko (Gipuzkoa) topaketetan.




**Itsaso Lekuona, atzo, Burujabetzak jardunaldietan, Udalbiltzako lehendakari Haritz Alberdirekin.** JON URBE / FOKU

Lekuonak azaldu zuen pandemian inoiz baino argiago azaleratu zela «bizitzarako ezinbestekoak diren sektoreak burujabe izateko beharra», eta Hernaniko Udalak bultzaturik hausnarketa horretan hasi zela talde txiki bat. Emaitza zehatzak eman dituen herri proiektu bat da gaur egun; tokikotik abiatuta zenbait sektoretan burujabetzara salto egitea du helburu, «azpitik gora». Horretarako, hiru subjektu behar dira: udala, herriko talde sozialak eta ehun ekonomikoaren sektore estrategiko batzuk.

«Bertakotasunean eta tokiko eragileen saretzean oinarrituta, berezko erabakiak eta gobernantza ezartzeko» modua eman asmo du proiektu horrek. Udalen «desboteretzeaz» aritu zen Lekuona, herritarrei «eskumen transferentziak» egiteko. Betiere helburu batekin: «Pertsonen ongizatea». Herritarren bizi baldintza duinak bermatzea du xede proiektuak, «bizitza erdigunean jarrita». Horretarako, «ezinbestekotzat» jo zuen energian, elikaduran eta zaintzan subiranotasun handia lortzea. «Korrontearen aurka goaz, ez da erraza, baina aurrera goaz», esan zuen zinegotziak.

## Bidegurutzean, zirt edo zart

Proiektu horren ondorio praktikoak badira jadanik; adibidez, elikadura kooperatiba bat, eta han sortzen diren produktuak saltzeko denda-azoka bat. Lekuonak nabarmendu zuen herritarrek erakundeak «gero eta urrunago» sentitzen dituzten garai hauetan «beste norabide batean» joatea proposatzen duela Hernani Burujabek, «herritarrekin batera». Izan ere, «kapitalismoak bizitza bidegurutze batera» eraman duela uste du Lekuonak, eta «zirt edo zart» egin behar dela. Bizitza ardatz duen gobernantza baten aldekoa da, finean, Hernaniko proiektu hori, Euskal Herrian abian diren beste burujabetza proiektu batzuen moduan.

Udalbiltzako lehendakari eta Getariako alkate Haritz Alberdik esan zuen Hernanin garatutako proiektua «eredugarria» dela: «Inbidia sanoa ematen du». Uste du Hernani eta Usurbil «erreferentzia» direla beste gobernantza ereduak martxan jartzeko Euskal Herri osoan, eta azaldu zuen Getarian, esaterako, badela martxan energiarekin lotutako proiektu bat aspaldian, ildo berean garatua.

Alberdik zenbait aste baino ez daramatza Udalbiltzako lehendakaritzan; «lur hartu berria» dela argitu zuen, eta Udalbiltzak dituen erronkak azaltzeari ekin zion, Euskal Herriko udalak eta hautetsiak batzen dituen erakunde publikoaren iragana azaldu ondoren. Euskal Herri osoa hartzen duen lehen erakunde publiko nazionala da Udalbiltza. 1999ko irailaren 18an sortu zen, Euskalduna jauregian (Bilbo), zazpi euskal lurraldeetako ia 2.000 udal hautetsi bilduta.

Ordutik 24 urte joan dira, eta bidean denetarik izan da, baita «ezerezean geratu zen» prozesu judizial bat ere, «espetxeratzeak» eragin zituena, hori bai. Batera edo bestera, Udalbiltza orainari eta batez ere geroari begira jarrita dago. Batzorde eragile berria dauka, eta lehendakariak azaldu du zazpi kidez osatua dagoela. Kide horiek alor jakinekin dute lotura: elikadurarekin, energiarekin, zaintzarekin.... «Udaletatik nazio osora» jauzi egin nahi duten gobernantza berriek aurrera egitea da helburu nagusietako bat.

## Lau eguzki parke eraikitzeko oniritzia eman dute

**GASTEIZ** • Lantaronen (Araba) eraiki nahi duten eguzki energiako proiektuko parke fotovoltaikoari oniritzia eman dio Eusko Jaurlaritzak. FV Comunion enpresak Komunioi auzoan egin nahi duen proiektuak 35.500 eguzki plaka edukiko ditu guztira. Lau parke dira:txikienak ia 4.400 eguzki plaka edukiko ditu, eta gainerako hirurek, 10.400na panel. Hiru parke handi horietako bakoitzak 4,995 megawatteko potentzia instalatua izango du, eta besteak, 2,1 megawattekoa. Jaurlaritzak igorritako txostenaren arabera, instalazio horrek kalte «txikiak» eragingo ditu ingurumenean. Halere, enpresak zenbait zuzenketa egin behar izan ditu inpaktua apaltzeko.

## Errauskailuari lotutako ikerketa bat artxibatu dute

**DONOSTIA** • GuraSOS elkarteak jakinarazi duenez, Donostiako 4. Instrukzio Epaitegiak artxibatu egin du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Kutsaduraren Kontrolerako eta Prebentziorako Zerbitzuko buruaren aurka martxan zen ikerketa. Ingurumen baimenak emateaz arduratzen da, eta Zubietako erraustegiarekin (Gipuzkoa) lotuta ikertu dute haren jarduna. GuraSOSen arabera, gasak garbitzeko sisteman zegoen «purga klandestino» bat ez zuen jaso kontrol txostenetan eta ingurumen baimenean.



ZAINKETEI BURUZKO KONGRESUA

— ZAINKETEN ALDEKO EUSKAL ITUNA ERAIKITZEN

— DONOSTIA TABAKALERA azaroak 15/16

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS

# Bizkaiko eskauten abade ohia zigortu dute, bi neskari ukituak egiteagatik

Burgosko Probintzia Auzitegiak bi kondena jarri dizkio • Bilboko Elizbarrutiak gogoratu du fiskaltzara berak jo zuela aurrena

**Arantxa Iraola**



**Biktimei barkamena eskatzeko egindako meza, Bilbon.** BILBOKO GOTZAINDEGIA / EFE

Ohar bat plazaratu zuen atzo Bilboko Elizbarrutiak Bizkaiko eskauten abade izan zenaren inguruan. 2018an jakin zen lau sexu delitu egotzi zizkiola fiskaltzak, eta ikerketapean zegoela horregatik. Atzo, hedabideen bidez zabaldu zen zigor bi ezarri dizkiola apaizari Burgosko Probintzia Auzitegiak, bi neskak jarritako salaketen harira, eta, argudiatuta zenbait datu ez direla zuzenak izan, «zehaztapenak» egin nahi izan ditu Bizkaiko Elizbarrutiak agiriaren bidez. Adierazi du honako kondena hauek ezarri dizkiola justiziak apaizari: hamalau hilabeteko espetxe zigorra jarri diote emakume adingabe bati ukituak egiteagatik, eta hemezortzi hilabetekoa 18 urteko beste bati ere ukituak egiteagatik.

Eskauten jardueretan parte hartzen ari ziren bi emakumeek erasoak pairatu zituztenean: eskauta zen gazteena, eta begiralea zaharrena. Harreman joria zuten abadearekin ingurumari horretan, eta gertuko giro hori baliatu zuen apaizak ukituak-eta egiteko.

Kalte ordainak ere eman beharko dizkie zigortutako abadeak emakume biei, eta akusatuak ezarritako kopurua ordaintzen ez badu, Bilboko Elizbarrutiaren ardura izango da ordainketak egitea, sententziaren arabera «erantzule zibil subsidiarioa» delako. Uztailekoa da sententzia, baina orain zabaldu da hedabideetan. Elizbarrutiak esan du akusatuak ez duela helegiterik jarri haren aurka.

**«Elkartasuna»**

Gainera, gogora ekarri du abadea bere karguetatik kendua dutela 2018ko abendutik. Eta Elizbarrutiak berak jo zuela fiskaltzarengana apaizaren portaera okerren berri izan zuenean, Euskalerriko Eskautak Bizkaia elkartearekin batera: «Biktimen aurretik». Oharrarekin batera, Elizbarrutiak «elkartasuna» adierazi nahi izan die sexu erasoak pairatu dituztenei, eta adierazi du salaketen ikerketan eta biktimen artan urratsak egiten jarraitzeko asmoa duela.

Abade honen kasuaren berri eman zenean, Mario Izeta zen Bilboko gotzaina. Joseba Segura dago orain karguan. Aitzindaria izan da Segura Eliza barruan egindako sexu abusuen kontrako zenbait keinutan: aurtengo martxoan, adibidez, elizkizun bat egin zuen propio biktimei barkamena eskatzeko eta babesa ere erakusteko.

## Bi sexu eraso salatu dituzte Getxon, eta elkarretaratzeak egingo dituzte gaur

**GETXO •** Bi sexu eraso salatu zituzten joan den astean Getxon (Bizkaia), hilaren 12an eta 14an. Getxoko Udaleko bozeramaileen batzarrak biak gaitzetsi zituen atzo, adierazpen instituzional baten bidez. Gainera, erran zuten gaur bi elkarretaratze eginen dituztela: instituzionala eguerdian, eta herritarrena arratsaldean. Ertzaintzak erran du larunbatean sexu indarkeriagatik salaketa jarri zutela Udaltzaingoan.

## Jaurlaritzako zerbitzuburu baten aurka abiatutako ikerketa artxibatu dute

**DONOSTIA •** GuraSOS elkarteak jakinarazi duenez, Donostiako 4. Instrukzio Epaitegiak artxibatu egin du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Kutsaduraren Kontrolerako eta Prebentziorako Zerbitzuko buruaren aurka martxan zen ikerketa. Ingurumen baimenak emateaz arduratzen da, eta Zubietako errauste plantarekin (Gipuzkoa) lotuta ikertu dute haren jarduna.

## Iazko urrian Iruñean atxilotutako hiru lagunek deklaratu dute epaitegian

**IRUÑEA •** Iazko urriaren 12an, Aske antolakundeak manifestazioa egin zuen Iruñean, eta liskar batzuk izan ziren Voxeko kide bat hara agertu zenean. Ondorioz, Espainiako Poliziak hiru lagun atxilotu zituen, «gorroto delitua» leporatuta. Askek jakinarazi duenez, joan den astelehenean deklaratu zuten epaitegian. Voxeko kideak urtarrilean deklaratuko du, eta orduan erabakiko du epaileak zer egin auziarekin.

## Zornotzako adingabeen zentro batean sei nerabek beste bat jipoitu dute

**ZORNOTZA •** Zornotzako (Bizkaia) adingabeen zentro batean sei egoiliar gaztek beste bat jipoitu zuten asteartean, Bizkaiko Foru Aldundiak atzo adierazi zuenez. Erasoa jasan zuen adingabea ospitaleratu behar izan zuten, baina ez dago «larri», aldundiaren arabera. Ertzaintzak atxilotu egin zituen sei erasotzaileak, baina gertakarien berri adingabeek fiskaltzari eman ostean, aldundiaren tutoretzapean daude berriz.

## Gizon bat atxilo, Baionako gaztearen hiltzailea motorrean eraman zuelakoan

**BAIONA •** Gizon gazte bat tiroz hil zuten Baionan larunbat arratsaldean, Sainte-Croix auzoan. Polizia ustezko hiltzailearen bila dabil, baina atxilotu dute hura motorrean ustez eraman zuena. Gidariak 20 urte ditu, eta asteartean atxilotu zuten; atzo jarri zuten Baionako Auzitegiaren esku. Hilketa larunbat arratsaldean gertatu zen: karrikan zegoelarik, sei aldiz tiro egin zioten. Gazteak 27 urte zituen.

# Hilberriak

Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak

# Siemens Gamesari buruzko kezka azaldu dute CCOOk eta UGTk

## Siemens Energyk bere adar eolikoaren bideragarritasun plana aurkeztu behar du azaroaren 21ean, eta sindikatuak beldur dira fabrikak eta bulegoak itxiko ote dituen galera handiei aurre egiteko

**Joxerra Senar** *Iruñea*

Lehenik ELAk egin zuen ohartarazpena, eta, orain, CCOOk eta UGTk gauza bera egin dute, nork bere aldetik. Azaroaren 21ean, etorkizunerako bideragarritasun plana aurkeztuko du Siemens Gamesak, eta orain mahai gainean diren jokalekuen inguruko kezka handia dute sindikatuek, galera handiak pilatzen ari baita konpainia. «Ez dugu gertaerarik aurreratu nahi, baina okerrenean jarri behar dugu», adierazi du Clara Fernandezek, CCOOren Siemens Gamesako idazkari nagusiak.

Irailaren 21ean, Siemens Energy taldeko presidente Christian Bruchekin elkartu ziren CCOOko eta UGTko ordezkariak. UGTren arabera, Bruchek aurreratu zuen 4.500 milioi euro ingururen galerak zituela taldeak, eta neurri handi batean Siemens Gamesaren gain jarri zen erantzukizuna. Halaber, bilera horretan onartu zen Siemens Gamesak uko egin ziola mila milioi eurorainoko lanari.

Iragan astelehenean biltzekoak ziren berriz, baina bertan behera geratu zen bilera. UGTko Mikel Tapiaren ustez, «oso sentsazio txarrak» eragiten dizkie horrek: «Ematen du moldaketa bat prestatzen ari direla, eta ez nuke baztertuko bulegoetan, fabriketan




**Siemens Gamesaren ikerketa taldearen bulegoak, Sarrigurenen.** JAGOBA MANTEROLA / FOKU

edo parke eolikoen mantentzean lan zama kentzea». CCOOk ere bilera hori kendu izana aurpegiratu dio enpresari, baina ez du zertan seinale txarra izan. «Atzetik presio politikoa dutela adieraz dezake».

### EBren neurriak

Datorren asteartean, Europako Batzordeak industria eolikoarentzako laguntza sorta bat aurkeztuko du. Oraintxe, hiru ekoizlerik handienek galerak dituzte, sektoreko lehia teknologikoaren eta Asiako enpresen lehia desleialaren ondorioz. «Espero dugu laguntza paketeaz gain lan eredua aldatzea, sektoreko enpresek bertan ekoitzi ahal izatea erraztu dezaten», aipatu du Fernandezek. Haren esanetan, lurreko haize erroten enkanteetan, Europako araudiek ez dituzte behar bezala laguntzen, eta prezio merkeagoko lehiakide txinatarrek abantaila izan ohi dute. Alor horretan esku hartzea galdegin diote Bruselari: «Ekoizle guztientzako joko arau berak nahi ditugu».

Bruselatik etor daitekeen hauspo horren berri izan ostean, ia hilabete geratuko da. Azaroaren 15ean emaitzak aurkeztuko ditu Siemens Energyk, eta astebete geroago, azaroaren 21ean, Capital Market Day eguna izango da; kapital merkatuei etorkizuneko planak aurkezteko eguna. CCOOren arabera, egun horri begira hainbat jokaleku daude: onenean, bolada batez galerak izaten jarraitzeko asmoa izango du; okerrenean, lurreko haize errotak egiten diren fabrikak ixteko asmoa iragarriko du –*onshore* negozioa.

Hego Euskal Herrian, Siemens Gamesak 2.800 lagun inguruari ematen die lana, eta, kontuan izanik gehienbat lurreko haize erroten produkzioan eta diseinuan aritzen direla, baliteke kolpe latza hartzea. Goizegi da ezer baieztatzeko, baina seinale txarrak daude. Iragan astean, Reuters agentziak aurreratu zuen Siemens Energy Siemens Gamesaren fabrikak eta bulegoak ixtea aztertzen ari zela.

### Mobilizazioak

Azaroaren 21eko egun erabakigarriari begira, zenbait gauza egin daitezkeela uste dute sindikatuek. «Ezin gara besoak gurutzatuta geratu», esan du Fernandezek. Alde batetik, dei egin diete datozen egunetan egingo dituzten batzarretan eta ondoren antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera.

Siemensek Gamesa erosi zuenetik, ezegonkortasun handia du enpresak, eta horrek denak langileei eurei ere eragiten die. «Azken bi urteetan presio handiarekin ari gara lanean, eta ziurtasunik gabeko etorkizuna dugu; ez dakigu zer gertatuko den», aitortu du Fernandezek.

## Ekonomista euskaldunen batzarra 27an

**GASTEIZ •** Lehen aldiz, egun osoko egitaraua izango du aurten Ekonomialari Euskaldunen Biltzarrak. Gasteizen egingo dute, gaur zortzi, eta, aurreko bi batzarretan ez bezala, oraingoan gai bakar bat jorratuko dute: oinarrizko burujabetza ekonomikoa. Azaldu dutenez, pandemiak, Ukrainako gerrak eta klima aldaketak eraman ditu gai hori hautatzera.

## CAFi ardurak eskatu dizkio langile batzordeak

**BEASAIN • Abuztuaren 24an, CAFeko prebentzio ordezkariek enpresari ohartarazi zioten 7., 8. eta 9. nabeetako langileek ezin zutela lanik egin, nabe horiek amiantoz «zikinduta» zeudelako teilatua aldatzeko lanen ondorioz. Enpresak, ordea, astebetez pabiloi horietan lan egitera behartu zituen hirurehun langile inguru, enpresa batzordeak atzo salatu zuenez. Abuztuaren 31n itxi zituen, eta astelehen honetan zabaldu ditu.**

**Batzordeak uste du enpresako zuzendaritzak «nahi eta nahi ez» erantzukizunen bat hartu behar duela, «argi eta garbi ekoizpena langileen osasunaren aurretik» jarri duelako. 2002. urtetik, debekatua dago amiantoa lantegietan, eta administrazioaren protokoloek «huts» egin dutela gehitu dute, ingurumen azterketa egitea ez delako «nahikoa» ikusteko amiantorik dagoen ala ez.**




**CAFeko langileak, atzo.** I. ZABALETA / FOKU

## Mecanerren hirugarren greba eguna egin dute

**BILBO •** Mecaner enpresak Urdulizko lantegia itxi eta 148 langile kaleratu nahi ditu. Egoera salatzeko, langileek hirugarren greba eguna egin zuten atzo. Enpresaren «utzikeria eta zitalkeria» ikusita, langileek iragarri dute kanpoko adituekin batera bideragarritasun plan bat egin nahi dutela. Uste dutenez, enpresa bideragarria da, azken urtean 606.000 euro irabazi ditu eta.

# Udazken beroa sektore publikoan

Asteazkenean, sindikatuek deitutako bi greba egunetatik lehena izango dute langile publikoek ● Aurrekontuen negoziazioetan eragin nahi dute, lan baldintzak hobetzeko


Zerbitzu publikoen aldeko mobilizazio bat.
JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

**Jokin Sagarzazu**

Administrazioan sargori dago giroa, eta langileen haserrea gero eta handiagoa da. Udazken honetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan greba eta protesta ugari egiten ari dira, sektorean gutxitan ikusitako kopuruetan. Alderdi politikoek eta bereziki erakundeetan agintean daudenek adi begiratzen diote egoerari. Datorren asteazkenean eta abenduaren 19an grebara deituta daude hiru lurraldeetako langile publiko guztiak, 150.000 inguru, eta udazken osoan zehar arlo jakin batzuetan lanuzte gehiago antolatu dituzte.

Asteazkenean, beharginen lan baldintzek eta zerbitzu publikoek okerrera egin dutela salatuko dute, eta erakunde guztiak jarriko dituzte jopuntuan: Eusko Jaurlaritza, hiru foru aldundiak, Eudel eta Espainiako Gobernua. Baina fokua, bereziki, Jaurlaritzara begira egongo da.

Dimentsio politikoa hartu du mobilizazioak. Iñigo Urkullu lehendakariak EH Bilduri egotzi dio udazken beroa bultzatzea, «hauteskundeei begirako estrategia gisa», ELAren eta LABen babesarekin. Haren esanetan, egungo egoera ekonomikoa ez dator bat haiek marrazten ari diren irudi «katastrofikoarekin», eta protestek «errealitate faltsu bat hauspotzeko helburua» dutela dio. Antzeko mezuak eman dituzte gainerako sailburuek. Alderdi sozialistakoak, halere, ez dira eztabaidan oso modu agerikoan sartu. Idoia Mendia Lan eta Enplegukoak sindikatuei esan die aldarrikapenak negoziazio mahaietara eramateko.

Hain justu, urriaren 10ean bildu zen EAEko Mahai Orokorra, baina ez zen akordiorik egon. Eta sindikatuek erakundeei Lan Harremanen Kontseiluan asteon deitutako bilerara soilik Madrilgo gobernuko ordezkaria azaldu zen. «Lotsagarria izan da. Gu beraiek deitutako bilerara azaldu ginen; haiek guk deitutakora, aldiz, ez. Gainera, Mahai Orokorrean planteatu genizkien kontu guztiei Jaurlaritzak betiko aitzakiarekin erantzun zigun: 'Madrilek ez digu uzten'. Ezer aldatzeko borondaterik ez dute, eta hori da larriena», azpimarratu du LABeko negoziazio kolektiboko idazkari Xabier Ugartemendiak.

### Momentu «egokia»

Kezkak eta kexak aspalditik datoz, gutxienez 2009ko krisitik. ELAko zerbitzu publikoetako federazioko idazkari Igor Eizagirrek gogorarazi duenez, Mahai Orokorrean ez da lan hitzarmen bat bera ere sinatu ordutik, hezkuntzako azkena, berriz, 2010ekoa da, Osakidetzakoa 2007-2009koa, eta udaletakoa 2008-2010ekoa. «Guk erakunde guztiak interpelatzen ditugu: Jaurlaritza, aldundiak eta udalak», azpimarratu du ELAko kideak.

> **Alderdiei eskatzen diegu enplegu publikoa lehen mailan jartzeko. Hori da autogobernua defendatzea»**
> **Igor Eizagirre**
> ELA

> **«Badago dirua, baina Jaurlaritzak beti erabiltzen du aitzakia bera: 'Madrilek ez digu uzten'»**
> **Xabier Ugartemendia**
> LAB

Sindikatuek uste dute horretarako «garai egokia» dela. «Orain, aurrekontuak eztabaidatuko dituzte erakunde guztietan. Gainera, inbestidura negoziatzen ari dira Madrilen. Hemengo alderdiei eskatzen diegu enplegu publikoari buruzko eztabaida lehen mailan jartzeko. Hori da autogobernua defendatzea». Azaldu du Eizagirrek. Horri ñabardura bat gehitu dio Ugartemendiak. «Grebara deitu dugunok hauteskundeei buruz ez dugu ezer aipatu; Urkulluk egin du hori».

LABeko ordezkariak gogoratu duenez, sektore publikoan gatazka asko izan dira azken urteotan, eta Osakidetzan eta hezkuntzan izandakoak azpimarratu ditu. Gaineratu duenez, orain borroka horiei «jarraipena eta aterki orokor bat» ematea da haien helburua. «Gure erakundeei nahikoa dela esateko ordua da. Negoziatzeko garaia dela esateko; gure lan baldintzak berton ezarri nahi ditugula esateko. Zerbitzu publikoak indartzeko».

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, CCOO, ESK eta sindikatu sektorial batzuek —hezkuntzako Steilas eta osasun arloko SATSE– bat datoz diagnostiko horrekin, eta haiek ere bat egin dute deialdiarekin. «Gure aldetik, ez dago higadura estrategiarik, ez kanpaina antolaturik, ez ekintza batasunik. Gu ez gara susmagarriak inoren estrategia babesteaz. Baina agerikoa da administrazio publikoan, oro har, egoerak okerrera egin duela, eta horren defentsan aterako gara kalera», azpimarratu du CCOOk.

### Pribatizaziorako joera

Sindikatuen eskaera nagusietako bat da sektore publikoko pribatizazioak amaitzea. Izagirreren arabera, 100.000 langile inguru daude azpikontratatuta, «eta zainketen sektorearen %90 pribatizatuta dago jada». «Zerbitzuak azpikontratatzeko joera gero eta zabalduago dago administrazio osoan».

Horrekin batera, sindikatuek pribatizazio gehiago ez gauzatzeko konpromisoa eskatu diete erakundeei, eta dagoeneko pribatizatuta dauden zerbitzuak publifikatzeko planak adosteko, lantalden subrogazioa bermatuz.

Sindikatuen kritikei erantzunez, Jaurlaritzak esan du gizarte politiketara gero eta diru gehiago bideratzen duela. Hala berretsi du Pedro Azpiazu Ekonomia sailburuak aste honetan, baina, Eizagirreren arabera, hori ez da egia. Barne Produktu Gordina erreferentzia moduan hartuz gero, osasunean azken urtean %5,73tik %5,19ra murriztu da gastua, eta %3,98tik % 3,82ra hezkuntzan. Azpimarratu du Europan batezbestekoa %8 eta %5 dela hurrenez hurren, eta Espainian %7,6 eta %4,6.

Halaber, ELAko kideak gogoratu du EAEn enplegu publikoak dirala Gizarte Segurantzako afiliatu guztien %15, eta Europan %20tik gora dela eta Espainian %17.

Beste eskaera batzuk ere badituzte sindikatuek: lan kargak arintzea eta asteko 32 ordura hurbiltzeko lanaldi murrizketak negoziatzea, eta langile publikoen osasuna bermatzeko neurri zehatzak. Horrekin batera, «berdintasun plan eraginkorrak» eskatu dituzte eta administrazioaren «benetako euskalduntzea» bermatuko dituzten neurriak.

### Dirua badago

Baina eskaera nagusia langileen poltsikoarekin dauka zerikusia. Sindikatuek onartzen dute soldatak eta beste lan baldintza batzuk —eszedentziak, kontziliazio neurriak...— hobeak direla publikoan pribatuan baino, baina ohartarazi dute erosteko ahalmenaren galera handiagoa izaten ari dela.

2010etik soldatak %10 igo dizkiete langile publikoei, baina, sindikatuen arabera, %20ko galera metatua izan dute. Aurten, %3koa izango da igoera, %3,5era iristeko aukerarekin, baina orain arte batez besteko inflazioa %3,9koa iza-

**GREBAK SEKTORE PUBLIKOAN**

**Urriak 24.** Hezkuntza publiko osoan. Deitzaileak: Steilas, ELA eta CCOO. LABek ez du bat egin, uste baitu du zerbitzu publiko guztian deiturik dauden bi grebetako aldarriak aski argia direla hezkuntzarako ere.
**Urriak 25.** Sektore publikoa. Deitzaileak: ELA, CCOO, LAB, ESK, SATSE eta Steilas.
**Urriak 30 eta 31.** Bizkaiko esku hartze soziala. Deitzaileak: ELA, CCOO, LAB eta ESK.
**Azaroak 8,9 eta 10, eta abenduak 12,13 eta 14.** Arabako zahar egoitzak. Deitzaileak: ELA eta LAB.
**Azaroak 30.** Greba feminista orokorra. Deitzaileak: Mugimendu feminista. ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuek babestu dute.
**Abenduak 19.** Sektore publikoa. Deitzaileak: ELA, CCOO, LAB, ESK, SATSE eta Steilas.




ten ari da. Igoera hori, gainera, sektore pribatuko lan hitzarmen gehienetan adosten ari dena baino txikiagoa da.

Sindikatuek %10ekoa eskatu dute aurten eta hurrengo urtean aplikatzeko. Gainerako «zorrari» dagokionez, hori aitortzea nahi dute, eta berreskuratzeko plan bat eta epe batzuk adostea. Uste dute egingarria dela. Egungo egoeran halako igoera bat eskatzea «errealitatek kanpo» dagoela dioten kritikei erantzunez, honako hau erantzun du Ugartemendiak. «Hemen erreala zera da: %20ko galera egon dela. Eta ogasunen diru bilketa inoiz baino handiagoa izaten ari dela. Dirua badago ertzainei soldatak igotzeko, adibidez, baina besteontzat beti daude arazoak eta trabak. Gainera, Jaurlaritzak ez digu esan ezinezkoa denik. Esan digu Madrilek ez diola uzten».

Hain zuzen ere, urriaren 10eko Mahai Orokorrean, Jaurlaritzak berretsi zuen ez duela «maniobrarako tarterik», 2009tik indarrean dagoen oinarrizko araudiagatik, baina sindikatuek diote «aitzakia» bat baino ez dela hori. Eizagirrek Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia gogoratu du: horren arabera, «salbuespena» litzateke Madrilen esku hartzea, soilik krisi garaietan egin ahal izango luke. «Egoera normalizatu batean guk daukagu eskumena, eta hala esaten du [autonomia] estatutuak ere. Gure enplegu publikoa eta gure soldatak Madrilek erabakitzea erabaki politiko bat da, beraz. Eta Madrilek erabaki horiek hartzea onartzen ari dira hemengo alderdiak. EAJk eta EH Bilduk Madrilgo aritmetika politikoa erabil dezakete gure enpleguaren beharrak guk erabakitzeko. Eta aukera dute orain, inbestidurarekin eta aurrekontuen negoziazioekin».

**%15,3**

**LANGILE PUBLIKOAK EAE-N**
Guztira, 151.996 langile publiko daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gizarte Segurantzak izena emandakoen %15,3. Azken hamarkadan, sektore pribatuan baino gehiago handitu da kopurua —%26 publikoan eta %13 pribatuan—. Emakumeak dira %64.

Langile publikoen %69k Jaurlaritzaren menpekoak dira—horren barruan sartzen dira administrazio orokorrekoak, baina baita hezkuntzakoak eta osasunekoak ere, besteak beste—, tokiko administrazioentzat lan egiten %26 eta estatuarentzat %5. Azkenengo hamar urteetan gehien handitu den taldea Jaurlaritzarena da: %34,9. Guztira, 27.114 langile gehiago daude 2013tik. Eta gutxien, tokiko administrazioan: %9,4.

Dena den, Jaurlaritzak bereari eusten dio, eta nabarmendu du EAEn langile publikoen soldatak hobeak direla Espainian baino. Sindikatuek gogoratu dutenez, iraganean egindako akordioen emaitza da hori. «Lehen bazuten horretarako borondatea; orain, ez. Jaurlaritzak enpresei eskatzen die soldatak hemengo errealitatera egokitzeko, baina berak bere langileekin ez du halakorik egin nahi», azaldu du Ugartemendiak.

### Madrilen aitzakia

Azken hamarkadan, sektore publikoan pribatuan baino gehiago handitu da langileen kopurua –%26 publikoan eta %13 pribatuan–, eta gaur egun 152.000 inguru daude. Dena den, gehienak aldi baterako kontratazioak dira. Sindikatuen arabera, %49, «sektore pribatukoa halako hiru».

Azken urtean lanpostuak egonkortzeko lan eskaintza publikoak egin dira, baina, haien iritzian, ez dira aski arazoari aurre egiteko. Prozesu horien helburua da %8ra murriztea behin-behinekotasuna, Espainiako Gobernuak *Iceta legean* ezarri bezala. Irailean, Urkulluk esan zuen 10.700 lanpostu egonkortuko direla prozesu horien bidez, baina sindikatuei ez zaizkie kontuak ateratzen.

Eizagirrek gogorarazi duenez, 47.570 behin-behineko daude, ia 20.000 zortzi urte baino gehiago. Urkulluren kopuruak kontuan hartuz gero, Osakidetzako lantaldearen %85 egonkortze prozesutik kanpo geratuko litzateke, hezkuntzan %69, administrazio orokorrean %20 eta justizian %80. Guztira, batez beste, %72. «Osakidetzan bakarrik 18.000 behin-behineko daude. Behin-behinekotasuna ez da %25-30etik jaitsiko», zehaztu du Ugartemendiak.

Badago, halaber, sindikatuak aspaldi honetan mahai gainean jartzen ari diren beste eskaera bat: erretiroagatik hutsik geratzen diren lanpostuen ordezkapenak. Kasu horietan ere, 2010az geroztik, Espainiako Gobernuak esaten du zein postu ordezkatu behar diren eta, gehiago behar izanez gero, zenbat. Ordezkapenik ez dela egiten salatu dute sindikatuek. «Zergatik erabaki behar du Madrilek zenbat irakasle edo mediku izan behar ditugun hemen?», galdetu du Eizagirrek. Eta soldaten auziarekin bezala, «Euskal Herriko alderdiei» eskatu die gai ere hori mahai gainean jartzeko aurrekontuen eta Pedro Sanchezen inbestidurarako negoziazioetan. Horrekin bat dator Ugartemendia: «Borondate kontua da. Egongo balitz, Madrilek ezartzen dituen debeku edo murrizketak gainditzeko aukera legoke».

# Giza laguntza gaurtik aurrera sar liteke Gazan, Bidenen arabera

Rafahko pasabidea konpontzen ari da Egipto, laguntza «laster» sar dadin • Hogei kamioiri utziko diete sartzen; NBEk iritzi dio «gutxiegi» direla • Iritsi da Israelera AEBen laguntza militarraren zati bat

**Maddi Iztueta Olano**

Hamabi egun igaro dira Israelek Gaza setiatu zuenetik, eta, ordutik, apurka-apurka agortzen ari dira elikagaiak, edateko ura, osasun baliabideak eta argindarra. Nazioartetik bidalitako laguntza humanitarioa gerarazita dago Egipton, Rafahko pasabidean, baina litekeena da gaurtik aurrera laguntza hori Gazako herritarrei eraman ahal izatea, Joe Biden AEB Ameriketako Estatu Batuetako presidenteak atzo aurreratu zuenez.

Astearte gauean Gazako Al-Ahli Arabi ospitalea bonbardatu —ia bostehun palestinar hil zituzten, eta oraindik ez du inork erasoa bere gain hartu—, eta herenegun Biden Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahurekin bildu ondoren iritsi zen Rafahko pasabidea irekitzeko erabakia. Inoiz ez bezalako erasoa izan zen ospitalearen aurkakoa, eta protesta oldea eragin zuen Zisjordanian, Ekialde Hurbilean, Afrika iparraldean, eta beste zenbait estatutan. Erasoa dela eta, kasurako, Bidenekin hitzartua zuten bilera bertan behera uztea erabaki zuten Jordaniako errege Abdulah II.ak, Egiptoko presidente Abdel Fattah Al-Sisik eta PAN Palestinako Aginte Nazionaleko presidente Mahmud Abbasek. Azkenean, AEBetako presidentea Netanyahurekin soilik elkartu zen.

Egipton blokeatutako giza laguntza Gazan sartzen utz zezatela eskatu zion Bidenek Netanyahuri, eta hark baiezkoa eman zion, baina bi baldintzarekin: «Zibilentzako elikagaiak, ura eta botikak soilik» sartzea, eta horretarako «Israelgo lurraldeak ez zapaltzea». Atzo erantzun zuen Egiptok —hark du Rafahko pasabidearen kontrola—, eta hark ere esan zuen eskaera onartuko duela, baldin eta Israelek pasabidearen aurkako erasoak eteten baditu. AEBek ere jarri dute euren «konpromisoari» eusteko baldintza bat: laguntza humanitarioa «Hamasen eskuetara ez iristea».



**Laguntza humanitarioko zenbait kamioi Rafahko pasabidean (Egipto) geldi, atzo.** KHALED ELFIQI / EFE

Tel Avivek ia etenik gabe egin dio eraso pasabidearen inguruko eremuari, eta, ondorioz, hondatuta daude zenbait zati. Egiptoko Gobernuak atzo jakinarazi zuenez, zati horiek konpontzen aritu ziren atzo goizaldetik, Gazara laguntza «laster» eraman ahal izateko. Denera, 165 kamioi inguru daude gerarazita mugan. Baina hiru estatuek hala adostuta, oraingoz hogei kamioiri soilik utziko diete Gazan sartzen. NBE Nazio Batuen Erakundearen arabera, gutxiegi dira, azkeneko gerra hau hasi baino lehen egunean ehun kamioi inguru sartzen baitziren hara.

Egunetik egunera, larritzen ari da Gazako krisi humanitarioa. Edateko ura «agortzear» dagoela ohartarazi zuen UNRWA Palestinar Iheslarientzako Laguntza eta Lan Bulegoak aste hasieran; eta Palestinako Osasun Ministerioak atzo jakinarazi zuen funtzionatzeari utzi diotela hamalau ospitalek, erregai erreserbarik gabe gelditu ondoren. Beste lau ospitale ere itxi behar izan dituzte, Israelen erasoen ondorioz.

## Diplomaziaren bidetik

Bidenek Israeli «erabateko babesa» adierazi eta hurrengo egunean, gaur gauza bera egin du Erresuma Batuko lehen ministro Rishi Sunakek. Netanyahurekin eta Isaac Herzog Israelgo presidentearekin bildu da, eta «erabateko elkartasuna» helarazi die. Are, irmo esan die: «Zuen ondoan izango gara; zuek irabaztea nahi dugu».

Gaur bildu dira Abdulah II.a eta Al-Sisi ere. Hizpide izan dituzte Gazako krisi humanitarioa eta «gatazka Ekialde Hurbilera zabaltzeko arriskuak», bi estatuek kezka nagusi bat baitaukate: milaka errefuxiatu palestinar euren herrialdeetan hartu behar izatea —Jordanian eta Egipton—. Haien arabera, halako «ihesaldi kolektibo batek» nabarmen «mugatuko» lituzke etorkizunean palestinarrek estatu propio bat aldarrikatzeko aukerak.

Halere, gehienetan ez datoz bat negoziazio diplomatikoen eta borroken erritmoak. Israelgo Defentsa Ministerioak jakinarazi duenez, gaur iritsi da Israelera AEBek hitzemandako laguntza militarraren zati bat, eta «gertu» dago lehorreko erasoa. «Distantzia jakin batetik ikusten duzue Gaza orain, baina, laster, barrutik ikusiko duzue», aurreratu die Gazako mugan dauden soldaduei Israelgo Defentsa ministro Yoav Gallantek.

Baina Israelen lehorreko ofentsibari «beldurrik ez» diotela esan du gero Hamaseko Izz A-Din Al-Qassam brigadako bozeramaile Abu Obeidak. Ziurtatu du milizia palestinarrek dutela «gudu zelaiaren gaineko kontrola», badakitela «noiz eraso egin», eta «prest» daudela bataila «luze» baterako. Aitzitik, bihar eta igandean palestinarren alde mobilizatzera deitu ditu «arabiarrak, musulmanak eta munduko pertsona askeak»

### Euskal Herriko sindikatuak, Palestinarekin bat

**+ Euskal Herriko zenbait sindikatuk elkarretaratzeak egin zituzten atzo Bilbon eta Iruñean, Palestinaren «okupazioa» salatzeko eta Israeli «sarraski estrategia» amaitu dezala eskatzeko. CCOO, EHNE, LKN-CGT, Etxalde, ESK, HIRU, LAB eta Steilas sindikatuek antolatu zituzten mobilizazioak. Besteak beste, «Palestinak berezko estatu bat sortzeko daukan zilegitasuna» aldarrikatu zuten.**

**Politikan, EH Baik ere Palestinaren alde egin du. «Gatazkaren konponbide politikoa» aldarrikatu zuen atzo. Kontseilu Sozialistak Baionan deitua zuen protesta, berriz, debekatu egin zuen suprefetak, baina dozenaka herritar bildu ziren Palestinarekiko elkartasunez.**

# Aragones: amnistia, «abiapuntu»; erreferenduma, «helmuga»

Kataluniako presidenteak Espainiako Senatuan babestu du gatazka politikoa gainditzeko Generalitatearen proposamena • Eskoziako galdeketa eredugarritzat jo du



**Pere Aragones Kataluniako presidentea, atzo, Espainiako Senatuan egin zuen hitzaldian.** JUAN CARLOS HIDALGO / EFE

**Gorka Berasategi Otamendi**

Pere Aragones Kataluniako presidenteak amnistia eta erreferenduma jo zituen, atzo, Espainiako Senatuan, Kataluniaren eta Espainiaren arteko gatazka politikoa gainditzeko konponbidetzat. Generalitateko buruak ohartarazi zuen amnistiak «abiapuntu» izan behar duela Kataluniaren estatus politikoari buruzko erreferendum bat adosteko. «Kataluniak erreferendum batean bozkatuko du, konbentzituta nago». Hamar minutuko hitzaldiaren ondotik, Senatua utzi zuen, ondorengoen diskurtsoak entzun gabe.

Aragones behe ganberako Autonomia Erkidegoen Batzorde Orokorrera gonbidatuta zegoen, gainerako presidente autonomikoekin batera, Senatuak gehiengoa duen taldeak, PPk, bilkurara deituta. Hala, 2017ko urrian Espainiako Gobernuaren eskariz Kataluniako autonomia eten zuen erakundean mintzatu zen. Baina, Aragones alde batera utzita, PPkoak izan ziren batzordera joan ziren presidente autonomiko bakarrak. Sozialistek uko egin zioten parte hartzeari, eta PSOEk PPri egotzi zion Senatua alderdi interesetarako erabiltzea. Beraz, ez zen han izan Nafarroako lehendakari Maria Txibite. Ez zen agertu Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako burua ere.

Pedro Sanchez Espainiako jarduneko presidentearen inbestidurarako negoziazioen testuinguruan, Esquerra Republicana (ERC) eta Junts per Catalunya (JxC) alderdi independentistek Kataluniako prozesu independentistari begirako amnistia lege bat exijitu dute, eta Aragonesek atzo berretsi zuen «ezinbestekoa» dela gatazka auzitegietatik ateratzeko eta politikara bideratzeko, «independentismoaren aurkako auzi orokorra amaitzeko». Gaineratu zuen lehen urratsa izan behar duela «helmuga» batera iristeko: «Herritarrek independentziari buruz bozkatzeko».

Generalitateko buruak Eskoziakoa proposatu zuen eredu gisa —Edinburgok Londresekin hitzartu zuen 2014an independentzia erreferendum bat egitea—. «Adostasunez egin nahi dugu, denen parte hartzearekin. Aukera guztiek gauzatzeko modukoak izan behar dute herritar gehienen babesa baldin badute».

Katalunia «nazio irekitzat» jo zuen Aragonesek; esan zuen ez dela «ez besteak baino hobea ez okerragoa», baina etorkizuna «aukera guztien artean» erabaki nahi duela, «bakean eta aske».

**«Lau boto harrapatzeko»**

PSOEk egin bezala, Aragonesek ere egotzi dio PPri Senatua interes propioetarako erabiltzea. Generalitateko presidenteak azaldu zuenez, «ohartzen» da behe ganberako atzoko saioaren helburua «Katalunia erabiltzea» dela, «bataila alderdikoietarako eta antikatalanismoa hauspotzeko». Horren bidez, popularrek «lau boto harrapatzeko» erabili nahi dute gatazka, Aragonesen ustez. «PPri ez zaio axola Katalunia. Inportako balitzaio, entzun egingo lioke, eta zer pentsatzen duen jakin nahiko luke». Generalitateko presidenteak popularrei egotzi zien Kataluniarentzako proiekturik ez izatea.

Amnistiak «espainiarren arteko berdintasuna» apurtuko lukeela ziurtatu duten diskurtsoen harira, Aragonesek erantzun zuen PPkoak ez zirela «eskandalizatu» Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohiak «6.000 indultu eman zituenean», nahiz eta horiek «ustelkeriagatik eta estatu terrorismoagatik kondenatutakoentzat» izan. Gogorarazi zuen 1977ko amnistia legeak diktaduraren krimenak ikertzea galarazten duela.

## Sakharov saria, Aminirentzat eta Irango emakumeen mugimenduarentzat

**ESTRASBURGO •** Europako Parlamentuak Mahsa Amini kurduari eta haren heriotzaren ondorioz sortutako Emakumea, Bizitza eta Askatasuna Irango mugimenduari eman die aurtengo Kontzientzia Askatasunaren Aldeko Sakharov saria, europarlamentuko presidente Roberta Metsolak atzo jakinarazi zuenez. «Mahsa Aminiren hilketa basatia [beloa gaizki zuelakoan atxilotu zuten, eta polizia etxe batean zegoela hil] mugarri bilakatu da. Emakumeak buru dituen mugimendu historiko bat aktibatu du».

## AEBek Venezuelari ezarritako zigor ekonomiko batzuk arindu dituzte

**WASHINGTON •** Venezuelako Gobernua eta oposizioa ados jarri ziren herenegun, datorren urteko presidentetzarako bozen bermeei buruz. Horren ondorioz, AEBetako Gobernuak atzo jakinarazi zuen herrialde horri ezarritako zigor ekonomiko batzuk arindu dituela; tartean, petrolioaren eta gasaren sektoreetan jarritakoak. Neurria sei hilabetez egongo da indarrean, eta bertan behera uzteko aukera izango da, besteak beste oposizioko hautagai nagusiak inhabilitatuta segitzen badu.

InfoBilbao | UDALA · AYUNTAMIENTO

**ZIRKULAZIO-ALDAKETAK BILBOKO GAUEKO MARATOIAGATIK**

**2023ko urriaren 21a, zapatua**

Bilboko Udalak gidariei laguntza eskatu nahi die "Bilbao Night Marathon" dela eta. **Urriaren 21ean (zapatua), 18:00etatik** hurrengo eguneko **00:45era bitartean**, gutxi gorabehera, aldaketa handiak egingo dira ibilgailuen zirkulazioan uriko auzo hauetan:

**Basurtu, Olabeaga, Indautxu, Abando, Deustu, Ibarrekolanda, San Ignazio, Castaños, Uribarri eta Zazpi Kaleetan.**

**Auzo horietako garajeetarako eta aparkalekuetarako sarrera-irteeretan murrizketak egingo dira**; horietako batzuk sarrerarik eta irteerarik gabe geratuko dira, denbora-tarte horretan, lasterketa pasatzen delako.

**Murrizketak Deustun**: Agirre Lehendakariaren etorbidean, Deustuko zubirako noranzkoa okupatuz; Madariaga etorbide osoan; eta Botikazar erriberan, Francesc Macià eta Luis Power kaleen artean, San Ignazioko noranzkoan. Carmelo Bernaola tunela itxita egongo da zirkulaziorako Bilboko erdigunerako noranzkoan (beheranzkoa), 18:15etik 19:30era.

**Murrizketak Olabeagan**: Felipe Serrate eta Ventosabidea itxita. Basurtura iristeko Bilboko sarbide onena da Montevideo etorbidea edo Juan de Garay → Autonomia.

**Murrizketak Kale Nagusian**: zabalik egongo da Jesusen Bihotzaren plazatik Maria Diaz Haroko kalerako noranzkoan. 19:45etik aurrera, Moyua plazaraino zabalduko da; Moyua plazatik Salbe zubira joateko Recalde zumarkalea erabiliko da.

**Ernesto Erkoreka plaza, Campo Volantin pasealekua eta Unibertsitateen etorbidea**: zirkulaziorako erabat itxita egongo dira ordu horietan, noranzko bietan.

**Zubiak**: Areatzako eta Udaletxeko zubiak itxita egongo dira. Deustuko zubia itxita egongo da bi noranzkoetan 20:00ak arte; ordu horretan Deustuko noranzkoan errei bat zabalduko da. Euskalduna zubia itxita egongo da 19:30ak arte. Salbe zubia zabalik egongo da uneoro.

Udaltzaingoak aldaketen ordutegiak aldatu ahal izango ditu, segurtasun arrazoiak tarteko.

**Bilbobus zerbitzua:** Bilbobuseko linea gehienetan aldaketak egingo dira. Horri buruzko informazio osoa geralekuetan eta www.bilbao.eus/bilbobus webgunean. Bizkaibuseko linea batzuetan eta tranbiaren zerbitzuan ere nabarituko dira eragozpenak.

**Aholkuak: Bilbora etorri nahi duten pertsonentzako gomendioa**: erabili garraio publikoa (ahal dela, trena edo metroa) eta, bestela, ibilgailua Etxebarri, Leioa edo Ansioko aldirietako aparkalekuetan utzi, hirurak metro geltokien ondoan baitaude. Era berean, oinezkoei eskatzen zaie seinalisten jarraibideei jaramon egiteko, oinezkoen joan-etorrietan murrizketak egiten direnean.

Argibide gehiago 944 010 010 telefono-zenbakian eta www.bilbao.eus webgunean.

**www.bilbao.eus**

## Udazken guztiak

Aldiberekotasun erabateko garaiotan zaila da argitzea non edo noiz gauden zehazki. Demagun batek esaten duela udazkenean gaudela. Berehala argitu beharko du, azkenaldiko zehaztapen ezagun bati jarraituz, udazken meteorologikoaz edo astronomikoaz ari den. Bereizketa berria da, nik behintzat ikasi berria, eta, halere, izan, ez da izan daitekeen udazken mota bakarra.

Udazken meteorologikoa delakoak ez du zertan bat etorri udazkenarekin esperatzekoa omen den eguraldiarekin, gezurra badirudi ere. Irailaren lehenean hasi zen, eta udazken –nolabait esateko– prototipikoa, berriz, egunotan ari da hasten, behin sanmartinetako uda txiki aurreratu eta luzatua amaituta. Hainbati entzun diogu «azkenik hemen dugu udazkena». Baliteke nik ere esan izana.

Honek pentsarazi dit zer ote diogun udazkena diogunean. Ez dago inoiz jakiterik. Oso hitz arriskutsua da udazkena, ia udaberria beste. Agian horregatik desagertzen ari dira biak (negu eta udaren binarismoa zabalduz). Ez baitago jakiterik zer udazken motaz ari garen: udazken sonoro, bital, ekonomiko, moralaz edo udazken animikoaz.

Gogo aldarte udazkendarrak ni uda partean harrapatu ohi nau, aurten berandutu eta kasualitatez udazken guztiak batera ari naiz bizitzen.



**JIRA**
Angel Erro

## Exotikoak

Poz-pozik joan da eskolara gaur. Sei urte ditu eta atzo aurreko hortza erori zitzaion. Goizean kontatu dit sagua etorri zaiola eta hiru euro utzi dizkiola burukoaren azpian. «Bai ondo!», esan diot nik, eta «ai, zelako zoriona daukadan!», erantzun dit berak. Bere pena bakarra izan da, hortza sagutxoak eraman dionez, ezin izango diela lagunei erakutsi. Ahoan irribarre inozo bat dudala utzi nau etxean kotxeari agur egin diodanean.

Etxean sartuta pentsatzen hasi naiz, ordea, eta gogoratu naiz gu umeak ginenean bazegoela Maritxu Teilatukoa deitzen genion izaki bat. «Maridxe gorringo gorringo, teilatu ganeko gona gorridune», kantatzen genion, eta haginak teilatura botatzen genituen. Gero sagua etorri zen. Perez deitzen zioten gaztelaniaz, eta saiatu ziren Agirre sagutxoa deitzen zenbait eskolatan. Ez dut uste arrakastarik izan zuenik. Perez sagutxoa entzun izan dut, batez ere, gerora. Umeentzako fantasia bera izango da sagua opariekin datorrela edo teilatuan norbait haginen zain dagoela pentsatzea. Kontua da gauza txiki asko hartu ditugula kanpotik, eta berez horrek ez du beti txarra izan behar. Hemen, ordea, dena iruditzen zaigu exotikoagoa kanpotik badator. Eta zer nahi duzue esatea? Sagua baino exotikoagoa da teilatuan bizi den amona mantangorria.



**BIRA**
Onintza Enbeita

# Gerra

**Joxe Manuel Odriozola**
Euskaltzalea

Giza espezieak oraindik ez du asmatu bortxa politikorik gabeko elkarbizitzarik eratzen. Gatazka bortitz eta gerrarik gabeko mundurik ezagutzen ez denez, pentsatu izan da bortizkeria politikoa giza eta gizarte izaeraren baitan txertatutako berezko bulkada basaren bat ote den. Einsteinek Freudi egindako galderak, «Ba al dago gizateria gerraren hondamenetik saihesteko modurik?», oraingoz ez du erabateko erantzunik.

Ikus dezagun gerren jatorriez eta zergatiez zer-nolako gogoetak egin diren pentsalarien artean.

Kristautasunaren agindua «ez duzu hilko» baldin bada ere, salbuespenak daude San Agustinen arabera. «Ez hiltzeko debekuan salbuespen batzuk daude, autoritate jainkotiarrak berak seinalatua duen moduan. Salbuespen horien artean dago hiltzeari buruz Jainkoak ezarritako lege bat [...]. Horregatik, Jainkoaren esanera gerrak egin dituztenek ez zuten inondik inora urratu *ez duzu hilko* agindua».

Gizakumeak beti zuritu du nola edo hala gerra egiteko erabakia. Kasu honetan Jainkoaren izenean. Gerraren beharra azken aukera bezala justifikatu izan da maiz, gainerako bide guztiak agortu ondoren-edo. Horrelatsu funtzionatzen du gerraren aldeko ideologiak: inoiz argudioak jainkotiarrak izan daitezke, inoiz mundutarrak. San Agustinen arabera, bidezkoa da gerra, betiere dena delako gerra hori justua baldin bada. «Etsaiaren bidegabekeriak behartzen du gizon jakintsua gerra zuzenak deklaratzera».

Gerra zuzen edo bidezkoari dagokionez, ñabardura bat eransten du Santo Tomasek: «Gerra justuak egiten dituztenak bakea bilatzen saiatzen dira». Ez gara askorik aldatu geroztik. Alde bakarra, egotekotan, gerraren zilegitasunaren iturrian dago: orduan Jainkoaren izenean justifikatzen ziren bidezko gerrak, oraindik ere bai gizarte eta kultura batzuetan, baina Jainkoaren lekuan gaurko Estatu askok segurtasuna, askatasuna, burujabetza, demokrazia... ezarriko dizute. Edo orduan bezala, bakearen izenean egiten dugu gerra orain.

Halako batean Nikolas Makiavelo agertu zen pentsamendu politikoaren historian, eta egia gordin eta zakar batzuk bota zituen eztabaidaren plazan. Honatx, horietako bat: «Arma onak dauden lekuan beti daude lege onak». Gerrarik eta bortxarik gabe ez dago zuzenbiderik, zuzenbidearen fundatzaile nagusia indarra (edo indarkeria?) delako. Arrazoi zuen Makiavelok gauza batzuetan. Zuzenbidearen jatorrian indarraren arrazoia ikusten ez duenak justiziaren indarrean sinesten du, zuzenbideak berariazko estatutu fundatzaile metafisiko bat balu bezala.

«Gerraren bertute nagusiak indarra eta iruzurra dira». Hori zioenak beste hau ere pentsatzen zuen: «naturaren egoeran» gizakume guztiak guztien kontrako gerran bizi dira. Hortaz, Hobbesen iritziz egoera horretan zuzenbidea eta eskubideak, morala eta moraltasunik eza eta justua eta bidegabea bezalako kategoriak lekuz kanpo daude. Berrio ere indarra (edo indarkeria?) ageri zaigu giza eta gizarte harremanak arautzeko oinarrizko neurri moduan. Gerrarik ez dagoenean ere, gerraren legatuak ezaugarritzen ditu egungo munduaren egitura juridiko-politikoa zilegitzen duten kategoriak: hala nola legea, giza eskubideak, balioak, morala... Bakean bizi garenean ere, gerrak bizi gaitu. Beste modu batera esanda: gerrak ezartzen ditu bakearen baldintzak, gerra bakearen kondizioa den heinean.

Montesquieuk guk baino hobeki zehaztu zuen gerraren eta legeriaren arteko elkarreraginaren sekuentzia: «Gerraren helburua garaipena da; garaipenaren helburua konkista; konkistaren helburua boterea atxikitzea. Printzipio honetatik eta bere aurrekaritik eratortzen da jendeen zuzenbidea eratzen duen legeria guztia». Hemen ere oinarrizko kontua da aurrez seinalatu duguna ez ahaztea. Bakean bizi garenean pentsa dezakegu bakearen jatorrian bidegabeko gerrak, okupazioak, kolonizazioak, genozidioak... egon zirela behinola, baina historiaren bilakaera ez dela lineala, eta egungo mundua ez dela ordukoaren legatu eta ondorio gisa ulertu behar. Hori pentsatzeko joera *naturala* dugu. Baina hizpide dugun auzia, ordea, korapilatsuagoa da. Foucaultek dioen moduan, «botere politikoak gerra amaitzeko agindua ematen duenean, [...] ez du egiten gerraren efektuak gainditzeko edo azken batailan gailendutako desoreka neutralizatzeko». Alderantziz baizik: «gerra isilean betikotzeko baizik».

Hobbesek gerraren zergatia giza izaerari egozten zion; Montesquieuk gizartean bizi zen gizakiari; Rousseauk, berriz, Estatuaren izaerari egozten zion gerraren kausa; eta Humek, azkenik, Estatu nazionalen gobernatzeko moduari leporatzen zion gerraren arazoa. Iritzi hauen artean bat azpimarratu behar banu, Rousseaurena nabarmenduko nuke. Gauza jakina da Estatuen arteko gerrak Estatuak direnetik gertatu direla. Guk ezagutzen dugun egungo mundua Estatu nazionalaren arabera eratutako mundua da, aurrekariak ahantzi gabe; hots, inperioek Estatu nazionaletan utzi zuten arrasto sakona ahantzi gabe. Ukrainara edo Palestinara begiratu besterik ez daukagu gerra horien guraria nazionalismoaren ideologia inperialistan bazkatzen dela ohartzeko.

Gerrari buruz hitz egin ote daiteke Clausewitz ahotan hartu gabe? Bere «formula» sonatuaren berri ez dakien gutxi egongo da: «Gerra ez da beste bitarteko batzuekin jarraitutako Estatuaren politika baizik». Alderantziz ere funtzionatzen du formulak gerraren eta politikaren arteko harremana ikusarazteko: «politika beste bitarteko batzuekin jarraitutako gerra da», Foucaulten hitzetan esanda. Azken hitza ere Foucaulti emango diogu: «Herrestan garamatzan eta determinatzen gaituen historikotasuna gerrazkoa da».

***Gerrarik eta bortxarik gabe ez dago zuzenbiderik, zuzenbidearen fundatzaile nagusia indarra (edo indarkeria?) delako. Arrazoi zuen Makiavelok gauza batzuetan. Zuzenbidearen jatorrian indarraren arrazoia ikusten ez duenak justiziaren indarrean sinesten du, zuzenbideak berariazko estatutu fundatzaile metafisiko bat balu bezala***




HIZPIDEAK

# Kalea aktibatzeko garaia

**Amagoia Mujika Tolaretxipi**
*@mmuxika*

Bi hizkuntzak ofizialak dira, eta ezin da bietako bat lehenetsi, eta, gainera, Espainiako Konstituzioak ez du «agintzen» gaztelaniaz gain beste hizkuntza ofizial bat jakin behar dela. Horiexek dira EAEko Auzitegi Nagusiak emandako arrazoietako batzuk, EAEko udal legearen bidez euskara sustatzeko dekretuaren zenbait arau baliogabetzeko. Ebazpenen bidez diskurtso hori hedatzen ari dira euskararen eta euskaldunon kontra aritzeko. Zapalduak zapaltzaile bilakatzen dituzte, mundua alderantziz jarrita.

Hizkuntza poilitikak behar dira, euskara sustatzeko esparru legalak, urrats adostuak, eta ez dira erortzen utzi behar horiei eusteko indarrik egin gabe. Horregatik, helegiteak jartzeaz gain, herritarak aktibatu behar dira, kalean euskararen aldeko mugimendua dagoela erakutsi behar da, oldarraldiak haserrea eragiten duela, eta kolpe bakoitzak erantzuna duela.

Oldarraldi judizialaren soka are gehiago luzatu eta korapilatu du epai honek,baina ez da horretan amaituko, behin bidea ikasita errazagoa baita ibilbidea egitea. Azaroaren 4ko manifestazioak oldarraldi honen aurkako erantzun indartsua eta handia izan behar du, baina izan dadila erantzunen dinamika sendo baten hasiera.

# Ideia



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Berari otu zitzaion. Berari eta ez beste inori. Lanpostuan harrapatu zuen aferak. Sumatzen zuen bere gainetik zeuzkan jefeen ezinegona. Irtenbiderik aurkitu ezinda zebiltzan eta Nagusi Gorena hegazkinean zen ordurako. Egoerak, zuritu ez zitekeena zirudien. Zer, eta erietxe bat. Zein, eta ume mordoxka. Eta berari bururatu zitzaion! *Win-win* nabarmena zen; eskuliburuetako *quid pro quo*-a; *nik zuri, zuk niri* ezin hobea. Bere nagusiari hots egin zion. Hark bereari... eta hamar minutu eskasen buruan, laino artean zihoan Presidenteak izan zuen ideiaren berri.

Bikaina iruditu zitzaion eta abian jarri zuen egitasmoa. Gainera, Presidentea zerbaitengatik zela erakusteko, ideia loratu egin zuen. Grabazio bat eskainiko zion israeldarrei, non bi palestinar azaltzen diren elkarri aitortuz lehergailua Hamasekoek jaurti zutela. Ume jolasa beraientzat. Heldu zen Tel Avivera. Lur hartu orduko eman zion planaren berri Netanyahuri. «Guk esango dugu erietxekoa besteek egina dela. Eta zuek esan, gure eskariz, Egiptotik baino ez bada ere, onartzen duzuela Gazarako laguntza humanitarioaren sarbidea». Esan bezalaxe egin zuten. Laster zen itzulerako hegazkina hartuta.

Lorik egin ezinda dabil ideia izan zuen funtzionarioa. Postu eta soldata igoera espero ditu.

# «Ni ez noa»



LARREPETIT
Ander Perez Argote

Kartela zabaltzerako, martxan jarri dira zure hainbat whatsapp taldeetako lagunak, Donostiarako kotxeak antolatzeko. Afixa bera ikusi duzu espero zenuen eta hainbeste espero ez zenuenen perfiletako irudietan. Azkenaldian hala sumatu duzu jendea, amorruz lehertzear eta inpotentziaz borborka, mobilizazio gosez, kalera ateratzeko edozein aukeraren zain. Hala hartu duzu zuk ere Donostiarako deialdia. Gertaeren neurriko erantzun baten traza hartu diozu.

Letra txikia beti da problematiko, ordea. Eta ez da denbora asko behar izan mobilizazio horretako manifestuarekin ahots kritikoak agertu, eta manifestazioaren beraren aurkako iritziak zabaltzen hasteko.

Zuk ez dakizu bi estatuen konponbidea den onena, estatu palestinar bakarra defendatu beharko zenukeen, ala Israelen suntsipen osoa aldarrikatu. Iritzi bat izango duzu, noski, baina agian beste bat du manifan zure aldamenean doanak. Eta agian ez da bat etorriko palestinarrek nahi dutenarekin ere. Haiei dagokie hori erabakitzea. Hori da zuretzat «Palestinaren autodeterminazio eskubidea», Donostiako manifestuak hitzez hitz aldarrikatzen duena. Ez zara herri txiki bateko manifestazio batek konponbide geopolitiko bat markatuko duela pentsatzeko aski handiustea. Sarraskia arbuiatu, eta elkartasuna adieraztea da zure minimoa. Argi duzu, norberak egin dezala nahi duena. Baina, auskalo zergatik, ez diozu «ni ez noa» diotenei haiek zer egingo duten azaltzeko asmoa bakarrik hartu, ez bada beste denen iritzian eragitekoa baizik. Eta hori da dagoeneko nekatzen zaituena: kontsentsua eta ilusioa pizten duen dinamika orori aurre egiteko joera aspergarria, beste batzuk gizarte bloke zabalak eratzen saiatzen diren bitartean. Eta beste hainbatek, dudak duda eta ñabardurak ñabardura, momentuari tamaina hartu eta oinarri komun horren baitan mobilizatzeko ariketa zintzoa egiten duten bitartean. Askoz ariketa zailagoak, portzierto, «ni ez noa» esatea baino.

berria
**Zuzendaria:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso
**Edizio arduraduna:** Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
**Lege gordailua:** SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722 I 84059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 Faxa: (0034) 943-59 01 72
**Webgunea:** www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eus
**Harpidetza saila:** (0034) 943 - 30 43 45 **Date:** 20/10/2023 **Exemplaire:** 6.315 **Editeur:** Euskal Editorea s.l.
**Directeur de publication:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Comission paritaire:** 0924 C 84059

**Delegation Labourd:** Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak: Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Posta elektronikoa: araba @berria.eus **Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus
**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi @berria.eus. **Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.

# Aholku on bat



ARKUPEAN
Oihana Arana

**Poetak ez dizu gosaria prestatuko, ez dizkizu loreak oparituko. Nahiko du zuk bi ekintzok egin ditzazun, baina eskatuko dizu, mesedez, egin diezaiozula afaria, gaur ez duela bazkaltzeko denborarik eta gogorik izan eta ahul dagoela**

Ez zaitez sekula poeta batekin oheratu. Benetan esaten dut. Poetak *red flag* dira. Lagun batekin berbetan ari nintzela bota nuen esaldia orain dela ez asko eta errepikatu egingo dut. Ez zaitez sekula poeta batekin oheratu. Ez dut esaldia haragikeriarekin lot dadin nahi. Poeta batekin ezin da lorik egin. Txiste bat dirudi, baina lo egitea oso inportantea da.

Poetak irratia pizten du goizetan kalean oraindik inor ez dabilenean eta gosaldu aurretik betetzen du burua bateko hezkuntza legeaz, besteko Gazaz, tartean koltxoien anuntzioa adituta. Iruditzuko zaio mundua bortitzegia eta jarriko du podcast buru-itzaltzaile horietako bat, izan ere, musika oro iruditzen zaio nostalgikoegia, musika bera balitz bezala nostalgia horren sortzailea. Irratian ganorazko kontuetan hasi aurretik esnatzen bada, egunkaria irakurriko du eta bidaliko dizkizu titularren argazkiak beldurtuta edo ilusionatuta, unearen arabera. Berdurtuta normalean. Ez du informatuta egoteko egiten, goiza bete behar izaten duelako baizik, ohea egitea eta gosaltzea baino ideia hobea dela esango dizu galdetuz gero.

Poetak ez dizu gosaria prestatuko, ez dizkizu loreak oparituko. Nahiko du zuk bi ekintzok egin ditzazun, baina eskatuko dizu, mesedez, egin diezaiozula afaria, gaur ez duela bazkaltzeko denborarik eta gogorik izan eta ahul dagoela. Ezetz dirudien arren, gainditu omen zuen keinu erromantikoei garrantzia ematearen zera hori. Praktikoagoa da orain. Pena da, baina loreek ez dute triparik asetzen. Hitzak paperentzako gorde eta erregutuko dizkizu besarkadak begiekin, apur bat haserretuko da ez baduzu seinalea ulertzen. Esango dizu bigarren eskuko liburu dendan poeta nikaraguar baten liburu bat erosi duela eta maitale batek beste bati idatzitako oharrak dakartzala lehen orrian. Esango dizu azkenaldian ez duela maitasunean sinisten, baina jakingo duzu, hain zuen ere, ohar horiek egin dioten ilusioagatik erosi duela liburua. Erdi txolinduta nabaritzen duzula esaten badiozu errepikatuko dizu jada ez duela ezertan sinisten. Ezkutuan egingo duzu barre sano Co-Starren agertzen zaizunean. Maitasunean ez sinistea ez da posible, hitzaren zentzurik zabalenean behinik behin.

Barkamena eskatuko dizu zurekin hizketan ari den bitartean dei arraroak hartu behar izateagatik, gai batzuei buruz berba egiteak sortzen dion antsietateagatik, prokrastinatzeagatik, hozkailuan galletazko jogurtak bakarrik uzteagatik, mezuak ez erantzuteagatik, dutxan ileak uzteagatik, gehiegi kexatzeagatik. Baimena eskatuko dizu aurreko hartan esan zenuen esaldi poemagarri hura erabiltzeko, sofa osoa bereganatzeko, begietara begiratzeko, txokolate ontza erdi jateko, ipuinak boz gora irakurtzeko, leihoa zabalik mantentzeko, arratsalde hartan gertatutakoa narrazio bilakatzen saiatzeko, gehiago kexatzeko. Barkamenik eta baimenik ez eskatzeko esango dizu zuri. Ez omen dute eta ezertarako balio.

Lanean dagoela esango du beste lagun poeta batzuekin meriendatzen, irakurtzen, koadernoan marrazkitxoak egiten edo arkatzak zorrozten ari denean. Egun batzuetan ez duzu ikusiko eta ez duzu jakingo ohean jarraitzen duen edo zu ohartu orduko alde egin duen agendak agintzen dion helmugara iristeko, berandu, seguruenik.

Lotarako ordua aspaldi igaro denean, besaulkian topatuko duzu, hitz-gurutzatua amaitu guran; euskaltzain oso ditxosozko horren jaioterria zein ote den asmatu ezinda. Proposatuko diozu lotara joatea eta enegarren aldiz esango dizu jada kaferik ere ez duela hartzen, baina loezina duela oraindik.

Barkatuko didazue atrebentzia, baina lo egiteko ia astirik gabe pasa ditut aste biok, eta aholku xume hori baino ez nizuen eman nahi. Ez iezadazue galdetu zergatik izaten dudan insomnioa. Poeta naizen edo ez naizen erabakitzeak ere sortzen dit eta.

# Elosutik Zizurkilera, mendiak aske

**Ainhoa Gil Ugartemendia**
Eskeltzu Bizirik
**Josebe Blanco Alvarez**
Oletan Ere Ez
**Gaizka Otamendi Izeta**
Sañu Bizirik
**Xabier Odriozola Soraluze**
Errezil Bizirik

Konturatu orduko urtebete pasa da Zumarragako lehen bilera hartatik. Gehienok ez genuen elkar ezagutzen eta, hala eta guztiz ere, gai izan ginen elkarrekin, bakoitza bere herritik, Elosun gertatuko zena irudikatzeko eta elikatzeko. Komunikazioa, autobusak, kartelak, ordutegiak, agerraldia, nork zer esan, pintxoak, bazkaria, musika...

Elosukoa ez zen Elosun bukatu. Belardi handi hartan osatu genuen aerosorgailuaren bueltan ziren hitzek, irrintziak eta emozioek ekarri gaituzte hona han ginenok: orduan josi genuen sarea ez dela desegin esatera. Are gehiago, pertsonek osatutako haize-errota belarditik at zabaldu zen bezala, gure sarea ere zabaldu egin da.

Ez pentsatu, ordea, sarea berez zabaldu dela, pagoek beren adarrak luzatzen dituzten maneran. Makroproiektu energetikoen mamuek eta elkartasunak zabaldu dute Gipuzkoako Mendiak Aske; eta Gipuzkoan bezala, gainontzeko lurraldeetan.

Urtebetean asko ikasi dugu, eta sareak egituratzen duen hari bakoitzaren jabe egin gara, argi dugulako sarerik gabe are babesgabeago egongo garela, tsunami elektriko honen aurrean.

Babesgabetasunaren zuntzak gure sareari, gutxienez, lau hari eskaintzen dizkio: ez dugu ezagutzarik; denboraz ere, larri gabiltza; diruz, zer esanik ez; eta legeak eta arauak beste batzuenak dira. Indartsua da babesik ezak gure arteko sareari eskaintzen dion lehengaia. Gure arteko babesa baino ez dugu. Batzuei lehenago iritsi zitzaien mehatxua, lehenago murgildu behar izan zuten lege eta arauen itsaso arrotz horretan, eta alegazio epeek eta burokraziek ezartzen dituzten itsasaldien agindupetara mugitu.

Sarea izango bada, zeharrera zabalduko diren hariak ere behar ditugu, eta babesgabeziari korapilatu, elkarri eutsiko badiote. Herriz herri diren mehatxuetatik ikasi dugu gainontzekook. Ondokoaren porrotak adi jarri gaitu, eta bere pozak aurrera egiteko indarra eman digu. Hilabetez hilabete konpartitu ditugun urrats legalez gain, bizi dugun honek sortzen dizkigun ezinez, kezkaz eta nekeaz hitz egiteko espazioa ere aurkitu dugu. Izan ere, beste borroka batzuetan bezala, hasieratik jabetu ginen lurraldearen defentsa honi heldutakotan, ultra-trail horietako batean sartuak ginela: gogorra eta luzea. Eta horrelakoetan gertatzen den bezala, hemen ere ezinak hartzen zaitu eta behar duzu baten bat tira egingo duena, atsedena hartzen duzun bitartean; edo zure malkoak jaso eta xukatuko dituen laguna.

Sarearen ertzeko soka sendoa, egonkortasuna eta indarra ematen duena, lurraren eta gure seme- alaben etorkizunaren defentsan ari garen konbentzimenduak ematen digu. Badakigu ongi ari garela –gure gabezia guztiekin–, gure borroka bidezkoa bezain beharrezkoa dela, gazteek eta euren ondorengoek etorkizunik izango badute.

Gizarte honek ez du eskubiderik umeen eta gazteen bizitzak ezinezkoak egiten dituen sistema ekonomikoa elikatzen jarraitzeko. Gero eta ageriagoa da makroproiektu horien helburua ez dela naturaren eta bizitzaren zaintza, baizik multinazional, inbertsio-funts eta gainontzeko marrazoen interesen zaintza.

Sinetsarazi nahi digute itsasoa, mendiak eta soroak industrializatuz hobeto biziko garela, zoriontsuagoak izango garela. Ez digute esaten, ordea, haiek gabe ez dagoela jaterik, ez dagoela arnasterik, ez dagoela pozik, ez dagoela, azken finean, bizitzerik. Ez digute esaten ekosistema horietan guztietan bizi direnen beharra dugula, gure babesa direla; ez garela ongi biziko horiek guztiak desagertuz gero. Hau da, elkarrekiko mendekotasuna dela bizitzaren araua.

Elkarrekin eman dugun urtebete honetan, Gipuzkoako Mendiak Aske osatzen dugun taldeetan, ezinek bere horretan jarraitzen duten arren, sentitzen dugu badugula zer ospatu –bidea gozo-gozoa izan ez den arren– eta badugula zer eskaini gure jendarteari. Horregatik, gonbidatu nahi zaitugu datorren igandean, urriaren 22an, Zizurkilera. Eguerdian izango den bertsosaioan ireki nahi dizugu paisaia zabala erakusten duen leihoa, bertsotan hemengo eta hango energiaz hausnartzeko aukera, zabal eta patxadaz. Ondorengo bazkariak eta abarrek beste giro bat sortuko dute –atsegina hau ere–, eta indarra bilduko dugu hurrengo urtean ere hemen egoteko.

# Itoginak estali beharrean

## Osasunak Granada hartuko du gaur, Sadarren lehen aldiz irabazteko asmoz • Gol eskasia atzean uzten eta aurkariaren hauskortasuna baliatzen saiatuko da

**Eñaut Agirrebengoa**

Itxuraz apain dago Sadar, baina etxean hotza du Osasunak: bertan Ligako lau partida jokatu ditu orain arte, eta bakar bat ere ez du irabazi. Hasierarik okerrena izan du Iruñean Lehen Mailara itzuli zenetik. Puntu bat baino ez du lortu, Sevillaren aurka hutsean berdindu eta gero. Esku hutsik gelditu da, aldiz, Athleticen, Bartzelonaren eta Atletico Madrilen kontra. Bruggek ere menderatu egin zuen, Konferentzia ligako atariko kanporaketako joaneko partidan. Egutegia oso zaila izan da, baina samurtzera egingo du hemendik aurrera. Konponketak egin eta itoginak estaltzeko ordua da. Hasteko, gorritxoek sailkapeneko azken-aurrekoa hartuko dute gaur: Paco Lopezen Granada.

**Talde zakarragoa izan behar dugu. Zintzoak gara, eta ondo dago. Baina aurkaria deseroso sentiarazi behar dugu»**

**«Granada talde ausarta da, Paco Lopezek zuzendu dituen beste guztiak bezala. Oso sendo egon beharko dugu»**

**Jagoba Arrasate**
Osasunako entrenatzailea

Osasunak golarekin adiskidetu beharra dauka Sadarren. Bere zaleen aurrean bi baloi sareratu ditu bakarrik; bat Bruggeren kontra, eta bestea Bartzelonaren aurka. Etxean gol gutxien egin duen taldea da Ligan. Jokalari gorritxoen artean, Chimy Avilak asmatu du bakarrik ate aurrean. Budimir sasoi betean dabil, eta bi gol sartu ditu orain arte; biak, ordea, Iruñetik urrun sartu ditu.

Ez da jokaldiak errematatzeko aukera askorik izaten ari Kroaziako aurrelaria. Berriki 2027ra arte luzatu du kontratua, eta sarea urratuz ospatu nahi du gaur.

Golik eza ez da soilik aurrelarien ardura. Osasuna iristen ari da aurkarien area ingurura, baina erabaki okerrak hartu ditu azken metroetan. Erdiraketak, maiz, ez dira behar bezain zehatzak izan, ezta erremateak ere. Atletico Madrilen aurka, behin asmatuko, eta epaileak baliorik gabe utzi zien David Garciak egindako gola. Nafarrek ernegatuta bukatu zuten partida hura, etxean orain arte jokatu duten azkena. Bada, jopuntua findu eta bekokia alaitzeko abagunea dute gaur, defentsan asko sufritzen ari den talde baten kontra: 23 gol sartu dizkiote orain arte Granadari, horietatik hamabi bisitari gisa.

Behetik hasita bigarrena da Paco Lopezek zuzentzen duen taldea. Sei puntu pilatu ditu orain arte, Osasunak baino lau gutxiago. Orekaren bila dabil Espainiako taldea, erasoan gauzak txukun ari baita egiten: lehen sei sailkatuak kenduta, Granada da gol gehien egin duen taldea: hamabost. Mehatxu nagusia, ezbairik gabe, Bryan Zaragoza da. Hegaleko jokalari gaztea aho bete hortz ari da uzten eliteko futbola, aurkariak gainditzeko sekulako erraztasuna baitu. Gainera, ez da kamutsa ate aurrean: bost gol sartu ditu orain arte. Bartzelonari bi sartu zizkion azken jardunaldian, eta gertu izan zuen hirugarrena. Haren ekarpenari esker, meritu handiko puntua lortu zuen Granadak. Hazita dator Paco Lopezen taldea.

### Bizitasunaren garrantzia

Osasunak azken neurketako itxura hobetu beharko du, oso eskas aritu baitzen Real Madrilen zelaian. Moi Gomezek eta Mojicak ezin izan zuten jokatu, baina onik daude berriro, eta Jagoba Arrasatek deialdian sartu ditu gaurko partidarako. Pablo Valencia Osasuna B-ko atezaina ere hautatuen artean dago. Aldiz, Arnaiz eta Unai Garcia ez daude eskuragarri, arazo fisikoak direla eta. Atzelari nafarrak luze darama min hartuta, eta aurki hasiko da normal entrenatzen.

Arrasatek atzo azaldu zuenez, «analisi eraikitzailea» egin zuten Santiago Bernabeun astindua hartu ondoren. «Alor taktikoan jarri genuen arreta, baina intentsitateaz ere hitz egin genuen». Teknikari bizkaitarraren ustez, taldeak «zakarragoa» izan behar du. «Zintzoak gara, eta ondo dago, baina aurkariak deseroso sentiarazi behar ditugu».

Ligan izandako bigarren geldialdiak on egin omen die, eta, orain, etxean irabazteko garaia dute: «Partida onak egin ditugu Sadarren, baina oraindik ez dugu garaipenik lortu, hori da errealitatea; eta, horregatik, Granadaren kontrako lehiak garrantzi handia du».

Osasuna bere bertsiorik onenera hurbil dadin nahi du Arrasatek. «Atletico Madrilen aurka bezala aritu behar dugu». Gorritxoei ez omen zaie kolpe trukerik komeni. «Gidoia hori bada, sufritu egingo dugu». Izan ere, jakitun dago Granadak aurrean duen joaz. «Talde ausarta da, Paco Lopezek zuzendu dituen besteak bezala. Oso sendo egon beharko dugu zelaian».

**OSASUNA-GRANADA**

**Osasuna.** Herrera; Areso, Catena, David Garcia, Juan Cruz; Moncayola, Torro, Aimar; Chimy Avila, Budimir eta Ruben Garcia.
**Granada.** Ferreira; Ricard Sanchez, Miguel Rubio, Ignasi Miquel, Neva; Zaragoza, Gumbau, Villar, Puertas; Uzuni eta Boye.
**Epailea.** Busquets Ferrer.
**Lekua.** Sadar (23.500 ikusle).
**Ordua.** 21:00 (Gol eta Dazn).


**Osasunako Budimir eta Aimar Oroz, Sevillako Baderekin lehian.** JESUS DIGES / EFE




MAIALEN ANDRES / FOKU

# «Erabaki zaila zen, baina kasu honetan bihotzak erabaki du»

**Joseba Fernandez** • San Juan arraun taldeko entrenatzailea

Aurreko denboraldian, igoeraren atarian geratu zen Lapurdirekin; orain, etxeko taldearekin saiatuko da. Joseba Fernandez San Juanera itzuli da, garai bateko maila berreskuratzeko.

**Pettan Uralde**

Lapurdik bere kirol arrakastarik handienak lortu zituen joan den udan, eta denboraldiko ustekabe bihurtu zen. Iparraldeko ontzi horrek bigarren postua lortu zuen KAE1 ligan, eta, ondorioz, maila gorenera igotzeko kanporaketa jokatu zuen. Hori dena, Joseba Fernandezen gidaritzapean (Pasai Donibane, Gipuzkoa 1974). Orain, entrenatzaile pasaitarrak etxerako bidea hartu du. Endika Zalduaren lekukoa hartuko du, eta 2012tik 2016ra maila gorenean zuzendu zuen taldera itzuli da. Metodoa argi dauka, baita helburua ere.

**Argi zenuen etxera buelta egin behar zenuela?**

Ez pentsa. Harreman estua daukat klubeko hainbat kiderekin, eta espero nuen Endikak [Zaldua] jarraitzea. Oso lan ona egin du, baina hura izan da beste toki bat hartu nahi zuena klub barruan, eta hutsune hori geratu zen. Ni ederki nengoen Lapurdin; bi eskaintzari uko egin nien, eta han geratzeko asmoa nuen. Baina etxeko taldeak deitu zidan, lagunak hemen ditut, nire herria da... Azkenean, trainerua ez duzu oso ondo ikusten, eta aldatzeko gai ikusten duzu zeure burua. Erabaki zaila zen, baina kasu honetan bihotzak erabaki du, eta etxera itzuli naiz.

**Presioa sentitu duzu erabakia hartzeko orduan?**

Ez da presio kontua izan. Egia da gogo handia ikusi dudala ni itzultzeko, baina ez dut behar hori sentitu. Ni Lapurdin nengoen, burua igoerako kanporaketetan, eta denbora utzi zidaten erabakia hartzeko.

**Itzuli zara, baina taldeak badu zerikusirik zure aurreko etapakoarekin alderatuta?**

Egoera aldetik ez du zerikusirik. Goi mailan ginen, onenekin borrokan ohorezko txandan. Gaur egun, Bigarren Mailan gaude, eta horri egin behar zaio aurre. Taldea oso gaztea da, baina potentziala igartzen zaio. San Juanek arraunlariak ateratzeko ahalmena dauka, eta horretan gabiltza. Endikak lan bikaina egin du azken urteetan, eta nik jasoko ditudan arraunlarien ehuneko handi bat hark gazte mailan hartutakoak izan dira. Espero dut lan horri etekina ateratzea oraingo etapan.

> **Sanjuandarren izaera edozein lehiaketatan azaltzea nahi dut, eta horren bitartez emaitzak iritsiko dira»**
>
> **Joseba Fernandez**
> San Juaneko entrenatzailea

**Orduan, baduzu aurrerapausoak emateko gaia.**

Noski, eta konbentzituta nago daukagun taldearekin pauso bat emateko gaitasuna daukagula. Horretarako lanean hasi gara dagoeneko, 2024ko denboraldiari aurre egiteko.

**Gainera, erakutsi duzu talde apalekin gauza asko egiteko gai zarela. Espektatibak dituzu aurtengo denboraldirako?**

Ilusio handia sortu dugu herrian. Talde gaztea ikusita, beren ibilbidea ere egin dute, eta lan asko jada eginda dago. Koska bat igotzea tokatzen zaigu, eta aukerak ikusten ditut hori egiteko.

**Lau urterako sinatu duzu. Agian, epe motzera baino gehiago, epe luzera nabarituko dira aldaketak?**

Oso lehiakorra naiz, eta hasieratik sartuko diet izaeran dudan hori. Espero dut lehen urtetik lehiakorra izatea; gero jarriko gaitu emaitzak gure tokian. Baina sanjuandarren izaera edozein lehiaketatan azaltzea nahi dut, eta horren bitartez emaitzak iritsiko dira.

***Izaera* eta *identitate* hitzak behin baino gehiagotan erabili dituzu. Hori berreskuratzea duzu helburu?**

Ez da bat-batean lortuko herri honek betidanik izan duen lehiakortasun izaera hori. Beharbada talde honi falta izan zaiona, aurreko belaunaldikoekin kontaktua izatea. Hori berreskuratzen saiatuko naiz.

**Aurreko denboraldian Lapurdirekin egin zenuena adibide ona izan daiteke San Juanen egiteko?**

Freskoen dugun irudia hori da, baina hemen bertan aurretik egindakoak errepikatzea dut buruan; edo, behintzat, hortik gertu ibiltzea. Bost urtez izan nintzen lehen etapa hartan, eta oso emaitza onak lortu genituen. Ez bakarrik nik zuzendutako gizonen traineruan, baizik eta klub guztiko ontziek. Horretara nahiko nuke gerturatzea gaur egungo egoera. Lapurdirekin egin duguna polita izan da, eta asko gozatu dut. Baina hemen historiak pisu handia du, eta ez da gauza bera eskatuko. Horren altueran egotea tokatuko zaigu.

**Erronka horretarako prest ikusten duzu zeure burua? Arraunean egiteko gai?**

Ikusi dudanarekin, ilusioz eta gogoz gainezka nago. Entrenatuko naiz, urtero egiten dudan moduan, baina nire adinarekin ezinezkoa iruditzen zait ziurtatzea arraun egingo dudan edo ez. 36 urte dira arraunean, eta higadura handia dago. Denborak esango du, baina prest ikusten dut neure burua, eta arraunlari gazteentzat eredu izaten saiatuko naiz.

**Nola ikusten duzu arraunaren egoera?**

Momentu kritikoan gaudela iruditzen zait. Nahiz eta Eusko Label ligako hasierako urteetan bultzada nabaritu zen, denborak aurrera egin ahala eragin hori desagertu egin da. Ez dakit ereduaren eraginez den, baina talde asko ahuldu egin dira. Batez ere, oso indartsuak ez diren taldeak. Lehen, egitura gutxiagorekin gehiago egiterik zegoen, baina gaur egun nekez lortzen da hori.

Zerbait aldatu beharrean gabiltzala iruditzen zait. Orain badakit proposamen edo ideia batzuk sortu direla harrobiak indartzeko, eta irtenbidea ez dakit hor egongo den, baina zerbait aldatu behar da. Arraunlari berrien kopuruari begiratzea besterik ez dago arazoaren berri izateko.




NBAra iristen diren gazteek beti sortzen dute ikusmina. Sasoi honetan izen bat nabarmendu da: Victor Wembanyama. ADAM DAVIS / EFE

Datorren astean hasiko da NBA. Munduko saskibaloi ligarik onenak milioika begirada bereganatzen ditu urtero, Kirolaz haratago doan ikuskizuna emateko prest dira beste behin.

# Izarrak dir-dir egiteko prest dira

**Iñigo Lasa**

NBA bueltan da. Urriaren 25ean itzuliko dira saskibaloi izarrak AEBetako saskibaloi kantxetara, eta apirilaren erdialdera arte zaleak telebistari katigatuta izango dituzte. Partida askoko liga da, eta, txapelduna zein izango den jakiteaz gain, aurtengo denboraldiak ere hamaika arreta gune izango ditu. NBArekin ez dago aspertzerik.

**DENVER NUGGETS**

●●● *Bigarrena nahi dute*

Aurreko sasoian altxatu zuen estreinako aldiz Larry O`Brien garaikurra Denverreko frankiziak. Aurreneko aldiz irabaztea gutxi ez, eta orain bigarrena eskuratu nahi dute erreskadan. Ikusgarri ibili ziren sasoi osoan, ez zuten ahultasun seinalerik eman. Faborito nagusiak ez diren arren, kalitate faltarik ez du Michael Malonek zuzendutako taldeak: Jamal Murray, Nikola Jokic, Aaron Gordon, Michael Porter Jr... Nuggetsen bizkarrezurra dira horiek, eta talde jokalari onez inguratuz gero, zeresana emango dute berriro ere Jokicek eta enparauek. Bigarrenarekin egiten dute amets jada.

**HAUTAGAI NAGUSIAK**

●●● *Bucks eta Celtics, adi*

Milwaukee Bucks eta Boston Celtics dira NBA irabazteko bi hautagai nagusiak, aditu askoren ustez. Massachusettseko taldea ligako loriatsuena da, Los Angeles Lakersekin batera. Baina hamabost urte daramatzate garaikur preziatua altxatu gabe. Iragan sasoian ondo baino hobeto aritu ziren fase erregularrean, baina kanporaketetan behera egin zuten nabarmen. Aho zapore garratz hori kentzen ahalegindukodira.

Giannis Antetokounmpo du Milwaukeek, eta Bostonen antzera aurreko sasoiko arantza ateratzeko asmoarekin kantxaratuko da. Orain dela bi denboraldi txapeldun izan arren, azken bi urteotan ez dira espero bezain ondo ibili kanporaketetan. Aurreko sasoian kolpe gogorra jaso zuten, fase erregularra aurreneko postuan amaitu arren, txapelketatik kanpo gelditu baitziren lehen kanporaketan. Greziako pibotaren gidaritzapean, berriro ere gorenera itzultzen saiatuko da denboraldi honetan Bucks.

**JOKALARI GAZTEAK**

●●● *Wembanyama, fokupean*

Ikusmin handia sortzen da jokalari gazteen debutekin NBAn, eta oraingoan, zalantza izpirik gabe, Victor Wembanyama gaztearengan dago arreta guztia ipinita. Drafteko lehen postua lortu zuen, eta datorren astean egingo du debut ofiziala San Antonio Spurs taldearekin. Aro berri bat hasiko duen jokalaria dela uste dute askok eta askok. Etorkizunean, ligako jokalaririk onena izatera helduko dela uste da, dohainez betetako jokalaria baita. 19 urteko frantziarrak 2'24 metro neurtzen dituen arren, mugikortasun handia du, eta oso ondo moldatzen da baloiarekin. Bertute horien nahasketaren emaitza da Wembanyama gaztea. Halere, belaunaldi horretan ere badira beste izen propio batzuk. Brandon Miller, Scoot Henderson eta Amen eta Ausar Thompson bikiak ere gertutik kasu egin beharreko jokalariak dira.

**ERREKORRAK**

●●● *40.000 puntuen langa*

Inon errekorrak behar bezala ospatzen badira, hori NBAn da. Joan den sasoian erdietsi zuen Lebron Jamesek NBAko saskiratzailerik onena izatea, baina Los Angeles Lakersko izarrak beste erronka bat du orain: 40.000 puntuen langa gainditzea. Gaur-gaurkoz, 38.652 lortu ditu; hau da, 1.348 falta zaizkio marka hori haustekо. Puntu asko diruditen arren, aurreko denboraldian ia 1.600 sartu zituen.

Izena letra larriz idatz dezaketen beste izar batzuk ere badira. Esaterako, Russell Westbrooki bi norgehiagoka falta zaizkio 200 hiruko bikoitz lortzeko. Westbrook onenak emanda dago jada, baina marka oso gertu du.

## Gernikak eta Baskoniak galdu egin dute Europan

**SASKIBALOIA** ● Gernikak ez du ondo hasi bere jarduna Eurokopako multzoen fasean. Bizkaitarrek 69-70 galdu zuten atzo Montpellierren kontra. Frantziarrek azken jokaldian sartu zuten garaipena eman zien hirukoa. Baskoniak, bestalde, 82-99 galdu zuen Euroligan, Zalgirisen kontra. Horrenbestez, garaipen bakarra du lau partidatan.



Ezkurdia eta Peio Etxeberria. I. U. / FOKU

## Ezkurdia eta Peio Etxeberria aurrez aurre, gaur, Bilbon

**PILOTA** ● **Joseba Ezkurdiak eta Peio Etxeberriak ekingo diote Lau eta Erdiko Txapelketako final-laurdenetako ligaxkako bigarren jardunaldiari. Aspeko bi pilotariek elkarren aurka jokatuko dute gaur Bilbon, Deportivo frontoian (21:15, ETB1). Duela 27 urte ez da esku pilota profesionaleko partidarik jokatu pilotaleku horretan.**

**Neurketa garrantzitsua da, biek irabazi baitzuten lehen jardunaldian. Emaitza berberagatik egin zuten: 22-9. Ezkurdiak Iker Salaberria hartu zuen mendean, eta Peio Etxeberriak, Erik Jaka. Biek garaipen bat dute A multzoko sailkapenean, eta bigarrenez irabaziz gero, urrats handia egingo lukete finalerdietarako sailkatzeko. Are gehiago, kontuan hartuta bertan behera geratu dela gaur Altsasun (Nafarroa) Salaberriak eta Jakak jokatu behar zuten neurketa, Aspekoak mindua baitu eskuin eskua. Horren ondorioz, Jakak garaipen bat du ere bai, eta Salaberriak jada ez du aukerarik aurrera egiteko.**

**Ezkurdiak eta Peio Etxeberriak bost aldiz jokatu dute elkarren aurka lau eta erdian, eta beti irabazi du arbizuarrak. Bolada luzatu nahi du batek, eta eten besteak.**



ARRIGURI

# «Esentziara iristeko gaitasuna galdu egiten dugu batzuetan»

**Sara Zozaia** • Musikaria

Bi disko labur argitaratu ostean, 'Nara' lehen lan luzea kaleratu du gaur Sara Zozaiak. Kantu organikoak eta elektronikoak bildu ditu bertan, estilo jakin bakar batera mugatu gabe.

**Julen Korkostegi**

Denbora batez haren berririk izan ez bada ere, ez da geldirik egon Sara Zozaia (Donostia, 1995). Nerabe taldean aritu eta 2019an eta 2020an bakarkako EP labur bana argitaratu ostean (*III* eta *I*), *Nara* hirugarren lanarekin dator orain. Estreinako lan luzea du, eta pozik dago egindako lanarekin. Pazientziaz osatzen dabilen ibilbidean beste aurrerapauso bat eman du, eta, orain arte bezala, ez da inongo etiketa edo estilotara mugatu; guztiari koherentzia emanez, bere proposamen musikala hedatzea lortu du.

**Nolakoa izan da diskoa sortzeko eta grabatzeko prozesua?**

Oso luze joan den sentsazioa dut. Abesti oso desberdinak daude diskoan, eta zaila egiten zitzaidan dena diskoan sartu eta elkarren artean lotzea. Norabide bat emateko, produktore bat behar nuela antzeman nuen, eta estilistikoki zer bideri jarraitu eta abestiak diskoan nola lotu ikusten lagundu zidan Jon Agirrezabalagak.

**Non egin zenuen grabazioa?**

Bilboko El Tigre estudioan. We Are Standard taldeko kidea izan zen Jon, eta, ezagutu nuenetik, harekin egin izan dut guztia. Kanta berriak pasatu nizkionean, norabide interesgarri eta berezia eman zien guztiei.

***III* eta *I* bosna abesti zituzten lan laburrak ziren. Prestaketa eta lan aldetik desberdintasun handia izan al da *Nara*?**

Artista batzuek kontzeptu finko baten bueltan osatzen dute disko osoa, baina nire kasuan ez da horrela izaten; kantu solteak sortu, eta, amaituta daudenean, batera argitaratzen ditut. Oraingoan abesti gehiago sortu ditut, eta horregatik izan da prozesua luzeagoa, abesti kopuruagatik, ez beste ezergatik. Aurrekoaren oso antzerako prozesua izan du guztiak. Hori bai, lan gehiago ekarri didan kontu bat biniloan argitaratzearena izan da. Erabaki sinplea dela eman dezake, baina erabaki mordo bat hartu behar izan ditut. Dena dela, aurrerago CD formatuan ere kaleratuko dut. Argitaratutako hiru bideoklipek ere lan handia eman didate.

**Abestiaren arabera, tresna desberdinek dute protagonismoa. Konposatzeko orduan nola dakizu zer behar duen bakoitzak?**

Diskoan, eta zuzenekoetan ere hala dela esango nuke, bi abesti mota bereiz genitzake: organikoak eta elektronikoak. Lehen multzoan, bandarekin lokalean sortutako abestiak sartzen dira. Kasu horretan, abestia denon artean landu ostean, zuzenekorako forma ematen diogu, eta horrela grabatzen dugu. Bigarren kasuan, tresna elektronikoekin sortutako abestiak dira. Normalean nik bakarrik sortutakoak izaten dira, eta, oinarria eginda, Joni pasatzen dizkiot berak elementu elektronikoak sartzeko. Abestiaren sortze prozesuak baldintzatzen du nolakoa izango den.

***Nara* izenburuak zer esanahi du zuretzat?**

Nire musikak bizitzan eta musikan dudan bizi momentua islatzen du. Pentsatzen eta sentitzen dudana esaten dut haren bidez, eta orain konturatzen naiz nire gurasoek sortu zuten Sara, ume hura, urteak pasatuta nola esentzian berdina den, baina, era berean, beste zerbait den. Bizitako guztiak gure kanpoan dagoen kapa moduko bat ezartzen digu, eta esentziara iristeko gaitasuna galdu egiten dugu batzuetan. Ez da erraza azaltzea, baina Sarari nire bizipen guztiak gehitzen badizkiot, Nara bihurtzen da. Horrela interpretatzen dut nik. Horretaz aparte, Nara Japoniako hiri bat ere bada, eta lotura sentitzen dut hango kulturarekin; asko gustatzen zait, eta horrek ere indartu du izenburua.

**Zer-nolako harrera izan dute diskoa argitaratu aurretik kaleratutako abestiek?**

Abesti bakoitzak eragin desberdina izan du. *Misty* ez da diskoko abesti komertzialena, baina lehen aurrerapen kanta izan zen, katarsi moduko bat izan zen. *Caravan*-ek publiko berria ekarri du nire musikara; oso intentsoa naizela pentsatzen duen jendearengana iritsi da [barrez]. Entzuteko errazagoa da; inprobisazioz sortu nuen, egun bakar batean, eta beste publiko eta soinu batzuetara iristeko leiho bat ireki dit. *Maitia*, berriz, egitea pentsatuta neukan zerbait zen, eta oso pozik geratu naiz emaitzarekin. Bertan islatzen da estilo aldetik nora joan nahi dudan.

**Nola definituko zenuke egiten duzuna?**

*Darkywinky* egiten dudala esaten dut beti. Ez du inolako zentzurik, baina lehenengo elkarrizketa egin zidatenean, hala erantzun nuen, eta hala egiten dut orain ere [barrez]. Nire musika ez da estilo batean markatzen, baizik daukan tonu eta izaera triste malenkoniatsuan. Hortaz, elektronika tristea egiten dut, rock tristea egiten dut, eta, jakina, post-rock tristea egiten dut. Musikak oinarri ilun eta sakona izatea nahi izaten dut, eta

**«Ez dut pop askorik entzun izan, baina asko ikasten da hortik ere, eta ez da erraza pop abesti on bat egitea**

hainbat modutan lor daiteke hori, baina guztiari esperantza puntu bat txertatzen saiatzen naiz. Abestian gertatzen denak du garrantzia niretzat, eta hori gorabehera eta akorde progresioekin lortzen da.

**Beti izan duzu popetik, baina oraingoan gehiago sakondu duzu bide horretan.**

Asko kostatzen zait estruktura aldetik ohiko abesti bat egitea. Niretzat, abesti bat behar duen momentuan hasten eta amaitzen da; ez naiz tematzen lelo bat izan dezan. Pop musikan estruktura zehatzak eta errepikakorrak erabiltzen dira, eta hori egiten erakutsi dit Bengok. *Maitia* aurkeztu nionean, oso bestelakoa zen abestia, eta beste estruktura bat hartu zuen harekin. Ez dut pop askorik entzun izan, baina asko ikasten da hortik ere, eta ez da erraza pop abesti on bat egitea. Askotan, gauzak konplikatu egiten ditugu behar den momentuan ixten ez dakigulako; irekita uztea askoz ere errazagoa izaten da, baina hor asmatu egin behar da.

**Zein da hemendik aurrerako zure helburua? Hasiera berri baten moduan planteatzen duzu?**

Ez zait gustatzen hasiera eta amaierei buruz hitz egitea; zikloka ulertzen ditut gauzak. Ziklo bat izaten da lehenik, eta gero jarraian beste bat, eta horrela. Oraingo zikloa diskoa kaleratzen dudanean amaituko dela pentsatzen dut, eta, abesti berriak sortzen hastearekin batera, beste bat hasiko dut. Momentuan momentukoa egingo dut, eta ikusiko dugu bizitzak zer dakarren. Hala ere, uste dut hau beti nirekin egongo den proiektua izango dela; musika arloan nahi dudana egiteko aukera ematen dit, eta behar dut hori.

@ Elkarrizketa osoa irakurtzeko: **www.badok.eus**




***DA! Pro*** **egitasmoaren aurkezpena, atzo goizean, Bilboko BBK Aretoan.** OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

# Durangoko Azokak 'DA! Pro' topaketa antolatu du, bosgarrenez

## Azaroaren 28an eta 29an egingo dute; profesionalen arteko lankidetza sustatzea izango du xede

**Olatz Enzunza Mallona** *Bilbo*

Aurreko urteetako bideari jarraituz, sortzaileen eta sektoreko profesionalen arteko topaketak sustatzeko programa espezifikoa izango du Durangoko Azokak, bosgarren aldiz: *DA! Pro*. Berez, abenduaren 6tik 10era egingo dute 58. azoka, *Fantasia da!* lelopean, baina, astebete lehenago egingo dituzte jardunaldi horiek: azaroaren 28an eta 29an, hain zuzen. Durangoko bi espazio nagusitan egingo dituzte, goizez: Bizenta Mogel liburutegian eta Plateruena kultur aterpean.

Sektoreko eragileen arteko lankidetza sustatzea da egitasmoaren helburu nagusia, Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteko kudeatzaileak azaldu duenez: «Sortzaileak, programatzaileak eta industriako profesionalak harremanetan jartzea da xede nagusia, badakigulako kultur munduan bidea egitea ez dela batere erraza». Baina topaketa honek baditu aurrera begirako bestelako helburu batzuk ere: «Euskal kultura sendo eta osasuntsu egotea da Gerediaga elkartearen ametsa edo fantasia. Azoka urteroko hitzordu garrantzitsua bada ere, aparteko ekimenak ere beharrezkoak dira».

Zehazki, familia ikuskizunen proposamenak plazaratuko dituzte *DA! Pro*-ren lehenengo egunean: goiz osoz, beren proiektuak aurkeztuko dizkiete sortzaileek sektoreko teknikari eta profesionalei. Bizenta Mogel liburutegia eta Berbaro euskara elkartea izango dira laguntzaile nagusiak.

> **Badakigu kultur munduan bidea egitea ez dela batere erraza: harremanak egitea da xede nagusia»**
>
> **Beñat Gaztelurrutia**
> Gerediaga elkarteko kudeatzailea

Bigarren egunean, berriz, musika izango da ardatz nagusia. 09:00etatik 14:00etara, hamar minutuko aurkezpenak egin ahalko dituzte musikariek, zuzenean, sektoreko profesionalen aurrean. Musika Bulegoaren lankidetzarekin antolatu dute, eta Plateruena kultur aterpean izango dira emanaldi horiek guztiak.

Izena emateko epea irekita dago jada sortzaile eta profesionalentzat. Sortzaileek urriaren 31ra arteko epea izango dute, eta programatzaileek, berriz, azaroaren 27ra artekoa. Kasu guztietan, *www.durangokoazoka.eus* webgunean eman beharko dute izena. Bi baldintza bete behar dira: euskara hutsezkoak izan beharko dute proposamen guztiek, eta aurten argitaratutakoak.

### Katalogoa eta jaialdia

Aurkezpenez gainera, katalogo bat ere sortuko du Durangoko Azokak, jasotako kultur proposamen guztiekin. Katalogo hori programatzaile, teknikari eta bestelako profesionalen eskura jarriko dute, eta, hala, urte osoan izango dute kontratazioak egiteko aukera.

Bestalde, urtarrilaren 27an *MusikaGaz Fest* jaialdia egingo dute bigarrenez Zornotzako Udalak (Bizkaia), Gerediaga elkarteak eta Musika Bulegoak elkarlanean. *DA! Pro* topaketan parte hartuko duten sei talde edo bakarlari arituko dira bertan, baina baldintza bat bete beharko dela aurreratu du Maddi Arana Musika Bulegoko ordezkariak: «*Musika-Gaz Fest*-en parte hartzeko hautatuak izateko, musikariek edo sortzaileek 35 urte baino gutxiago izan beharko dituzte; talde gisa aurkezten badira, berriz, 35 urtetik beherakoak izan beharko ditu partaideen % 80».

Durangoko Azokarekin batera, BBK izango da egitasmoaren babesle nagusia.

> @ Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: **www.durangokoazoka.eus**

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Euskara

DONOSTIAN **EUSKARAZ**

**HAUR AISIALDIA**




**Parketarrak**
Azaroaren 3a arte
Donostiako auzoetan

**Erreka Mari**
Antzerkia
Urria 21 • 17:00
Aiete K.E.

**Perla zirkua**
Antzerkia
Urria 21 • 17:00
Okendo K.E.

**Artea hormara kartelgintza**
Tailerra
Urria 21 • 17:00
San Telmo Museoa

**Eneko eta Ixabel**
Antzerkia
Urria 21 • 17:00
Ernest Lluch K.E

**Auskalo**
Magia
Urria 24 • 18:00
Tomasene K.E.

**EUSKARA +**

**Beldurrola 2023**
**Rol jolasak euskaraz**
Urria 20 • 18:00
Egia k.e
Urria 21,22 • 11:00 – 16:00
Ebla liburudenda

**HITZALDIAK**

**Jasan ala ez jasan**
Urria 20 • 18:00
Egia K.E

**Pantailak Euskaraz "Haurren aurrean helduok heldu" kanpaina**
Urria 21 • 18:00
Jakintza ikastola
Urria 24 • 18:00
Amara Berri ikastetxea (Olaeta)
Urria 26 • 18:00
Zurriola Ikastola

**Nola diseinatu hiri eta etxe bizigarriak ...**
Urria 23 • 19:00
Ernest Lluch K.E

**Cayo Hueso**
Urria 23 • 18:30
Etxarriene

**Alaska eta Irautera**
Urria 25 • 19:00
Egia K.E

**www.donostiaeuskaraz.eus**

BERRIA
Ostirala, 2023ko urriaren 20a

# Euskal artisten lehen mintegia egingo du bihar Lanarteak, Oiartzunen

Mahai inguru bat eta hitzaldi bat antolatu dituzte, besteak beste • Zenbait artistak hartuko dute parte

**Miren Mujika Telleria**



**Dom Campistron irudigilea *Loreak belaunetan. Kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentalaren fotograma batean.** LANARTEA

Madrilen lantzen ari diren Artisten Estatutua izango da hizpide bihar Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak antolatu duen euskal artisten lehen mintegian, Oiartzunen (Gipuzkoa). Besteak beste, estatutu horren gaineko hainbat galdera planteatuko dituzte bertan: Nondik egina da? Nola? Norentzat? Zertarako? Hala eman ditu Amagoia Gurrutxaga Lanarteko koordinatzaileak mintegiaren gaineko azalpenak: «Euskarak harilkatutako kultur sistema da gurea, eta, bi estaturen legeek zamatuta eta hainbat administraziotan zatituta dagoenez, Ipar zein Hego Euskal Herriko artisten esperientziak entzungo ditugu». Izan ere, Lanartearen ustez, «hizkuntza eta kultur sare hegemonikoen neurrira» diseinatutako lege eta estatutuen arabera bizi behar dute euskal artistek.

Horretarako, egitarau zabala osatu dute; 09:00etatik hasita 14:00ak arte. Ordubeteko mahai inguru batekin emango diote hasiera mintegiari. Gurrutxagak azaldu du intermitentzian –Frantziako administrazioan, ikuskizunetako langileen erregimen berezia– lanean ari diren artistak izango direla mahai inguruan parte hartuko dutenak. Hala nola Odei Barroso musikaria, Pantxika Telleria dantzaria eta Maddi Goikoetxea aktore eta idazlea. Moderatzaile lanetan, berriz, Sustrai Colina arituko da. Gurrutxaga: «Hegoaldetik miraz begiratzen zaion sistema da intermitentziarena, eta zertan datzan azaltzen saiatuko gara larunbatean».

Lanarteak gakotzat duen auzi bat izango du mahai inguruak ardatz: prestigioa. «*Estatutu* eta *estatus* hitzak senide direnez, gure gizartean kulturari eta, ondorioz, kulturgileei zein rol eta garrantzi aitortzen zaizkien gogoetatu nahi dugu».

Urteak dira jada Artisten Estatutu bat ari direla lantzen Madrilen. Are, onartu dituzte zenbait neurri eta dekretu ere. Lanartearen ustez, artista multzo bakar bati begirako neurriak dira horiek; zehazki, interpretazioaren arloari begirakoak dira. Begirada zabalago bat proposatzen du Lanarteak: «Sortzaileak ere zainduko dituen estatutu bat aldarrikatzen dugu guk: idazleak, irudigileak, itzultzaileak... horiek ere artistak baitira».

Bada, hain justu, sortzaileez ariko dira mintegiko bigarren atalean. «Zehazki, Hego Euskal Herrian erroldatuta daudenek fiskalitate arloan nozitzen duten anabasari buruz arituko gara», azaldu du Gurrutxagak. Lanarteak Bertsozale, EIE, EIZIE eta Galtzagorri elkarteen laguntzarekin ondu duen proposamen sortaren gaineko azalpenak emango dituzte hitzaldi horretan Xabier Barinaga-Rementeria abokatuak eta Gurrutxagak berak. «Proposamen hori ogasun ezberdinei aurkezteko fasean gaude orain», gaineratu du.

> **Guk uste dugu badugula zenbait arlo hobetzeko tarterik, eta horretaz hitz egin nahi dugu gure artean eta gizartearekin»**
>
> **Amagoia Gurrutxaga**
> Lanartea elkarteko koordinatzailea

Lanarteak duela bi urte ekoitzitako *Loreak Belaunetan. Kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentala proiektatuko dute hurrenik. Gogoetarako tartea ere izango da ondotik, Aner Peritzek eta Maider Arregik gidatuta.

## Euskal artistak aintzakotzat

Kezka batetik abiatu du Lanarteak bihar egitekoa duen mintegia. «Gure arazoak konpontzera etorriko omen den Artisten Estatutu bat iragartzen ari zaizkigu Madrildik, eta estatutu horri buruz orain artean dakigunak zalantza handiak eragiten dizkigu», azaldu du Lanarteko koordinatzaileak. «Zenbait arlotan gure kultur sistemari kalte ere egin diezaioke. Guk uste dugu badugula zenbait arlo hobetzeko tarterik, eta horretaz hitz egin nahi dugu gure artean, eragileekin, gizartearekin».

Lanartearen ustetan, artisten errealitatea kontuan hartu gabe ezin da artisten estatutu bat diseinatu. Horrenbestez, euskal kultur sistema indartuko duen estatutu bat pentsatzen hasi beharra dagoela dio Gurrutxagak. «Oiartzunen ez dugu estatutu bat asmatuko, jakina. 40 urtean egin ez dena ez dugu guk egingo goiz batean, baina bideari ekin nahi diogu».






EPPUR SI MUOVE
Begoña del Teso



# Zaharrak berri ez direnekoak

Gutako askoren abuAruz, ahanzturatik erreskatatzen diren zinema puska eta apur guzti-guztiek merezi dute. Gutakoen arteko makina baten irudiz, filmategi orotan gordeta den zinemak ona izan behar du. Derrigor. Zeluloidea maite-maitez eta kariño osoz gordetzen duten zaindari, ikerlari, esploratzaile aseezinen eskuetan baitago.

Buruan buelta gehiegi eman gabe, bihotzak bultza, prest gaude belauniko jartzeko. Beti. Denborak edo nagikeriak jota baztertu izan dugun egile horietako bat ilunpetatik ateratzea nahikoa da braboka hasteko. Baita, gu pekatariak, aieneka hasteko ere, ez baikinen ezta ohartuak ere sortzaile hori existitzen zenik. Are gutxiago pentsatu bere lanak kabida zuenik gure gordailuetan.

Ba sentitzen dut, abruska erori behar dugu, duzue. Penaz diot muturrekoa galanta gerta daiteke eta. Minez diotsuet, hots, berreskuratzen, bilatzen, erreskatatzen ditugun zinema ale batzuk hondarrak baino ez direla. Errespetuz jaso beharrekoak, hori bai. Garai baten lekukoak izan ziren eta zinema egiteko joandako manerak ekartzen dituzte gurera, gaurko moduekin alderatu ahal izateko. Zineman soberan ondo edo osotoro txarto jardun izan duten guztiek merezi dute, hori bai, hori beti, gure konplizitatea. Gure defentsa sutsua ere...

Izan gaitezen, ordea, errealistak. Denbora igarate krudelak min eta kalte egin ohi die uzta berrietan jasotako ale zahar askori. Denborak ez baitu urrikirik. Ez Zinemarekiko, ez gurekiko.

Ez al gara ba gu zahartzen? Ez al dituzte urteek arrastoak uzten gure azalean, gure burmuinean, gure haragi eta hezurretan? Ba kontu bera zeluloidearekin. Eta gure baitan gertatzen den legez, denbora pasatze hori leunagoa ala basagoa suerta daiteke. Bai gure kasuan bai zeluloidearenean. Bada elegante zahartzen den jendea. Elegante, estiloz. Bai gorputzez bai buruz. Dekadentzia, askotan, ederra gerta daiteke, ez pentsa. Badira, ostera, iragate horrek zimur itsusiz itotakoak.

Badira garaien arteko zubiak airos eta txairo zeharkatu dituzten fotogramak. Badira nabigazio horretan ezkatak galdu dituztenak eta hauts zakarrez bete.

Humanoak garenon kasuan nola, zineman gainbehera fisiko zein psikiko hori ere suertatzen da. Existitzen diren beste zortzi Arteetan (ez ahaztu, Zinema zazpigarrena da, bai, baina Argazkia dugu zortzigarrena. Eta bederatzigarrena Komikia...) erabilitako materialak, euskarriak, baliabideak zaurgarriak badira, are zauritzekoak, kalte eta min hartzekoak, usteltzeko errazagoak dira zinemarenak. Koloreak gero eta hitsagoak bilakatzen dira, ñabardura guztiak galduz. Pelikulatik, gure larruazaletik bezala, leuntasuna desagertzen da. Konturatzen gara, bat-batean, duela 50 urte gurean ez zela zuzeneko soinua erabiltzen, eta dialogoak areto batean bikoiztu egiten zirela filmatu ostean...

Bai, badakit, badira Denborak eta filmak zaindu behar zituzten horien alferkeriak eraginiko hori guztia zaharberritzen duten artistak. Min hartutako fotogramak indarberritzen dituzten primerako zaharberritzaileak. Zeluloidearen kosmetologo diplomadunak.

> **Aitortza erabatekoa merezi du Cecilia Bartolome egile aitzindariari Donostian eskainitako zikloak**

Baina kasu askotan ezina ezinezkoa da gainditzen. Bai fisikoan bai psikikoan. Bada gaizki zahartzen den zinema. Bai, kariñoz saiatzen gara salbatzen. Alferrik. Denbora eta gu geu beren gainetik pasatu izan garelako.

Bai, apur horiekin zinema zikloak osatzen ditugu. Amoroski osatu ere. Baina, orduan ere eta nahi gabe, kaltetu egiten dugu zinema horren memoria. Gaurko pantaila handiak, gaurko aretoetako soinu sistemak hain dira sofistikatuak, ezen pasatutako urteetan sortzaile askok eskura zuten kalitate urriko materialekin eratutako pelikula hori zapuztu, zanpatu egiten duten.

Bestalde, gu ere aldatu gara denboraren poderioz. Ez dut esaten onerako. Ez dut esaten txarrerako. Aldatu, besterik gabe. Eta, maiz gupidarik ez diegu erakusten antigoal hurbileko pelikula horiei.

Zerk eragin ote du/dit gogoeta hau? Aitortza erabatekoa merezi duen Cecilia Bartolome egile aitzindariari Donostian eskainitako zikloak, eta, bereziki, 1978ko bere *Vamonos Barbara* berreskuratze saminak. Gaizki (oso) tratatu du Denborak.

Hala ere, alai gaitezen. Zinema Arkeologia hori ezinbestekoa dugu izan ginena gogoratzeko eta, nahiz eta askok onartu nahi ez, zenbat aurreratu dugun ohartzeko. Iragan baten bozeramaileak dira gaizki zaharkitutako pelikula horiek ere...



**Cecilia Bartolomeren *Vamonos Barbara* pelikulako fotograma.** BERRIA

## 'Artozki-Artezki' erakusketa, gaurtik ikusgai Agoitzen

**ARTEA** • Agoizko kultur etxean (Nafarroa) *Artozki-Artezki* erakusketa inauguratuko dute gaur, 19:00etan, eta azaroaren 4ra arte iraungo du. 2003ko irailean Itoizko urtegia egiteko Artozki herria suntsitu aurretik han ikusgai izan ziren artelanetako zenbait bildu ko ditu, baita garai hartako argazkiak eta eraitsi zituzten herrien memoria gordetzen duten objektuak ere. Bihar, berriz, egun osoko egitaraua izango da Agoitzen.



***Blood* filmeko fotograma.** FEBZA

## Asiarrak nagusi Beldurrezko Zinemaren Astean

**ZINEMA • Urriaren 27an hasi eta azaroaren3ra bitartean, 38 film labur eta 32 film luze proiektatuko dira Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 34. Astean, Donostian. Sebastien Vaniceken *Vermines* filmak emango dio hasiera jaialdiari, eta Junta Yamaguchiren *River* filmak amaiera. Sail ofizialeko 23 filmak Antzoki Zaharrean erakutsiko dituzte, eta Viktoria Eugenian izango dira gainontzeko emanaldi gehienak. Aurtengo jaialdiak sorginkeria izango du gai nagusia, eta Itziar Ituñok eman dio irudia kartel ofizialari.**

## Deep Purple BBK Bilbao Legends jaialdian ariko da

**MUSIKA** • Rock gogorraren historiako izen handienetako bat da Deep Purple taldearena, eta ekainean Euskal Herrian ariko dira, hilaren 14an eta 15ean Bilbon egingo den BBK Bilbao Legends jaialdian. Beste artista batzuk ere iragarri dituzte: Canned Heat, The Screamin' Cheetah Wheelies eta Susan Sanos, tartean.

50 urte Petronor energiaz
ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea
Kanpoan giro freskoa dagoenean etxea aireztatuz gero, toldoak erabiliz gero eta pertsianak itxiz gero, etxebizitzan sartzen den beroa murrizten da.
REPSOL

# Eguraldia

euskalmet
euskal meteorologia agentzia




**GAUR**

# Giro kaskarra

Euria egingo du; tenperatura nabarmen jaitsiko da, eta haizea oso zakar ibiliko da. Goizean, haizeak mendebal-hego-mendebaldetik joko du,eta eguerditik aurrera, mendebal-ipar-mendebaldetik. Gainera, zaparrada ugari izango dira, tarteka mardulak, batez ere itsasertzetik gertu eta ekialdean.

**JOERA**

Igandea, 22

Astelehena, 23

Asteartea, 24



**ITSASOA**

Mendebaldeko haizea ibiliko da, 7ko indarrarekin eta 8ko tarteekin; azken orduetan, 6kora ahulduko da. Arratsaldean itsaso oso zakarra eragingo du. 5-6 metro inguruko olatuak eguerditik aurrera.

| ITSASALDIA | ORDUA | METROAK |
|---|---|---|
| Itsasbehera | 02:17 | 1,29 |
| Itsasgora | 08:31 | 3,81 |
| Itsasbehera | 14:47 | 1,26 |
| Itsasgora | 21:01 | 3,54 |

**ISOBARA MAPA**



| EGUZKIA | SORTU | GORDE |
|---|---|---|
| | 08:31 | 19:21 |

| ILARGIA | EGUNA |
|---|---|
| Ilgora | Etzi |
| Ilbetea | Urriak 28, larunbata |
| Ilbehera | Azaroak 5, igandea |
| Ilberria | Azaroak 13, astelehena |

**BIHAR**

## Fresko baina ateri

Eguraldiak hobera egingo du. Goizean, mendebalde-hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta ostarteak nagusituko dira; arratsaldean, berriz, haizeak iparmendebaldetik joko du, eta hodeiak ugarituz joango dira. Tenperatura maximoak 17-20 gradu ingurukoak izango dira; Arabako eta Nafarroako zenbait tokitan bost gradu ingurukoak izan daitezke.

**HAMAIKA**

**07:00:** Hamaika 24. **07:30:** EH24. **08:00:** Miru. **08:30:** Hamaika 24. **09:00:** EH 24. **09:30:** Hamaika 24. **10:00:** EH24. **10:30:** Hamaika 24. **11:00:** Musika zuzenean. **11:30:** KZK News. **12:00:** Gurean gaur kronika. **14:00:** Eguerdian gaur. **14:30:** Araba gaur. **15:00:** Musika zuzenean. **15:30:** 11 leiho. **16:30:** Bizi musika. **17:00:** Arratsaldean gaur. **17:30:** Hamaika 24. **18:00:** Arratsaldean gaur. **18:30:** Hamaika 24. **19:00:** Arratsaldean gaur. **19:30:** Hamaika 24. **20:00:** KZK News. **20:30:** Eguerdian gaur. **21:00:** Araba gaur. **21:30:** KZK News. **22:00:** Musika zuzenean. **22:30:** M ama eme ume. **23:00:** Bizi musika. **23:30:** Musika zuzenean.

**ETB 1**

**06:25:** Marrazki bizidunak. **08:59:** Egun on. **11:00:** Adinberri. **11:40:** Euskal Herritik. **12:10:** In english please. **12:20:** Txoriene. **13:15:** Joseba Argiñano Sukalerrian. **14:00:** Gaur egun. **14:50:** Eguraldia. **15:10:** Iparraldearen orena. **15:30:** EITB Kultura. **16:00:** Mihiluze. **16:50:** Goenkale. **18:00:** Biba zuek!. **19:45:** Eguraldia. **20:00:** Gaur egun. **20:35:** Kirolak. **20:50:** DBH. **21:10:** Pilota. Alberdi-Egiguren V.a. Ezkurdia-P. Etxeberria. **00:05:** Boxeo izarrak. **01:05:** Joseba Argiñano Sukalerrian.

**ETB 3**

**07:35:** Doraemon. **08:50:** 3 Ene Kantak: Atxa Mitxa. **08:55:** Zorionak. **09:00:** Txau-Txau, Txio eta Panda. **09:25:** Helenaren eskola txikia. **09:45:** Kody Kapow. **09:55:** Go!azen. **10:20:** Doraemon eta mundu galdua. **11:55:** Oum, izurde zuria. **12:20:** Doraemon. **13:10:** Presto magia eskola. **13:35:** Kaleko futbola. **13:40:** Squish. **14:05:** Zorionak. **14:10:** Idefix eta menderakaitzak. **14:35:** Kaleko futbola. **14:55:** Mini Ninjak. **15:20:** Aberezoroak. **15:30:** Andu berandu. **15:40:** % 100 otso: Ilargi-harriaren kondaira. **16:05:** Doraemon. **16:50:** Ahizpak. **17:15:** Spirit, zaldi askea. **17:35:** Polly pocket. **17:55:** Super Dino. **18:25:** Mya Go. **18:35:** Remy eta Boo. **18:55:** Milo. **19:15:** Ernst eta Rebeka. **19:40:** Jeremy Super Karibu. **20:00:** Zorionak. **20:10:** Robin Hood. **20:30:** Doraemon Katu kosmikoa. **21:20:** Marmota borrokalariak. **21:40:** Gadget inspektorea. **22:05:** Lakebottom kanpamentua. **22:25:** Mutil Neska Txakur Katu Sagu Gazta. **22:45:** Lan bitxiak.

**KANALDUDE**

**12:10:** Harri salda. **19:00:** Eketa. Xiberoko ekonomia.

**Hollywood**

**12:00:** Un romance muy peligroso. **14:00:** Recién casados. **15:40:** Flashdance. **17:20:** El rey Arturo. **19:25:** Harry Potter y el cáliz de fuego. **22:00:** El corredor del laberinto.

**AMC**

**12:05:** Matar a Santa. **13:45:** El golpe. **16:00:** Máximo riesgo. **17:55:** Estado de sitio. **19:55:** Resistencia. **22:10:** Una noche de venganza. **23:50:** Stargate, puerta a las estrellas.

euskaltel

## ETB 2

**07:00:** Boulevard. **09:00:** EITB kultura. **09:30:** Eusko Legebiltzarreko kontrol batzordea. **10:25:** A bocados. **11:30:** En Jake. **13:55:** Atrápame si puedes. **14:58:** Teleberri. **15:35:** Kirolak. **16:05:** Eguraldia. **16:30:** Esto no es normal. **17:40:** Dinero a saco. **18:40:** Quédate con Ane. **20:05:** A bocados. **21:00:** Teleberri. **22:05:** Eguraldia. **22:30:** Akelarre. **00:00:** Zinema. Hijos.

## ETB 4

**10:10:** Yo sé más que tú. **11:50:** Date el bote. **12:40:** Lingo. **13:35:** Euskolegas. **15:05:** Mi querido Klikowsky. **16:55:** Vascos por el mundo. **17:30:** A bocados. **19:30:** Historias a bocados. **20:25:** Vascos por el mundo. **21:30:** Atrápame si puedes. **22:20:** Zinema. Más fuerte que el olvido. 2018. **23:55:** Zinema. Petra: Día de perros. 2020. **01:20:** Asesinatos en la alta sociedad. **02:50:** Mi querido Klikowsky.

## La 1

**06:00:** Albisteak. **08:00:** La hora de La1. **10:40:** Mañaneros. **14:00:** Albisteak. **14:10:** Ahora o nunca. **15:00:** Albisteak. **16:30:** Salón de té La Moderna. **17:30:** La promesa. **18:30:** Premios Princesa de Asturias. **20:00:** Aquí la tierra. **21:00:** Albisteak. **21:50:** La suerte en tus manos. **22:05:** Zinema. Conexión Estambul. **23:30:** Zinema. La suerte de los Logan. **01:20:** Victoria.

## La 2

**10:55:** Dokumentalak. **12:55:** Zinema. Ursus. **14:20:** Dokumentalak. **15:45:** Saber y ganar. **16:30:** Dokumentalak. **18:10:** El escarabajo verde. **18:40:** Dokumentalak. **19:55:** Atención obras. **20:30:** Dias de cine. **21:25:** Plano general. **22:05:** Zinema. Bella de día. **00:05:** Zinema. El angel exterminador.

## Antena 3

**06:15:** Albisteak. **08:55:** Espejo público. **13:20:** Cocina abierta de Karlos Argiñano. **13:45:** La ruleta de la suerte. **15:00:** Albisteak. **15:45:** Amar es para siempre. **17:00:** Pecado original. **18:00:** Y ahora Sonsoles. **20:00:** Pasapalabra. **21:00:** Albisteak. **22:10:** La Voz.

## Tele 5

**07:00:** Albisteak. **08:55:** La mirada crítica. **10:30:** Vamos a ver. **15:00:** Albisteak. **15:30:** Kirolak. **15:45:** Así es la vida. **17:00:** TardeAR. **20:00:** Reacción en cadena. **21:05:** Albisteak. **22:00:** Zinema. Desaparecida sin rastro. **00:30:** Zinema. La conspiración de noviembre.

## La Sexta

**07:00:** Aruser@s. **11:00:** Al rojo vivo. **14:30:** Albisteak. **15:45:** Zapeando. **17:15:** Más vale tarde. **20:00:** Albisteak. **21:20:** Eguraldia. **21:30:** La sexta columna. **22:30:** Equipo de investigación. **02:50:** Pokerstars.

## Cuatro

**07:25:** Heldt. **09:20:** Alerta Cobra. **12:30:** En boca de todos. **14:50:** Kirolak. **15:30:** Todo es mentira. **18:00:** Cuatro al día. **20:45:** Kirolak. **20:55:** Eguraldia. **21:05:** First dates. **22:00:** Zinema. Las aventuras del Doctor Dolittle. **00:10:** Zinema. Una aventura extraordinaria.

## TF1

**11:50:** Les douze coups de midi. **13:00:** Journal. **14:00:** Telefilma. Ados sans limites. 2022. **15:40:** Telefilma. Adolescence volée. 2021. **17:30:** Familles nombreuses: la vie en XXL. **18:30:** Ici tout commence. **19:10:** Demain nous appartient. **20:00:** Journal. **20:50:** Errugbia. Munduko Kopa. Argentina-Zeelanda Berria. **23:20:** Vendredi, tout est permis avec Arthur.

## France 2

**11:55:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **13:55:** Ça commence aujourd hui. **16:15:** Affaire conclue, tout le monde a quelque chose à vendre. **18:00:** Tout le monde a sont mot à dire. **18:35:** N'oubliez pas les paroles. **20:00:** Journal. **20:50:** Un si grand soleil. **21:10:** Les petites meurtres d'Agatha Christie. **22:50:** Taratata 100 % Live. **01:05:** Parlement.

## France 3

**12:00:** Le journal des solutions. **12:25:** Ici 12/13. **12:55:** Météo à la carte. **14:40:** Tandem. **16:45:** Duels en familles. **17:00:** Slam. **17:45:** Questions pour un champion. **20:00:** Tout le sport. **20:40:** Aux jeux, citoyens!. **21:10:** 300 choeurs. **23:10:** La vie secrète des chansons.

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

## EKITALDIAK

**ARRASATE** *Anonyme popular*. Igor Elortza & Rafa Rueda.
●*Gaur, 20:00etan, Kulturaten.*

**BERMEO** Anari.
●*Gaur, 21:00etan, Nestor Basterretxean.*

**BERRIZ** *Andereño*. Anita Maravillas taldearen antzezlana.
●*Gaur, 17:00etan, kultur etxean.*

**BILBAO** The Slavers.
●*Gaur, 21:00etan, Azkenan.*

**DONOSTIA** Duo Jade.
●*Gaur, 20:00etan, Altxerrin.*

**DONOSTIA** Rupatrupa.
●*Gaur, 21:00etan, Dokan.*

**DURANGO** Bertso jaialdia. Eneko Abasolo, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio eta Gorka Pagonabarraga.
●*Gaur, 22:30ean, San Agustinen.*

**ELGOIBAR** *Tabuen kutxatik oholtzara* bertso saioa. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Nerea Ibarzabal.
●*Gaur, 19:00etan, antzokian.*

**GASTEIZ** Tonino Carotone.
●*Gaur, 20:00etan, Urban Rocken.*

**GETXO** *Zarra*. Adriana Bilbaoren ikuskizuna.
●*Gaur, 20:00etan, Muxikebarrin.*

**IRUÑEA** *Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa*. Tartean Teatroaren antzezlana.
●*Gaur, 19:30ean, Txantreako auzo etxean.*

**MIARRITZE** Hamza.
●*Gaur, 20:00etan, Atabalen.*

**ORDIZIA** *Argia, koloreak eta teknologia*. Michele Mudugnoren hitzaldia.
●*Gaur, 19:00etan, Barrenan.*

**TOLOSA** Krin eta Horzdun.
●*Gaur, 22:00etan, Bonberenean.*

**URRUÑA** *Sorgin ehiza bat Euskal Herrian, 1609an. Zergatik?*. Beñat Zintzo Garmendiaren hitzaldia.
●*Gaur, 18:30ean, Urtubiako gazteluan.*

Agenda osoa ikusteko, hemen duzu **www.berria.eus**-erako lotura

# Zinema



***Los asesinos de la luna / Killers of the Flower Moon* filma.**

## Araba

### Gasteiz

**FLORIDA.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
Al otro lado del río y entre los árboles 21:30
**Bidasoa 2018-2023 (JBA) 22:05**
Cerrar los ojos 18:55
Chinas 17:00
El legado 17:30 19:30
Golpe de suerte 19:30
La isla roja 17:00 21:30
La patrulla canina 17:30
Los asesinos de la luna 17:00 19:00 21:00
Me he hecho viral 17:00 19:45 21:00
Mi otro Jon 17:15 21:45
O corno (JBA) 19:30 21:30
Sound of Freedom 19:30 22:00
Vermeer: La mayor exposición de... 17:00

**GORBEIA ZINEMAK.** Ikuslearen eguna: asteartea.
Campeonex 17:15
Chinas 17:00
El exorcista: Creyente 22:10
El reino animal 19:00 21:35
La patrulla canina 17:00 18:00
Los asesinos de la luna 17:05 19:25 21:00
Me he hecho viral 17:10 19:45 22:25
Mi otro Jon 17:00 19:35
Misterio en Venecia 19:45 22:00
Saw X 20:00 22:25
Sound of Freedom 17:00 19:35 22:10
Taylor Swift 19:15
The Creator 17:00 21:45

**YELMO BOULEVARD.** Ikuslearen eguna: osteguna.
Campeonex 19:40
El exorcista: Creyente 17:30 20:00 22:30
La monja 2 17:30
La patrulla canina 16:00 17:15 18:15 20:15 20:35
Los asesinos de la luna 17:00 18:00 20:00 21:00
Los mercen4rios 22:40
Me he hecho viral 17:30 19:45 22:00
Mi otro Jon 17:15 19:45 22:15
Misterio en Venecia 22:00
Saw X 17:30 20:00 22:30
Sound of Freedom 17:00 19:40 22:20
Taylor Swift 18:00 21:15
The Creator 17:00 22:15

**Amurrio.** Amurrio antzokia. La odisea de los giles. 18:00.

## Bizkaia

### Bilbo

**COLISEO CINESA ZUBIARTE.**
Ikuslearen eguna: astelehena.
Campeonex 16:25 19:10
El exorcista: Creyente 16:50 19:20 21:50
La monja 2 21:55
La patrulla canina 15:45 17:20 18:20
Los asesinos de la luna 16:40 19:30 21:00
Los asesinos de la luna (JBA) 20:30
Me he hecho viral 16:00 19:20
Mi otro Jon 16:00 18:45 21:30
Saw X 16:35
Taylor Swift (JBA) 18:00 21:45
The Creator 21:40

**GOLEM ALHONDIGA.**
**Bidasoa 2018-2023 (JBA) 19:45**
Cerrar los ojos 19:00
Chinas 17:15
Dispararon al pianista (JBA) 22:20
Film sozialak 17:00 19:00 21:30
Golpe de suerte 16:30 17:00 20:30 22:30
La patrulla canina 16:30 18:30
Los asesinos de la luna 16:30 18:30
Los asesinos de la luna (JBA) 20:30
Mi otro Jon 17:10 19:45 22:20
Misterio en Venecia 22:20
Monstruo 22:20
O corno (JBA) 17:30 19:45 22:20

**MULTICINES.** Ikuslearen eguna: astelehena.
Al otro lado del río y entre los árboles 19:45 22:15
El legado 17:30 20:00 22:30
Golpe de suerte 20:00
La isla roja 17:15 19:45 22:00
Los asesinos de la luna 16:45 19:00
Me he hecho viral 17:00 20:00 22:15
Mi otro Jon 17:15 22:00
Sound of Freedom 17:15 19:45 22:00
Vermeer: La mayor exposición de la... 17:30

### Barakaldo

**COLISEO CINESA MAX OCIO.**
Ikuslearen eguna: astelehena.
Campeonex 20:20
El exorcista: Creyente 16:30 19:15 22:15
El reino animal 18:30 21:20
Elemental 16:00
La patrulla canina 15:50 17:00 18:10 19:10
Los asesinos de la luna 16:40 18:05 19:00 20:05 21:00
Los asesinos de la luna (JBA) 16:20 20:40
Los mercen4rios 15:45
Me he hecho viral 15:45 17:45 21:45
Mi otro Jon 16:05 18:50 21:35
Sound of Freedom 15:50 18:45 21:20
Taylor Swift (JBA) 18:00 21:45
The Creator 16:20 21:40

**YELMO MEGAPARK.**
Campeonex 17:00
El exorcista: Creyente 20:05 21:45 22:30
Golpe a Wall Street 17:15
La monja 2 22:05
La patrulla canina 17:00 17:30 18:00 20:00
Los asesinos de la luna 17:00 20:00 21:30
Los mercen4rios 22:20
Me he hecho viral 18:00 19:10 20:10
Mi otro Jon 19:35 22:15
Misterio en Venecia 17:45
Saw X 22:10
Sound of Freedom 17:00 19:45 22:30
Taylor Swift 19:00
The Creator 19:40 22:20

### Basauri

**SOCIAL ANTZOKIA.**
Chinas 20:00

**Durango.** Zugaza. Mi otro Jon. 18:30. 21:00. Sound of Freedom. 18:30. 21:00. Los asesinos de la luna. 19:00.

### Getxo

**LAUREN GETXO.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
Chinas 17:00
El legado 17:00 20:00
La patrulla canina 17:30 19:45
Los asesinos de la luna 17:00 19:00
Me he hecho viral 17:10
Mi otro Jon 17:00 19:45
O corno (JBA) 19:40
Sound of Freedom 19:30

### Leioa

**YELMO PREMIUM ARTEA.**
Campeonex 17:00
El exorcista: Creyente 19:40 22:10
La patrulla canina 17:20 17:50 19:20 20:30
Los asesinos de la luna 17:00 20:00 21:00
Me he hecho viral 18:15 20:15
Mi otro Jon 19:30 22:00
Misterio en Venecia 17:30
Saw X 22:20
Sound of Freedom 17:15 19:50 22:30
Taylor Swift 18:00 21:15
The Creator 17:10 21:30

### Portugalete

**DOCK BALLONTI.**
El exorcista: Creyente 18:15 22:05
La patrulla canina 16:00 17:30 18:30 19:45
Los asesinos de la luna 16:30 19:00 21:15
Me he hecho viral 16:15 18:00 20:10
Mi otro Jon 16:15 20:20 22:30
O corno (JBA) 20:10
Saw X 22:30
Sound of Freedom 16:00 22:10
Taylor Swift 19:15
The Creator 16:30 22:05

### Santurtzi

**SERANTES.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
La patrulla canina 18:00
Los asesinos de la luna 18:00
Me he hecho viral 20:30

**Zalla.** Me he hecho viral. 20:00.
**Zornotza.** Zornotza aretoa. Chinas. 20:00.

## Gipuzkoa

### Donostia

**ANTIGUO BERRI.** Ik. eguna: asteazkena.
Al otro lado del río y entre los árboles 21:15
Cerrar los ojos 17:00 19:30
El exorcista: Creyente 20:30
Golpe de suerte (JBA) 17:00 19:00 22:30
La isla roja 17:00 19:30
La isla roja (JBA) 22:00
La patrulla canina 16:30 17:30 18:00
Los asesinos de la luna (JBA) 16:45 18:30 20:30
Los colonos (JBA) 20:00 22:00
Me he hecho viral 16:30 18:30 20:30
Misterio en Venecia 22:30

**CINESA GARBERA LUXE.**
Campeonex 16:55
El exorcista: Creyente 16:00 20:00 22:35
La patrulla canina 15:45 17:10 18:05 20:25
Los asesinos de la luna 16:40 19:30 21:00
Los asesinos de la luna (JBA) 20:35
Me he hecho viral 15:55 18:25 22:40
Misterio en Venecia 16:25
Saw X 22:00
Taylor Swift (JBA) 18:00 21:45
The Creator 18:55

**PRINCIPE.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
**Bidasoa 2018-2023 (JBA) 17:15 22:30**
Campeonex 16:45
Cerrar los ojos 19:15 21:00
Chinas 19:45 22:15
Dispararon al pianista 19:15
Golpe de suerte 16:45 19:30 21:45
La patrulla canina 16:30 17:30 18:30
Los asesinos de la luna 16:30 18:45 20:30
Me he hecho viral 19:00 20:30 22:30
Mi otro Jon 17:15 19:45 22:15
Misterio en Venecia 17:00
Monstruo 21:45
Sound of Freedom 16:45 19:30
Sound of Freedom (JBA) 22:15
The Creator 17:00

**TABAKALERA.**
El sueño de la sultana 19:00

**TRUEBA.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
El reino animal 16:30
El reino animal (JBA) 19:00 21:30
O corno (JBA) 17:00 19:15 21:30

**Beasain.** Usurbe. La patrulla canina. 18:00. Sound of Freedom. 20:00.

### Errenteria

**NIESSEN ZINEMAK.**
El exorcista: Creyente 21:45
La patrulla canina 17:15
Los asesinos de la luna 17:05 19:00 21:00
Me he hecho viral 17:20 22:25
Mi otro Jon 17:00 19:35 22:05
O corno 17:15 19:30
Sound of Freedom 19:20 22:00
Taylor Swift 19:15
Vermeer: La mayor... 17:00

### Irun

**OCINE MENDIBIL.**
El exorcista: Creyente 20:15 22:20
Golpe de suerte 22:30
La patrulla canina 16:00 17:00 18:15
Los asesinos de la luna 16:30 18:45 20:30
Me he hecho viral 18:30 20:30
Mi otro Jon 15:50 22:30
Ninja Turtles: Caos mutante 16:00
Saw X 22:45
Sound of Freedom 16:00 17:45 22:30
Taylor Swift 18:00
The Creator 20:15

**Lazkao.** Me he hecho viral. 20:15.
**Oñati.** Cerrar los ojos. 22:00.
**Ordizia.** Herri antzokia. Sound of Freedom. 20:30.

### Usurbil

**CINESA URBIL.**
Campeonex 16:05 18:30
El exorcista: Creyente 15:50 19:20 22:00
La patrulla canina 16:00 18:15 20:25
Los asesinos de la luna 16:40 19:30 21:00
Los mercen4rios 21:20
Me he hecho viral 15:45 19:00 21:30
Mi otro Jon 15:55 18:45 21:40
Misterio en Venecia 17:00
Saw X 22:30
Taylor Swift (JBA) 18:00 21:45
The Creator 16:20

## Lapurdi

### Baiona

**CGR CENTRE.**
Bernadette 13:45 16:00
DogMan 18:00
Expend4bles 13:40 22:20
Killers of the Flower Moon 14:00 20:30
Killers of the Flower Moon (JBA) 18:15
L'Exorciste - Dévotion 15:40 22:30
La Nonne: La malédiction de Sainte... 13:45 22:35
La Pat' Patrouille: La Super... 16:00 18:00
Le Consentement 13:40 18:00
Le règne animal 18:00 20:10
Les Trolls 3 16:00 18:15 20:20
Les Trolls 3 3D 14:00
Mystère à Venise 22:30
Sacerdote 20:00
Saw X 20:10
The Creator 15:40 22:00
Une année difficile 13:40 16:00 18:00 20:15

**L'ATALANTE.**
Anselm (le bruit du temps) (JBA) 17:15
En bonne compagnie 18:45
L'autre Laurens 16:30
La Fiancée du poète 14:15 18:30
Le Ravissement 14:30
Le règne animal 20:30
Les procès Goldman 16:15 20:45
Lost country (JBA) 19:15
Notre corps 14:00
Un prince 21:15

### Angelu

**MONCINE.**
Bernadette 11:15 16:30 19:00
Expend4bles 16:30 21:15
Killers of the Flower Moon 11:00 17:30 20:00
Killers of the Flower Moon (JBA) 14:00
L'Exorciste - Dévotion 14:00 18:00 21:30
La Nonne: La malédiction de Sainte... 21:30
La Pat' Patrouille: La Super... 18:00
Le règne animal 11:00 16:30 20:30
Les Trolls 3 11:15 14:00 16:00 19:00
Marie-Line et son juge 11:15 14:15 19:00
Mystère à Venise 14:15
Nouveau départ 11:15 14:00 16:00
The Creator 21:15
Une année difficile 11:00 15:00 18:15 20:45

### Donibane Lohizune

**LE SELECT.**
Bernadette 18:30
En bonne compagnie (JBA) 16:00
Expend4bles 18:30
Killers of the Flower Moon 20:00
Killers of the Flower Moon (JBA) 16:00
La Fiancée du poète 16:00
La Nonne: La malédiction de Sainte... 21:00
La Pat' Patrouille: La Super... 18:30
Le règne animal 15:45 20:45
Les Trolls 3 20:45
Marie-Line et son juge 18:30
Une année difficile 15:45 21:00

**Getaria.** Getari Enea. Mal viver (JBA). 14:15. L'autre Laurens. 16:45. En bonne compagnie (JBA). 19:00. Lost in The Night (JBA). 21:00.
**Kanbo.** Aiglon. Bernadette. 18:00. Une année difficile. 20:30.

### Miarritze

**ROYAL.**
Bernadette 16:45 18:45
Echos & Georges Greenough... (JBA) 20:30
En bonne compagnie (JBA) 18:15
Entre les lignes (JBA) 13:45
La comédie humaine (JBA) 14:00
La Fiancée du poète 16:15
Le Consentement 20:55
Le procès Golman 17:25
Le Ravissement 15:40
Linda veut du poulet! 19:30
Une année difficile 14:00 20:30

**Urruña.** Itsas Mendi. Le procès Golman. 14:00. Les feuilles mortes (JBA). 16:00. N'attendez pas trop de la fin du monde (JBA). 17:30. En bonne compagnie (JBA). 20:15.

## Nafarroa

### Iruñea

**GOLEM BAIONA.** Ik.eguna: asteazkena.
El exorcista: Creyente 22:30
Golpe de suerte 16:20 18:25 20:30 22:30
La patrulla canina 16:30 17:30
La voz del sol 17:30 22:30
Los asesinos de la luna 16:30 18:30
Los asesinos de la luna (JBA) 20:30
Mi otro Jon 17:00 19:30 22:30
Misterio en Venecia 22:30
To the Hills and Back + La Verte... 20:00

**GOLEM LA MOREA.** Ikuslearen eguna: astelehena.
Campeonex 17:00
El exorcista: Creyente 17:15 20:00 22:30
El reino animal 17:00 19:45 22:30
Elemental 16:15
Juego prohibido 17:00 19:45 22:30
La monja 2 22:30
La patrulla canina 16:30 17:30 18:25 19:45 22:30
Los asesinos de la luna 16:30 18:30 20:30
Me he hecho viral 16:15 18:20 20:25 22:30
Mi otro Jon 17:00 19:45 22:30
Misterio en Venecia 20:25 22:30
Saw X 22:30
Sound of Freedom 17:00 19:45
Taylor Swift 18:00 21:30
The Creator 19:45 22:30

**GOLEM YAMAGUCHI.** Ikuslearen eguna: asteazkena.
Al otro lado del río y entre los árboles 17:15 20:15 22:15
Cerrar los ojos 17:00 19:15
Chinas 17:00 19:45 22:15
Dispararon al pianista 22:15
La isla roja 17:00 22:15
Monstruo (JBA) 19:45
O corno (JBA) 16:15 18:20 20:25 22:15

### Lizarra

**LOS LLANOS.**
Me he hecho viral 20:15
Mi otro Jon 20:15

### Tutera

**OCINE.**
Campeonex 17:50
El exorcista: Creyente 18:00 21:30
Golpe a Wall Street 18:10
La monja 2 22:15
La patrulla canina 18:00 20:00
Los asesinos de la luna 18:30 20:15 21:15
Los mercenarios 22:00
Me he hecho viral 18:20 20:20
Mi otro Jon 18:45 22:20
Misterio en Venecia 20:15
Saw X 20:20 22:40
Sound of Freedom 17:50 20:10 22:35
Taylor Swift 18:00
The Creator 22:25

### Uharte

**YELMO ITAROA.** Ik. eguna: osteguna.
Campeonex 17:15 19:45
El exorcista: Creyente 19:30 21:25 22:00
Expend4bles 17:00
Golpe a Wall Street 17:25 19:15 22:10
La monja 2 22:15
La patrulla canina 17:20 18:00 19:45 20:00
Me he hecho viral 18:05 20:15 22:25
Misterio en Venecia 19:10 21:20
Saw X 17:05 19:35 22:05
Sonido de libertad 17:00 19:40 22:20
Taylor Swift 18:00 21:15
The Creator 17:10 19:50 22:30
Todos los nombres de Dios 17:05

### Viana

**LAS CAÑAS.**
Campeonex 19:25
El exorcista: Creyente 17:00 22:00
Golpe de suerte 17:10
La patrulla canina 17:30
Los asesinos de la luna 17:00 19:20 21:00
Me he hecho viral 17:15 19:45 22:25
Mi otro Jon 17:00 19:30 22:00
Misterio en Venecia 17:15 21:35
O corno 19:30 21:45
Sound of Freedom 17:00 19:35 22:10
Taylor Swift 19:15
The Creator 17:00 21:45
Vermeer: La mayor... 19:30

## Nafarroa Beherea

**Donibane Garazi.** Le Vauban. Acide. 18:00. Les procès Goldman. 21:00.
**Donapaleu.** St. Louis. Expend4bles. 18:00. Une année difficile. 18:00. Bernadette. 21:00. The Creator. 21:00.

## Zuberoa

**Maule-Lextarre.** Baitha. Ez dago emanaldirik.

# Eta zuk, ikusi al duzu 'Itxaso'?



EKOGRAFIAK
Gaizka Izagirre

*Itxaso* telesaila ikusi duzue?», hori da X sare sozialean jaurti dudan galdera. Espero nuen moduan, —nire inguruan ere ez duelako ia inork ikusi/amaitu— erantzunak oso argigarriak izan dira: Bai %12,6, Ez %73,7 eta «bai, baina ez osorik» % 13,7. Badakit sare sozialetan egindako inkestek duten balioa eskasa dela baina, kasu honetan, ikerketa zorrotzagoa egingo banu ere, emaitzak oso antzekoak izango liratekeela susmatzen dut. «Ez edota Bai (baina ez osorik) erantzun duzuenok esango zenukete zergatik?», gehitu nuen: «ez zidan gehiago ikusteko gogorik piztu», «ze tristura, ze atsekabea...», «gidoi kontuak», «Primeran plataformari balio serio bat ematen ez dioten bitartean ez», «Blokeatu egiten da» edota «herri txiki berean biztanle bakoitzak bere euskalkia hitz egitea hautu estetiko bat izan da? Utzikeria? Ustezko exotismoa?».

Eduki eskasa, bereziki gidoia eta hizkuntzaren erabilera, eta arazo teknikoak. Horiek izan dira gailendu diren arrazoiak. Aitortuko dizuet euskarazko telesail batek emaitza negatiboak biltzeak beldur apur bat eragiten didala, aitzakia merke gisa erabili dezaketelako telesail gehiagorik ez sortzeko, eta hori ezin da horrela izan. Euskarazko fikzioak gutxieneko kalitate irizpide batzuk izan beharraren inguruko eztabaida beharrezkoa iruditzen zait; soilik errentagarritasun parametroetan neurtzen hasten bagara, ordea, ez dago zer eginik. Iritzi kaskarrekin nahigabetu egiten naizen arren, are oinazegarriagoa iruditzen zait jendeak ikusi ere ez izana. Hemen tranparik ez mesedez, errua ezin baitzaio ikusleari bota; *Hondar ahoak*-ek zergatik funtzionatu zuen hain ongi? Miraria? Astroak lerrokatu ziren? Ala, beharbada, akaso, kalitatezko edukia izateak lagundu zuen? Agian erratuta nabil eta hauteman ez dudan arrakasta izaten ari da, Primeran-ekoei ikustaldi datuei buruz galdetu diedanean «milaka ikustaldi izan ditu, gehien ikusitako edukia da» erantzun baitidate.

Tira, hemen ari naiz jo eta su besteen iritziak partekatzen, baina «eta zeurea zer?» ariko zarete pentsatzen. Lantaldeko batzuk ezagutzen ditut, Jon Plazaolari bereziki estimu handia diot, horregatik da zaila horrelakoak idaztea. Baina *Itxaso* kaskarra iruditu zait oso, eta guztiz bat nator partekatu diren iritziekin. Ez dut zauriaren gainean *piko* egin nahi; beraz, hemen utziko dut.

# Otamendi eta Petxarroman BERRIAkoak saritu dituzte

Kazetarien elkargoak eta elkarteak aitortza egin diote Otamendiren ibilbideari • Ingurumen kazetaritzaren arloan saritu dute Petxarroman

**Urtzi Urkizu**

Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak Euskal Kazetaritza Sariak banatzen ditu urtero, eta, aurten, Ingurumen Kazetaritzako Saria Iñaki Petxarroman BERRIAko kazetariari emango diote. Ibilbide Profesionalaren Saria, berriz, Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ko eta BERRIAko zuzendari ohiari. Azaroaren 8an egingo dute sariak banatzeko ekitaldia, Bilbon.

Petxarromanek «pozik» hartu du aitortza: «Urte askotako lanaren aitortza da. Aitortza BERRIArentzat berarentzat dela esango nuke, ingurumen gaiei garrantzia eman dielako hasiera-hasieratik». Lasarte-Orian (Gipuzkoa) jaioa da Petxarroman, 1973an, eta urte luzez landu ditu ingurumenarekin lotutako gaiak. «Niri egokitu zait *Egunkaria*-n eta BERRIAn bereziki gai horien berri ematea, eta hori saritu du orain kazetarien elkargoak. Beraz, aitortza kolektibo baten moduan jasoko dut, nahiz eta nire izenean jaso», gaineratu du Petxarromanek.

Otamendik hainbat urtez parte hartu du Euskal Kazetariak sarietako hautagaien izenak ematen, *Egunkaria*-ko eta BERRIAko zuzendari gisa. Azaroaren 8an, ordea, sari bat jasotzea egokituko zaio. Otamendi 1987an hasi zen lanean ETBn, eta hainbat saiotan aritu zen gidoilari, aurkezle eta zuzendari; 1993tik 2003ra, *Egunkaria*-ko zuzendaria izan zen; eta BERRIAN zuzendari aritu da 2003ko ekainetik aurtengo ekainaren amaieran erretiroa hartu duen arte. Hunkituta jaso du sariaren berri: «Beti da pozgarria sariak jasotzea, are gehiago beste komunikabideetako zuzendarien erabakia bada. Oso eskertuta nago kazetari izaten lagundu didaten lankideekin».

**Euskal Kazetariak saria TVEko aurkezle Silvia Intxaurrondori emango diote; bestalde, Ondas sari bat ere jasoko du**

Euskal Kazetariak saria izaten da elkargoak ematen dituen sarien artean nabarmenena. Eta, aurten, sari hori Silvia Intxaurrondori emango diote (Barakaldo, Bizkaia, 1979). Hainbat irratitan eta telebistatan egin du lan Intxaurrondok. 2021etik, TVEko *La hora de La1* saioa aurkezten ari da, goizetan. Ez da udazken honetan Intxaurrondok jasoko duen sari bakarra: Ondas sarietan aurkezlerik onenaren saria lortu du. Azaroaren 22an jasoko du.

Adierazpen Askatasunaren Saria Jordi Evole kazetari kataluniarrak irabazi du, *No me llame Ternera* dokumentalean egindako lanagatik. Ekoizpena Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten.





**Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko eta BERRIAko zuzendari ohia.** G. RUBIO / FOKU



**Iñaki Petxarroman BERRIAko kazetaria.** G. RUBIO / FOKU

**Aitortza SER-Radio Bilbaori**

Komunikabide eta kazetari gehiago ere saritu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkargoak eta elkarteak. Esate baterako, Pertsonaia/Giza Instituzioaren Saria Cadena SER-Radio Bilbaorentzat izan da. Irratiak 90 urte bete ditu berriki.

Kazetaritza Digitalaren Saria, bestalde, Primeran plataformari eman diote. EITB taldeak sortutakoa da, eta euskarazko ikus-entzunezko edukien lehen plataformatzat jo du elkargoak.

Juantxu Rodriguez fotokazetaritzako saria Marivi Ibarrola Errioxako (Espainia) argazkilariari eman diote. Rock taldeen eta artista ezagunen argazkiak atera zituen 1980ko hamarkadan, eta garai hartako hedabide askotan argitaratu ziren; era berean, *Yo disparé en los 80* (Nik 80ko hamarkadan egin nuen tiro) lanean daude jasota.

Iaz, Ohorezko Saria sortu zuen kazetari elkargoak. Lehen aldiz, Martin Ugalde zenari eman zioten. Aurten, sari hori Antonio Alvarez Solis kazetariarentzat izango da —2020ko martxoaren 30ean hil zen—. Madrilgoa izan arren, Alvarez Solisek Euskal Herriko komunikabide pribatu eta publikoetan urte luzez egin zuen lana nabarmendu nahi izan du elkargoak.

«Salbuespen gisa», epaimahaiak Yolanda Alicia kazetari eta Tele 7 katearen sortzaile eta zuzendaria ere saritzea erabaki du. «Kazetaritzan bizitza eman izana» aitortuko diote, «tokiko informazioan oinarritutako hurbileko kazetaritza praktikatuz». Bizkaiko tokiko kate bat da Tele 7.

# Denbora-pasak

## HITZ GEZIDUNAK

▸ Euskaltzaindiko euskaltzain emeritua, nafarra




- 1000 gramo
- Askeak
- Gipuzkoako ibaia
- Familia ondore
- Aiurri oneko
- Arerioak
- Intsektu gorotz jalea
- Sorterria
- Hitzak
- Galioa
- Bokal mehea
- Edo
- Kontso. bustia
- Deitura
- Izena
- Txorrotxioka
- Pl., hedabide mota
- Imajina
- Beldur handia
- 50
- Narkotrafikatzailea
- Taldea
- Lehenengo letra
- Gipuzkoako udalerria
- Tarragonako hiria
- Barrearen onomatop.
- Ganibet
- Burdinola
- Abelen anaia hura
- Erdi hitzaren erdian
- Italiako hiria
- Pl., baratzeko landarea
- Anaia
- Xafla biribil
- Musika tresna
- Zaletasuna
- Itxura, antza
- Titanioa
- AEBetako hiriburua
- Gipuzkoako udalerria
- Handitu
- Egoskin mota
- Errusiako enperadore
- Putrea
- Sufrea
- Arrazoi, zergatiko
- Pl., amaren eta umekiaren arteko lotura organo
- Jatorri atzizkia
- Egile atzizkia
- Osmioa
- Nitrogenoa
- Baratzeko landarea
- Suari dario
- 2
- Tona, labur-labur
- Eguzkia
- Jendaurreko ekitaldietarako gela

## BIKOTEA

Bi irudi baizik ez dira berdin-berdinak. Bereiz itzazu!

A

B

C

D

E

F

G

H


## SUDOKU ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | | | 7 | | 1 | | | |
| 3 | | | 4 | | | | 9 | |
| | | | 6 | | | 8 | | |
| 6 | 7 | | | | | 4 | | 8 |
| | | 2 | | | | 6 | | |
| 8 | | 1 | | | | | 5 | 2 |
| | | 3 | | | 4 | | | |
| | 6 | | | | 8 | | | 3 |
| | | | 1 | | 9 | | | 6 |

## SUDOKU EZ HORREN ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | | | 6 | | | | 9 | |
| | | | | | 9 | 3 | | 5 |
| | | | | 2 | | 6 | | 1 |
| 1 | | | | 7 | 4 | 2 | | |
| | 7 | | 9 | | 2 | | 8 | |
| | | 8 | 3 | 6 | | | | 9 |
| 9 | | 2 | | 4 | | | | |
| 7 | | 6 | 2 | | | | | |
| | 1 | | | | 7 | | | 2 |

## AURREKO ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | I | L | A | K | O | ■ | B | E | M | O | L |
| A | K | A | M | A | R | T | A | R | ■ | D | A |
| I | ■ | K | A | S | K | A | G | O | G | O | R |
| U | P | A | ■ | K | A | P | I | T | A | L | ■ |
| S | A | B | L | E | ■ | I | L | U | N | D | U |
| K | R | E | A | Z | I | O | ■ | A | G | U | R |
| U | T | ■ | B | U | R | K | O | ■ | A | N | A |
| L | I | Z | A | R | R | A | T | A | R | ■ | S |
| A | D | E | I | ■ | I | K | U | R | R | A | K |
| K | A | U | N | A | S | ■ | A | T | A | L | A |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ■ | O | ■ | K | ■ | E | ■ | T |
| O | N | D | A | S | U | N | A |
| ■ | D | E | S | E | G | I | N |
| B | I | K | I | N | I | A | K |
| ■ | K | A | K | A | ■ | G | E |
| G | O | L | ■ | T | S | A | R |
| ■ | ■ | I | Z | A | E | R | A |
| I | Z | T | E | R | R | A | ■ |
| ■ | O | R | G | I | A | ■ | I |
| Z | O | O | A | ■ | F | E | Z |
| ■ | L | ■ | M | A | I | R | U |
| D | O | H | A | I | N | I | K |
| ■ | G | E | R | S | ■ | T | O |
| S | O | L | ■ | E | G | U | R |

Somalia

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 8 | 7 | 1 | 3 | 4 | 2 | 6 | 9 |
| 4 | 1 | 9 | 6 | 7 | 2 | 5 | 8 | 3 |
| 6 | 3 | 2 | 9 | 5 | 8 | 7 | 4 | 1 |
| 3 | 7 | 8 | 2 | 4 | 6 | 9 | 1 | 5 |
| 9 | 2 | 5 | 8 | 1 | 7 | 6 | 3 | 4 |
| 1 | 4 | 6 | 3 | 9 | 5 | 8 | 2 | 7 |
| 8 | 5 | 1 | 4 | 6 | 9 | 3 | 7 | 2 |
| 7 | 6 | 3 | 5 | 2 | 1 | 4 | 9 | 8 |
| 2 | 9 | 4 | 7 | 8 | 3 | 1 | 5 | 6 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 6 | 8 | 9 | 5 | 7 | 3 | 4 |
| 5 | 4 | 3 | 7 | 2 | 1 | 6 | 8 | 9 |
| 9 | 7 | 8 | 6 | 3 | 4 | 2 | 1 | 5 |
| 3 | 8 | 4 | 5 | 7 | 6 | 1 | 9 | 2 |
| 2 | 9 | 7 | 1 | 8 | 3 | 5 | 4 | 6 |
| 6 | 5 | 1 | 2 | 4 | 9 | 8 | 7 | 3 |
| 7 | 6 | 9 | 4 | 1 | 2 | 3 | 5 | 8 |
| 4 | 1 | 2 | 3 | 5 | 8 | 9 | 6 | 7 |
| 8 | 3 | 5 | 9 | 6 | 7 | 4 | 2 | 1 |

# «Oraindik ez dakigu zehazki garunak nola funtzionatzen duen»



**Kepa Paz Alonso • BCBLko ikerlaria**

Burmuinak informazioa eta oroitzapenak gordetzeko erabiltzen dituen konexioez aritu da Alonso, baita memoria trebatzeko egin behar diren metodoez ere: «Gure gaitasun kognitiboa entrenatzea ere garrantzitsua da».

**Itsaso Jauregi**

Burmuina gertutik aztertu du Kepa Paz Alonsok, BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language zentroko ikerlariak (Bilbo, 1974). Irudi eta datuen analisirako teknika aurreratuak erabiliz, Alonsok eta lankideek talamoaren eta kortex prefrontalaren arteko loturak —bien arteko komunikazioa— aztertu dituzte. Funtsezkoak dira memoriarako eta emozioetarako. Emaitzak *The Journal of Neuroscience* aldizkari zientifikoan argitaratu dituzte, eta baliteke etorkizunean aplikazio klinikoa izatea.

**Nola funtzionatzen du memoriak?**

Dena kutxetan banatzen dugu hobeto ulertzeko. Kostako zaigu igandean zer jan genuen gogoratzea; arroza jan genuela esateko, berreskuratze estrategia asko erabiliko ditugu. Kortex prefrontala beharko dugu gogoratzen laguntzeko. Horri memoria episodikoa esaten zaio. Batzuek diote oroimena ahanzturaren beste fase bat baino ez dela. Azkenean dena ahazten da.

**Memoria mota ugari daude?**

Bai. Sailkapen ugari daude. Memoria semantikoa dago: mahai bat zer den badakizu, askotan berreskuratu duzun informazioa delako. Gero, memoria episodikoa dago, gertaera konkretuetan oinarritzen den memoria. Prozedura memoria da beste mota bat, autoa gidatzeko erabiltzen dena, adibidez. Auto bat gidatzen automatikoki ikasi dugu, ez ditugu eman behar diren pauso guztiak pentsatzen.

**Hizkuntza memoria semantikoaren barnean kokatuko zenuke?**

Bai. Deus egin gabe, gai gara hizkuntza kodifikatzeko eta gurasoak ulertzeko. Pixkanaka, hitz egiteko gai izango gara, entzun ditugun hitzak ahoskatuz. Zer gertatzen da irakurtzearekin eta idaztearekin? Ahalegin handia egin behar dugu dena buruz ikasi ahal izateko. Baina praktikatu ondoren prozesua semantizatzen da, eta bizikletan ibiltzea bezala da. Are gehiago, hitz bat aurkezten digute, eta ia ezinezkoa da ez irakurtzea. Funtsezkoa da memoriarako, gogoratzen gai izateko beste bide bat baita.

**Zer eragin dute emozioek memorian?**

Oroitzapen batzuk emozioari esker gogoratzen dira. Ikerketa askok erakusten dute hobeto gogoratzen direla emozioarekin lotuta dauden oroitzapenak. Gurasoak lehoi baten aurrean korrika egiten gogoratzerakoan, emozioarekin gogoratzen da; hori saihestuko duzu, sentitutako beldurraz oroitzen zarelako. Gauza batzuk burmuinean inprimatuta daude: produktu bat gaizki dagoen egiaztatzeko usaintzen denean, adibidez. Askotan pentsatu ere ez duzu egiten, usaintzea instintiboa da. Bizitzaren esperientzian oinarritzen gara.

> **Ikerketa askok erakusten dute hobeto gogoratzen direla emozioarekin lotuta dauden oroitzapenak»**
>
> **«Garunak dituen konexioak jakinda ikus dezakegu zer neurritan modula dezakegun pazientea laguntzeko»**

**Nola gordetzen da informazioa garunean?**

Gauza asko ezezagunak dira oraindik. Ditugun datuak elkartuta, historia apur bat eraiki dezakegu. 1950eko hamarkadan epilepsia zuen paziente bati ebakuntza egin zioten, eta garuneko hipokanpoa kendu zioten: hortik aurrera ez zen memoria berririk gordetzeko gai izan. Beraz, badakigu hipokanpoa oso arlo garrantzitsua dela memoria berriak idazteko orduan. Hipokanpoak garuneko beste eskualdeekin duen lotura ezinbestekoa da oroitzapen berriak ulertzeko.

**Gaur egun memoria gutxiago lantzen dela esango zenuke?**

Gutxiago entrenatzen dugu memoria, eta ez dakigu horrek zer ondorio dituen. Oraindik ez dakigu zer eragin duten teknologia berriek memorian. Bere garaian gure lagunen telefono zenbakiak buruz ikasten genituen, baina gaur egun hori galdu da: den-dena eskuragarri dugu. Teknologiak asko errazten digu bizitza, baina ahalegin pixka bat egitea ere garrantzitsua da. Asko hitz egiten dugu ariketa fisikoa egitearen garrantziaz, gure burmuinarentzat onuragarria delako, baina gure gaitasun kognitiboa entrenatzea ere garrantzitsua da.

**Nola entrena daiteke memoria?**

Modu asko daude. Erosketak egitean, behar duzuna apuntatu zerrenda batean, eta, gero, informazioa berreskuratzen saiatu; gogoratu. Gogoratzen ez bazara, begiratu zerrendari, noski. Hori behin eta berriz egitea oso modu ona da zure memoria optimizatzeko, gero gauza gehiago gogoratuko baitituzu. Ikerlari askok hori frogatu dute; *zure oroimena testatzearen efektua* deitzen zaio, eta gauza gehiago gogoratzea errazten du, bi aldiz gehiago.

**Nola ikertu duzue garuneko eskualdeen arteko konexioa?**

Erresonantziak egin ditugu garuneko eskualdeak lotzen dituzten materia zurizko egiturak ikusteko. Erresonantzia magnetikoari esker, materia zuria gune batetik bestera nola konektatzen den ikusi dugu. Talamo izeneko gunea ikertu dugu batez ere, eta kortex prefrontalarekin dituen konexio guztiak ikusi genituen. Funtsezko gunea da gaixotasun askoren tratamenduan.

**Zer ikusi zenuten?**

Ikusi dugu gizakien kasuan konektibitatea askoz ere masiboagoa dela, baina, nolabait, beste espezieekin alderatzerakoan gizakiaren eboluzioa ere ikus daiteke. Protokolo berri bat sortu dugu eta edozein laborategik erabili dezake talamoaren eta kortex prefrontalaren arteko konexioa aztertzeko.

**Zeintzuk dira protokolo horren ezaugarriak?**

Pertsona erresonantzia magnetikoan sartzen da 15 minutuz. Geldirik egon behar du, besterik ez; ez du arriskurik sortzen. Normalean film bat jartzen diegu ez aspertzeko. Bi sekuentzia mota egiten ditugu garuneko irudi desberdinak biltzeko, egitura besterik ez. Irudi horiek algoritmo desberdinekin aztertuz gero, gai gara burmuinaren egitura hori definitzeko.

**Zein da hurrengo pausoa?**

Oraingoz, egin dugun azterketa egiturarena da. Orain ikusiko dugu nola erreakzionatzen duen garunak irudi zehatz baten aurrean. Garunean dauden konexioak zehaztu ditugunez, hizkuntzarekin eta memoriarekin lotuta dauden



IÑIGO SIERRA / BCBL

prozesuak ikertuko ditugu, horretan konexioek zer eragin duten ikusteko. Ez hori bakarrik, eskizofrenia, alzheimerra, parkinsona, dislexia eta antzeko nahasmendu kimikoekin zerikusia duen eremua ikertzeko aukera izango dugu.

**Depresioa duen burmuinaren eremu horretan zer espero duzu aurkitzea?**

Oraindik nekez ulertu ahal dugu dena. Hemendik aurrera, ikus dezakegu materia zuriko elementu horietatik zein dauden depresioan inplikatuta, adibidez. Nahasmendu kimiko asko daude garun eskualdeen konexio horiekin lotuta.

**Eta konexioak zehaztu eta gero, zer?**

Garunak dituen konexioak jakinda, ikus dezakegu zer neurritan modula dezakegun pazientea laguntzeko. Konexio desberdinen inplikazioa ere ulertu behar dugu, eta, hemendik urte batzuk barru, agian, existitzen diren nahasmenduetan laguntzeko gai izango gara.

**Ikerlana *The Journal of Neuroscience* aldizkarian argitaratu da. Aurkikuntza zientzialariei azaltzeaz gain, garrantzitsua da gizartea ere inplikatzea?**

Oso garrantzitsua da egiten duguna gizarteari itzultzea. Ez egotea laborategietan sartuta kanpoko munduarekin harremanik izan gabe. Kontua da laborategian egiten duguna etorkizunean erabiltzeko aukera izatea.

**Zeintzuk dira neurozientziaren erronka nagusiak?**

Erronka asko daude. Oraindik gainazala urratzen ari gara. Garuna makina konplexua da; denbora asko eta ahalegin handia behar dugu ondorioak ateratzeko, ulertzeko eta ezagutzeko. Pila bat ikasi dugu azken hogei urte hauetan; erresonantzia magnetikoaz geroztik ate pila bat ireki da, eta aurkikuntza asko egon dira.

**Garuna misterio bat da oraindik, beraz?**

Bai. Oraindik ez dakigu zehazki garunak nola funtzionatzen duen. Konplexua da; sistema baskular bat dago, hormona sistema bat, eta sistema anitzen arteko interakzioa. Gainera, zientzialari bakoitza gure kutxatxoan gaude, burmuinaren zati bakarra aztertzen. Hurrengo erronka aurkikuntzak egiten jarraitzea izan beharko litzateke, baina baita sintesia egitea ere. Ikerlariak elkartu, hautsi kutxatxoen eskema hori, gure ezagutza partekatu eta dena laburtu. Bakoitzak utz diezaiola garunari bere mikroskopioarekin begiratzeari.

+

**ARGI ALDIAN**
Lide Arana



EHUko Kimika Aplikatuko irakaslea

# Hemoglobinaren definizioa, zaharkitua?

Proteina ezaguna da hemoglobina, eta funtzioa ere aski ezaguna du. Urte luzez, burdina duen odoleko zelula gorrietako proteina gisa definitua izan da, oxigenoa ehunetara garraiatzeaz arduratzen dena. Dena den, ikerketa berri batek odoletik kanpo hemoglobina identifikatu du eta bertan betetzen duen funtzioa frogatu du, orain arteko definizioarekin bat ez datorrena.

Hemoglobinak oxigenoa garraiatzeko duen gaitasuna duela 150 urte inguru frogatu zuen Claude Bernard-ek. Ondoren, 1904an, Christian Bohr-ek bere izena daraman efektua deskribatu zuen hemoglobinak oxigenoarekin batzeko duen gaitasunaren aldaketak azaltzeko. Izan ere, biriketako baldintzetan, odoleko hemoglobina afinitate handiz batzen zaio oxigenoari; baina biriketatik urrun dauden ehunetan, karbono dioxido kontzentrazioa handia denez, hemoglobinaren oxigenoarekiko afinitatea murriztu egiten da, eta oxigenoa askatu eta karbono dioxidoari lotzen zaio. Bitxikeria bat dirudien efektu horri esker, gai gara arnasten dugun oxigenoa odolaren bidez gorputzeko ehun guztietara garraiatzeko eta ehunetan pilatzen doan karbono dioxidoa atzera, arnasketa bidez, kanporatzeko. Hemoglobinarik gabe, oxigenoa eta karbono dioxidoa ez dira uretan (odolean) ondo disolbatzen, eta ez genuke lortuko behar adina oxigeno eta karbono dioxido garraiatzerik.

Hemoglobina eta mioglobina (muskuluetan oxigenoa metatzeaz arduratzen den proteina) dira ondoen ezagutzen diren eta gehien ikertu diren proteinak. Horiek izan ziren proteina baten lehen 3Dko egitura zehazteko eredu gisa aukeratu ziren molekulak. Gauzak horrela, hemoglobinaren funtzioa eta egitura beste proteina askoren funtzionamendua azaltzeko eredu gisa erabili izan da. Dena den, proteina horren funtzioa beti erlazionatu izan da odolarekin eta, zehatzago esanda, odoleko zelula gorriekin.

Azken urteotan, ordea, hainbat ikerketak frogatu dute hemoglobina, odoleko zelula gorrietatik at, beste zelula mota batzuetan ere topa daitekeela; baina funtzio biologikorik egozteko gai izan ez direnez, aurkikuntza horien garrantzia ez da ondo ulertu izan. Duela bi aste *Nature* aldizkarian argitaraturiko lan batean kartilagoko zelula espezializatuetan, kondrozitoetan, hemoglobinak betetzen duen funtzioa modu zehatzean azaldu dute. Ikerketa horren arabera, hemoglobina ezinbestekoa da zelula horien hazkuntzarako, izan ere, kartilagoan ez dago odol kapilarerik eta, ondorioz, oxigenoaren garraioa oso murritza da. Horrela, kondrozitoetako hemoglobinak oxigeno erreserba funtzioa beteko luke, zelula horien biziraupena bermatuz hazten ari den kartilago ehunetan. Ikusi dutenez, hemoglobina kenduz gero, kondrozitoen heriotza gertatzen da eta, ondorioz, kartilagoaren eta hezurduraren garapena atzeratu egiten da. Ikerlarien esanetan, aurkikuntza horrek beste hainbat prozesu azaltzeko balio lezake, hala nola denbora luzez anemia pairatzen duten pertsonek izaten dituzten kartilagoko arazoak, artritis erreumatoidea kasurako. Dirudienez, artritis erreumatoidea duten pertsonen artean anemia dutenek azaltzen dituzte artikulazioetako arazo handienak, eta anemiaren tratamendu egokiak artikulazioetako arazoak hobetzeko ere balio izaten du.

Ikerketa horrek, beraz, hain ezaguna dugun proteinaren funtzioa eta kokapena uste genuena baino zabalagoa izan daitekela erakutsi digu, eta orain arteko definizioak berrikuspena behar duela iradoki.

berria
Ostirala, 2023ko urriaren 20a
www.berria.eus

Zakilixut © Olariagak




ATZEKOZ AURRERA

# «Abestiak poesia bilduma bat ziren susmoa nuen»

**Ander Lizarralde** • Idazlea

Santurtziko Subversion X punk taldearen abestien hitzak eta elkarrizketak euskaratu ditu Lizarraldek. Argitaratu berri duen liburuan bildu ditu bere kanturik gustukoenak.




BERRIA

**Unai Etxenausia**

*Subversion X euskaraz kontatua* liburua argitaratu berri du Ander Lizarralde idazleak (Oñati, Gipuzkoa, 1982). Gaztetatik entzun ditu Santurtziko (Bizkaia) punk taldehorren kantuak, eta omenaldia egin die liburuaren bidez. Eta, era berean, erakutsi du euskarazko punka ez dela «kamutsa».

**Ezin da Euskal Herriko 90eko hamarkadako punk eszenaz hitz egin Santurtziko Subversion X taldea aipatu barik.**

1980ko hamarkadan loratu zen punka Euskal Herrian, eta 1990eko hamarkadan jarraitu zuten beste batzuek, hainbeste talde ez izan arren. Garai hori ezin daiteke ulertu Subversion X barik. Erreferentziazkoak dira, baina bazterrekoak eta gaiztoak izan dira jende askorentzat.

**Gaztaroan hasiko zinen taldearen musika entzuten. Arrastoa utzi dizu, baina liburu bat idazteraino... Nola bururatu zitzaizun liburua idazteko ideia?**

Helburu jakin barik hasi nintzen proiektuarekin, ariketa xume moduan planteatzen nuen. Barruak astintzen zizkidaten abestiak sortu ditu taldeak, eta lotura horretatik sortu zen ideia. Ez zen enkargu bat izan.

**Azkar garatu zenuen ideia, ez?**

Abestiak poesia bilduma bat ziren susmoa nuen. Punk talde gutxi izaten dira gai kantatzen dituzten abesti indartsuetako hitzen indarrari paperean eusteko. Subversion X taldea bai, ordea. Irakurtzen direnean ere, esaldi batzuk poesia dira.

**Uste duzu euskaratzean indar horri eustea lortu duzula?**

Ariketa hori egin nahi nuen. Punk mugimenduan ez da euskara askorik erabili, eta zaila da euskaratzea. Erronka bat izan da euskarara itzultzea eta esaldiek indarrik ez galtzea. Halere, oraindik idazteko daude euskarazko punk abesti onenak. Ez da saiakera askorik egin horretan sakontzeko.

**Erantzukizun handia izango da talde bati liburu bat egitea.**

Anekdota barregarri bat daukat. Liburua euskaraz egina dago. Beraz, jende askok eskatu zuen liburua itzultzeko, nirea itzulpena bada ere. Baina bazuten arrazoi puntu bat, hitzen itzulpenaz gain elkarrizketak bildu baititut, kar-kar...

**Izan al duzu taldekoen laguntzarik idazketa prozesuan?**

Nire iritzi subjektiboarekin egindako liburua da, baina Jabi Arroyo abeslariak lagundu egin dit. Euskal Herriko onenetakoa da kantuen hitzak idazten. Hari omenaldi bat egiteko modua ere izan da liburu hau idaztea.

**Euskaraz ere punk abestiak sor daitezkeela erakutsi nahi izan duzu liburu honekin?**

Ekarpen bat dela esango nuke. Euskarak badauzka punkera moldatzeko baliabideak. Adibidez, Fiachras eta Bizardunak taldeek egin dituzte punk kantuak. Estetika eta doinuak punk estilokoak ez izan arren, hitzak punk estilokoak dira zeharo.

**Oñati eta Ezkerraldea: gertu eta aldi berean urruti daudela uste duzu?**

Askotan, Ipar Euskal Herrikoak dira baztertutzat hartzen ditugunak, baina Ezkerraldeaz ere hitz egin behar dugu. Ezberdinak gara, baina ez hainbeste. Uste dut Arrasateko [Gipuzkoa] eta Santurtziko gazteek antzerako bizipenak dituztela. Egia da ez dagoela urruti, baina urruti sentitzen dugu askotan. Zaila da azaltzea...

**Zubi lana egitea da liburu honen asmoa?**

Bai, hori da. Askotan, Kanadako punk taldeak ezagutzen ditugu, baina ez Euskal Herrikoak. Ezagutarazteko modu bat izan daitezke horrelako liburuak. Guztiok hurbiltzeko ariketa bat da.

**Aurkeztu duzu liburua. Jendeak berdin gozatuko du Subversion X euskaraz?**

Harritu naiz zer-nolako oihartzuna izan duen ikusita. Interesa egon da, eta espero dut punkean dabilen jendeak gozatzea. Punk musika entzuten da, baina euskaraz kamutsa dela sentitzen dugu; beraz, punk gutxi sortzen da euskaraz. Liburu hau taldearen omenez egindakoa da, baina euskaraz punka sor daitekeela erakusteko modu bat ere bada. Nahi duenak Elkar banaketa sarean eros dezake liburua.

**LOTSABAKO**

**Subversion X taldearen abesti bat.** *Animal insatisfecho* laneko *La Herida*, *Zauria* euskaraz

**Euskaratu duzun taldearen esaldi bat.** *Recuerdos para vomitar* abestiko «amorru gosez nagok, heuk emango didak, ezta?»